


HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA

ATAUN

HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA



PLANGINTZAREN IRIZPIDE, HELBURU ETA HAUTABIDEAK

2025eko martxoa



SUSTATZAILEA



LANTALDE IDAZLEA



ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA
PLANGINTZAREN IRIZPIDE, HELBURU ETA HAUTABIDEAK

2025eko otsaila

LANTALDE IDAZLEA

IDAZLEAK:

ASTAZALDI ARK S.L.P.

- Hektor Espin Larreta. Arkitektoa
- Eñaut Muñoa Artola. Arkitektoa

AHOLKULARITZA JURIDIKOA:

- Aitor Iztueta Garaikoetxea.

INGURUMEN AHOLKULARITZA:

EKOLUR, S.L.

GENERO AHOLKULARITZA/

ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA/

HERRITARREN PARTAIDETZA:

AZTIKER KOOP.

AURKIBIDEA:	Orr
1. SARRERA	7
1.1 AURREKARIAK	7
1.2 PLANGINTZAREN IRIZPIDE, HELBURU ETA HAUTABIDEAK. AGIRIAREN JATORRIA	8
1.3 PLANGINTZAREN IRIZPIDE, HELBURU ETA HAUTABIDEAK. AGIRIAREN EGITURA	8
2. HERRITARREN PARTAIDETZA PROZESUAREN ONDORIOAK	9
ERANSKINA: PARTAIDETZA PROZESUAREN ONDORIOEN LABURPEN AGIRIA	10
3. JENDAURREKO EPEAN JASOTAKO EKARPENEN ETA IRADOKIZUNEN TXOSTENA	69
3.1 PARTAIDETZA PROZESUAN JASOTAKO EKARPENEN BALORAZIO OROKORRA	69
3.2 JENDAURREKO EPEAN JASOTAKO IRADOKIZUNEN ZERRENTA	78
3.3 JENDAURREKO EPEAN JASOTAKO IRADOKIZUNEN AZALPEN LABURRA	79
3.4 JENDAURREKO EPEAN JASOTAKO IRADOKIZUNEN BALORAZIOA	82
4. IRISMEN AGIRIA	97
ERANSKINA: INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN IRISMEN AGIRIA	98
5. PLAN OROKORRAREN BEHIN BETIKO HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK	132
5.0 ALDERDI OROKORRAK	132
5.1 INGURUMEN ETA INGURUNE FISIKOAREN ALDERDIAK	135
5.2 NUKLEO LANDATARRAK	136
5.3 EREMU HIRITARRA	138
5.4 BIZITEGI LURZORUA	139
5.5 JARDUERA EKONOMIKOAK	141
5.6 EKIPAMENDUAK ETA EREMU PUBLIKOAK	142
5.7 GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA	143
5.8 AZPIEGITURAK ETA ZERBITZU SAREAK	145
5.9 ONDAREA	146
6. ANTOLAKETA EREMUENTZAT HOBETSITAKO HAUTABIDEAK	146
6.1 ZUBIKOETA	146
6.2 AJARRESTA	146
6.3 ELBARRENA EKIALDEA	146
6.4 ELBARRENA MENDEBALDEA	147

6.5	ASTIGARRAGA	147
6.6	ARRONDO	148
6.7	ARINBERRIAGA	148
6.8	SAN GREGORIO EKIALDEA	149
6.9	SAN GREGORIO MENDEBALDEA	149
6.10	AIA	149
7.	HOBETSITAKO ANTOLAKETA HAUTABIDEAK LURZORU URBANIZAEZINEAN	150
7.0	ALDERDI OROKORRAK	150
7.1	LANDA-GUNEA LURZORU URBANIZAEZINEAN: ERGOIENA	151
7.2	ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA: ASTIGARRAGA	151
7.3	INTERES OROKORREKO NEKAZARITZA AZPIEGITURA: BAZTARRIKA	151
7.4	EKIPAMENDU KOMUNITARIOEN SISTEMA OROKORRA: SARA	151
8.	HOBETSITAKO ANTOLAKETA HAUTABIDEEN LABURPENA	152
8.1	HOBETSITAKO ANTOLAKETA HAUTABIDEEN LABURPEN KOADROA	152
8.2	HOBETSITAKO ANTOLAKETA HAUTABIDEEN ONDORIO OROKORRAK	153

1. SARRERA

1.1 AURREKARIAK

Ataungo Udalbatzarrak, 2024ko uztailaren 22an egindako bilkuran, udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aurrerapen agiria eta Hasierako Agiri Estrategikoa onartzea eta agiri horiek bi hilabetez jendaurrean jartzea erabaki zuen, interesdunek agiriari iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko, *2/2006 Legea, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa*, delakoaren 90.3 artikulua eta martxoaren 24ko *46/2020 Dekretua, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena*, delakoaren 26.5 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aipatu akordioa 2024ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 174. zenbakia) eta baliabide elektroniko propioetan, eta aldiz, urriaren 25ean eman zen argitara “udal-mugartean tirada handiena duen egunkarian”. Ondorioz, Aurrerapen agiriaren jendaurreko epea 2024ko irailaren 11tik abenduaren 26ra luzatu da. Jendaurreko epe horretan agiri honetan bertan aurrerago aurkeztuko eta baloratuko diren ekarpen zein iradokizunak aurkeztu dira.

Bestalde, Plan Orokorra idazteko prozesuaren Herritarren Partaidetza Programa oinarri hartuta, Aurrerapenaren jendaurreko epean zehar eta aurretik hainbat hitzaldi, bilera eta batzar burutu dira, ataundar guztiek agiriaren edukiak, irizpide eta helburuak, proposamen eta hautabideak ezagutu, eztabaidatu, emendatu eta berresteko aukera izan zezaten. Zehazki, Aurrerapen agiriaren jendaurreko epealdian burututako aurrez-aurreko hitzaldi, bilera zein batzarrak ondorengoak izan dira:

- Aurrerapen agiriaren aurkezpen saioak (auzoz auzo):
 - 2024/09/12, Aia auzoa.
 - 2024/09/18, San Gregorio auzoa.
 - 2024/09/19, San Martin auzoa.
- Hausnarketa eta eztabaida saio monografikoak (guztiak udaletxean):
 - 2024/09/24, Garapen ekonomikoa.
 - 2024/09/25, Erronka demografikoa.
 - 2024/10/01, Mugikortasuna. Ondare naturala.
- Ekarpenak kalean jasotzeko saioa. San Martingo plaza, 2024/10/15.

Aurrez-aurreko saioetan guztira 100 lagunek hartu dute parte (42 emakumek eta 58 gizonek) eta gainera, Aurrerapen agiria eskuratu eta ekarpenak egiteko beste zenbait euskarri ere erabili dira:

- Webgunea: jendaurreko epealdian 357 agiri deskargatu dira eta 9 ekarpen jaso dira.
- Euskarri fisikoak: udalerriko postontzietara 700 zabalgarri inguru banatu dira eta ekarpenak edo iradokizunak jasotzeko hiru postontzi fisiko jarri dira (Udaletxean, Aia auzoan eta San Gregorio auzoan), non 4 iradokizun jaso diren paperean.
- Galdetegia: irailaren 10etik urriaren 26ra paperean zein online bidez erantzuteko aukera izan da eta guztira 47 ekarpen izan dira, guztiak online.

Aurrerago jasotzen da Aurrerapenaren jendaurreko epealdian herritarren eskura jarritako bide ezberdinetatik jasotako ekarpen zein iradokizunen laburpen txostena, esan bezala, agiri honetan bertan aztertzen eta baloratzen direnak.

Aldi berean, onartutako agiriak Udal mugakideei helaraztea ere erabaki zen, baina gaurdaino ez da haiengandik inolako erantzunik jaso, eta ingurumen ebaluazioaren Haserako Dokumentu Estrategikoa Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen-organoari igortzea, zegokion epean ingurumen-ebaluazio estrategikoaren Irismen Dokumentua eman zezan.

Horrela, aipatu Irismen Dokumentua 2024ko azaroaren 11an eman zuen ingurumen-organoak, eta agiri honen 4. Atalean eranstean da osotasunean, jasotako txosten sektorial guztiekin batera.

1.2 PLANGINTZAREN IRIZPIDE, HELBURU ETA HAUTABIDEAK. AGIRIAREN JATORRIA

2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, delakoaren 62.1.a) artikulua zera dio:

1.– Plan orokorren edukia agiri hauetan formalizatuko da gutxienez:

a) Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza-ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen-elementuak dakartzan informazio guztia jaso beharko du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta aukeratutako soluzioen justifikazioa.

Beraz, *Plangintzaren Irizpide, Helburu eta Hautabideak* deritzon agiri hau aipatu legeko eskakizunari erantzutera dator, eta Ataungo Udalbatzak onartua izan ondoren, udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko funtsezko gidalerro bilakatuko da, ingurumen organoak emandako *Irismen Dokumentua* delakoarekin batera. Legeak xedatutakoari jarraituz, agiri hau Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Memoriari atxikiko zaio.

1.3 PLANGINTZAREN IRIZPIDE, HELBURU ETA HAUTABIDEAK. AGIRIAREN EGITURA

Agiriak, lehenik eta behin, herritarrek Aurrerapen agiriari egindako ekarpenak eta iradokizunak jasotzen, aztertzen eta baloratzen ditu, bi ataletan:

- batetik, herritarren parte hartze prozesuaren ondorioak eta jasotako ekarpenak;
- bestetik, jendaurreko epean aurkeztutako iradokizunen idazkiak.

Agiriak ondoren Hiria Antolamenduko Plan Orokorraren irizpide eta helburuak izango direnak finkatzen ditu behin betiko, Aurrerapen agiriaren egitura oinarri hartuta eta herritarrek egindako ekarpenak eta iradokizunak aintzat hartuz.

Berdin gertatzen da ondoren herritarren parte hartzeaz hobetsitako plangintza hautabideekin, hurrenez hurren, hiri lurzoru zein urbanizagarrian eta lurzoru urbanizaezinean sailkatuak guztiak ere.

2. HERRITARREN PARTE HARTZE PROZESUAREN ONDORIOAK

Ataun egin elkarrekin. Herri Plana herritarren parte hartze prozesua 2023ko irailean abiatu zen, udalerriaren egoeraren *Diagnostiko partekatua* deritzonari zegokion lehen fase baten bitartez.

Aipatu diagnostikoa Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapen agiria idazteko oinarri bezala erabili da, eta honezkero adierazi den bezala, Aurrerapena 2024ko irailean aurkeztu zen jendaurrean.

2024ko iraila eta urria artean, Aurrerapenaren jendaurreko epearen baitan eta modu osagarrian, parte hartze prozesuaren bigarren fasea burutu da, Ataungo herritarrek agiriaren edukiak, irizpide eta helburuak, edota proposamen eta hautabideak ezagutu, eztabaidatu, emendatu eta berretsi ahal izan zitzaizkien.

Prozesuaren fase hau, lehenengoa bezalaxe, erabat euskaraz garatu da, Ataungo gizarte eta hizkuntza errealitateak eskatzen duen moduan, ia bere osotasunean euskalduna den biztanleria baita udalerrikoa.

Horretarako baliabide materialak zein giza-baliabideak aurreikusi baziren ere, ez da inolako itzulpen edota esku hartzerik behar izan, ezta inolako euskarririk erdaraz lantzea ere, ez baitu inork halakorik eskatu. Beraz, aipatu parte hartze prozesuari (2. fasea) dagokion laburpen txostena jatorrizko bertsioan, hau da, euskara hutsean transkribatzen da ondoren.



AURRERAPEN FASEAN PARTAIDETZA ETA KOMUNIKAZIO LANAREN MEMORIA

AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
PARTEHARTZE DATUAK ETA EUSKARRIAK	4
AURREZ AURREKO SAIOAK	4
DOKUMENTAZIOA ESKURATU ETA EKARPENAK EGITEKO EUSKARRIAK.....	5
AURRERAPEN ZIRRIBORROAREN BALORAZIOAK	8
BIDE GORRIA-MUGIKORTASUNA	8
BALIO AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	9
ETXEBIZITZA	9
EKIPAMENDU KOMUNITARIOAK.....	10
JARDUERA EKONOMIKOAK.....	10
ONDARE KULTURALA ETA NATURALA.....	11
GUNE LIBREAK.....	11
AIAKO AUZOA.....	12
HAUTABIDEA	12
HAUTABIDEA	13
HAUTABIDEA	13
KEZKAK.....	14
ERANSKINAK.....	15
AURREZ AURREKO SAIOEN AKTAK.....	15
AURRERAPEN ZIRRIBORROAREN GALDETEGIA: EMAITZEN USTIAKETA	15

SARRERA

Memoria honetan HAPOaren lanketaren baitan aurrerapen fasean herritarrekin elkarrikteta zabaldu eta bideratzeko egin diren ekimenak jasotzen dira.

Aurrerapen fasean hiru hautabidez osatutako proposamen zirriborro bat aurkeztu da hau aztertu, baloratu eta iradokizunak eta zuzenketak egiteko aukera herritarren esku jartzeko helburuarekin. Aurrerapen zirriborroaren aurkezpenarekin eztabaidarako marko bat proposatu da, guztien artean aztertu eta beharrezkoak dituen zuzenketa eta ekarpenak ahalbidetzeko xedearekin.

Herritarrekin landu den fase hau irailetik urria amaiera bitarte luzatu da, bi hilabetez.

Bi hilabete hauetan kanal eta formula desberdinak gaitu dira herritarren parte hartzea errazteko. Horrela, aurrez-aurreko aurkezpen saioak, saio monografikoak, kale irteera bat, webgunea, online galdetegia, ekarpenak idatziz egiteko aukera eta abar bideratu dira astea horietan zehar.

Proposatu den ariketa ez da erraza. Datu eta baldintza tekniko askok zeharkatzen dute Hiri Antolamendurako Plan Orokor bat. Baina txosten honetan jaso diren emaitzek Ataun herri konprometitua eta parte hartzailea dela erakusten dute, inplikazio handiko jendeak osatua, zalantzarik gabe. Txostenaren lehenengo atalean datu horiek denak bildu dira.

Txostenaren bigarren atalean berriz, parte hartze kanal desberdinetatik jasotako informazio, iritzi eta ekarpenak jaso eta antolatu dira, aurrera egiteko baliagarriak izan daitezten. Atal horretan ikusiko den bezala, orohar, *Aurrerapen zirriborroan* egindako proposamena eta bertan jasotako hiru hautabideak nahiko lerrokatuta daude herritarren iritzi eta nahiekin; atal honetan jasotzen dira aurrerapenak herritarrengan sortutako kezka nagusiak eta egin dituzten ekarpenen edukiak.

Bukatzeko, eranskin gisa jaso da fase honetan sortutako dokumentazio guztia. Eranskinetan jaso dira aurrez aurre egindako saio guztien aktak (aurkezpen, saio-monografiko, kale irteera); galdetegiaren emaitzak; eta idatziz jaso diren ekarpen partikular eta taldekoak (on-line zein paperean jasotakoa).

PARTEHARTZE DATUAK ETA EUSKARRIAK

AURREZ AURREKO SAIOAK

1. Aurrerapen zirriborroaren aurkezpena

Aurrerapen zirriborroa aurkeztu eta azaltzeko hiru aurkezpen saio egin dira, hirurak herriko auzo desberdinetan.

Data	Lekua	Partaideak		
		Emakumeak	Gizonak	Guztira
2024/09/12	AIA	5	7	12
2024/09/18	SAN GREGORIO	7	9	16
2024/09/19	SAN MARTIN	9	20	29
GUZTIRA		21	36	57

Aurkezpenetan aurrerapen zirriborroaren eduki nagusiak aurkeztu ondoren herritarren balorazio eta ekarpenetarako tarte ireki da. Saio hauen aktak webgunean jaso dira.

2. Saio monografikoak

Lau saio monografiko antolatu dira.

Data	Gaia	Partaideak		
		Emakumeak	Gizonak	Guztira
2024/09/24	Garapen ekonomikoa	4	5	9
2024/09/25	Erronka demografikoa	4	4	8
2024/10/01	Mugikortasuna, ingurugiroa	1	5	6
2024/10/44	Generoa	4	0	4
GUZTIRA		13	15	28

Saio monografikoetarako izena eman behar zen aldez aurretik. Saioen inguruko informazioa eta izena emateko eskaera etxe guztietako postontzietara bidalitako euskarrian jaso da.

Saio guztiak udaletxean burutu dira, ganbaran zein batzar aretoan.

3. Kale irteera

Data	Lekua	Partaideak		
		Emakumeak	Gizonak	Guztira
2024/10/15	San Martingo plaza	8	7	15

Arratsaldeko 17.00etatik 19.00k bitartean San Martineko elizaren arkupetan bertaratu ziren herritarrei zalantzak argitzen saiatu eta beraiei iritziak, kezak eta proposamenak jaso ziren. Kale irteera hau etxeetara banatutako euskarrian iragarrita zegoen eta whatsapp bidez komunikatu zen egun aldaketa (eguraldiarengatik).

Guztira, aurrez aurreko saioetan 100 lagunek hartu dute parte: 42 emakume eta 58 gizon.

DOKUMENTAZIOA ESKURATU ETA EKARPENAK EGITEKO EUSKARRIAK

Informazio guztia herritarren eskura egotea ezin bestekoa da horrelako lanketa bati aurre egiteko. Helburua herritar guztiak informatuta egotea eta parte hartzeko aukerak ahalik eta gehien bermatzeko kanal eta baliabide desberdinak sortu dira.

Kuadro honetan euskarri hauen laburpen datuak:


Atauneginelkarrekin.eus	Bisitak	388
	Dokumentuak deskargatu	357
Galdetegia	On line	47
	Paperean	0
Ekarpinak	Webgunean	9
	Udaletxean	4

1. WEBGUNEA

Lehen fasean Atauneginelkarrekin.eus domeinua sortu zen prozesurako. Bertan dokumentazio guztia zintzilikatuz joan da faseen baitan. Webgunean dokumentuak, deialdiak eta ekarpinak egiteko bideak gaitu dira.

Jarraian atauneginelkarrekin.eus hilabete honetan izan duen jarduera erakusten duen zenbait irudi jasotzen dira.


ERABILTZAILE KOPURUA ETA DENBORA



*Eguneko pikoak dira.

JARDUERA

Actividad de los usuarios a lo largo del tiempo



SARBIDEA

Sesiones ▼ por
Grupo de canales principal de l...



GRUPO DE CANALES PRIN...

SESIONES

Direct	173
Organic Search	68
Referral	27

JARDUERA NAGUSIAK

Número de eventos por
Nombre del evento



NOMBRE DEL EVEN...	NÚMERO DE EV...
page_view	388
file_download	357
session_start	268
user_engagement	178
first_visit	119
scroll	118
click	37

Irudi grafikoek erakusten dute webguneak trafiko handia izan duela aurrerapen fasearen garaian, eta dokumentazioa eskuratzeko oso erabilia izan dela, izan ere, azken irudi honen arabera, 357 dokumentu deskargatu dira kanal honetan.

Bestalde, webgunea bi norabideetan erabilitako kanala izan da: alde batetik, dokumentazioa bertan zintzilikatu da eta deialdi guztien berri bertan jaso da. Bestetik, webguneak ekarpenak egiteko aukera ematen du eta bide honetatik 9 ekarpen jaso dira.

2. EUSKARRI FISIKOAK

Ataungo postontzi guztietara (700 bat gutxi gora behera; etxe bakoitzeko bi lagun kalkulaturik informazioa zuzenean 1.400 pertsonengana iristeko anbizioa izan du) banatu da aurrerapen zirriborroaren desplegablea, non hiru hautabideen planoak jaso diren.

Bestalde, Udaletxean txosten osoaren kopiak egon dira eskuragai herritarrentzat.

Ekarpenak eta iradokizunak jasotzeko hiru postontzi fisiko jarri dira: bat Udaletxean, beste bat Aian eta hirugarren San Gregorion.

Udaletxean **4 ekarpen** jaso dira paperean.

3. GALDETEGIA

Galdetegi bat sortu da fase honetan hautabideak baloratu eta hauen inguruko ekarpenak egiteko galdera irekiekin.

Galdetegia irailaren 10etik urriaren 26a bitartean egon da irekita.

Galdetegia online eta paperean erantzuteko aukera eman da. Paperezko aleak jarri dira postontziak zeuden lekuetan.

Galdetegia erantzuteko online aukera izan da erabiliena. Etxe guztietako postontzietara banatutako desplegablean QR bidez sarbidea gaitu da galdetegira, eta udalak herriko whatsapp taldera zabaldu du galdetegia online erantzuteko lotura baita ere.

Jaso diren erantzun guztiak online jaso dira. Guztira **47 galdetegi** erantzun dira.

AURRERAPEN ZIRRIBORROAREN BALORAZIOAK

Aurrerapen zirriborroaren proposamenak harrera ona izan du. Irizpideak eta ardatz nagusiak balekotzat eman dira aurrez aurreko saioetan zein galdetegian hautabideek jasotako balorazioetan. Aurreko fasean proposatutako mosaikoaren ideiak; mugikortasun jasangarriaren inguruan egiten den proposamena herriak duen erronka nagusietako bati erantzuten, lotura beharra; balio agrologiko altuko lurren izendatzea, etorkizunari begirako erronketarako baldintzak sortuz; eta etxebizitzaren zein ekipamendu komunitarioen inguruan egiten diren proposamenek orohar harrera ona izan dutela esan daiteke.

Ireki den elkarrizketa prozesura (aurreko atalean ikus daitekeen bezala) herritarrak beraien ideia, proposamen eta kezkekin etorri dira HAPOa izango dena hobetzeko asmoz. Eta ikus daitekeen bezala, zenbait aldaketa proposatu dituzte, beste zenbait zalantza plazaratu eta baldintzak edo irizpideak findu dituzte.

Gaika antolatuta aurkezten dira aurrez aurreko saioetan zein beste bideetatik jasotako balorazioak eta ekarpenak. Aurrez aurreko saioetako elkarrizketa eta eztabaida gehienak ez dira hautabide zehatz baten inguruan zentratu, ikusiko den bezala. Baina galdetegia erantzun duten pertsonak baloratu dituzte banan bana, eta horrela jaso dugu ere hurrengo lerroetan.

BIDE GORRIA-MUGIKORTASUNA

Orohar oso positibo baloratzen da Elbarrena-San Gregorio nukleo urbanoaren ideien pean jaso eta garatzea, herriak dituen dispersio pertzepzio eta zailtasunak arinduko lituzkeelako.

Horren baitan nukleo urbanoarentzat proposatzen den mugikortasun alternatiba proposamena, bizikleta, oinezko eta mugikortasun-bitarteko jasangarrientzako bidearen ideia oso ongi baloratu da.

Hala ere, marraztu den trazatuari dagokionez ekarpenak jaso dira. Jarraian biltzen dira norabide honetan jasotako ekarpen nagusiak:

- Arrondo eta Astigarragarako tartean (gutxienez eskolarako tartean) atzean baino karreterari lotuta egitea proposatzen da. Aukera gisa karreterari errail bat kentzea aipatzen da, eta kotxeetarako bidea txandakakoa izatea; honek kotxeak abiadura txikiagoan joatera behartuko lituzke gainera.
- Errepide nagusia erdigunetik txandakakoa izatea.
- Bidegorria atzetik baino, errepide ondoan.
- Arinetik behera bide gorria errepidearen eskuin aldean eraikitzea errazagoa dirudi.
- San Martin eta San Gregorio lotzea oso ongi baloratzen da baina hiru hautabideetan bide bera marraztu da, ez al dago beste aukerarik?

Bidegorria eraikitzeko, guztia batera ezingo denez egin, lehentasunak markatzea proposatzen da:

- Otasoro-Arrondo zatiarekin hasi.
- Edo bestela, hasi goitik behera, faseka San Gregoriotik San Martineraingo.
- Astigarraga aldean ibaiaren beste aldean egiteko aukera aztertu.
- Ergoiena eta kaskoa lotzea.
- Faseka egin dadila eta lehentasunak ongi erabaki: San Martinen barruan bide gorria ez da lehentasuna, San Martin eta San Gregorio lotzeari lehentasuna ematea. Kaskotik kaskora eraikitzea lehentasuna.

BALIO AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK

Landa lurrei lurrak beste erabilpenetarako ez kentzea eskatu da. Oso positibo baloratu da erreka bazterreko lurrak babestea. Une honetan eta epe laburrean lehen sektorerako erabiliko ez badira ere, hor da herritarren nahia eta norabidea, eta etorkizunerako aukera hori bermatzea garrantzitsua da.

Arinen aurreikusitako jarduera ekonomikorako lurrak balio agrologiko altuko lur bezala mantentzea.

ETXEBIZITZA

Etxebizitzaren gaia izan da saio guztietan tarte luzeena hartu duena. Kezka handia eragiten duen gaia da herritarren artean, besteak beste, aspaldi ez delako eraiki etxebizitza berririk eta egun zailtasun handiak dituzte gazteek herrian etxebizitzak eskuratzeke.

- Askotariko etxebizitza eredua. Tamaina desberdinetako etxeak: apartamentu txikiak, handiagoak; bloke baxuak, bifamiliarrak...
- Arrondon orain arteko etxebizitza tipologia mantentzea.
- Arinen dentsitatea baxuko etxebizitzak mantentzea.
- San Gregoriorako jasotakoa positiboki baloratu da.
- Espazio berean modu desberdinetako etxebizitzak eraikitzea. Hau da, eremu espezializatuak ez sortzea.
- Hilerriko zonaldean banakako etxe gehiago eraikitzeke aukera baloratu da eta HAPOan jasotzeko proposatu da.
- Zalantza sortzen du ez al diren lur eremu handiegiak izendatuko Astigarragan bizitegi erabilerarako. Astigarragako inguruan marraztu den etxebizitzetarako bigarren lerro hori baino, etxeen artean existitzen diren hutsuneak baliatzea proposatzen da: Rafalena eta Lazkantiberri-ren artekoa (garai batean Iturralde etxea zena. Bota egin zuten); Bordatxo eta Bonne tartean; eta Ambone eta Lazkauti-zahar arteko hutsuneak, adibidez.

- Astigarragan proposatutako etxebizitzak eraikitzeko aukerak eskolaren ingurura eramatea.

Baserriak eta etxe handiak. Baserri ugari daude hutsik, eta salgai daudenak garestiegiak dira gehienek iritziz, nekez eros dezake baserri bat horrelako prezioetan herriko gazte batek. Hori dela eta, baserriak eta etxe handiak etxebizitza txikiagotan zatitzeko aukera jaso dadila proposatzen da.

EKIPAMENDU KOMUNITARIOAK

Ekipamendu komunitarioak hautabidean agertzen den tokian jarri beharrean, herriko erdigunera eramatea komenigarriagoa da. Honen adibide gisa jarri da herriko plazako Bikario etxea. Espazio hau herritarrentzat gaitu daiteke eta ekipamendu komunitario gisa erabili.

Nagusientzako zaintzarako ekipamenduari garrantzia eman zaio saio desberdinetan. Ekipamendu hori ez da nukleotik kanpo ikusten, San Martin edo Astigarragan irudikatzen da, zonalde bizien inguruan nagusiak ahalik eta konektatuago mantendu eta zerbitzu guneetatik gertu:

- Astigarragan eskolaren ingurua.
- Errota Etxea proposatu da.

Boulderraren zonaldea eta Bikoitzen inguruko espazioa izan daiteke ekipamendu komunitarioetarako egokia.

Ekipamenduak indartzea eskatzen da. Nagusiki, bi norabideetan:

- Adinekoen zaintzara bideratutako ekipamendu eta espazioak.
- Nerabeei zuzendutakoak, herrian gelditzeko aukera izan dezaten, bestela ondoko herrietara joaten dira eta.
 - Padel guneak edo. Jada frontoian ez omen dago guztientzat lekurik.
 - Ura/piszina...
 - Erreka guneak prestatu: haurrentzat, nerabeentzat eta baita ere adinekoentzat, guztientzat irisgarriak izan daitezkeen lekuak prestatu erreka inguruan, freskatu eta jolasteko.

JARDUERA EKONOMIKOAK

- Arinen aurreikusitako jarduera ekonomikorako lurra balio agrologiko altuko lur bezala mantentzea. Inguruan etxebizitzak daude eta edozein jarduera ekonomikoak zarata eta trafiko zailtasunak ekarri ditzake.
- Ajarrestan jarduera ekonomikorako lurra izendatzeko proposamena ez da ikusten, lur horiek balio agrologiko altuko lurra bezala izendatu daitezela eskatu da.

- Bi kokapen hauek balekotsat ematen ez badira ere, jarduera ekonomikoetarako beste espazioen bat aurreikustea HAPOaren baitan eskatzen da.

Lehen sektoreari dagokionez:

- Baserrien inguruan eta lurretan bestelako eraikuntzarako aukerak aztertzea eta ematea, izan ere baserrien eraikinak ez dira bateragarriak gaur egun produkziarako dauden tresnekin eta hauek bertan gordetzeko edo hauekin lanean aritzeko behar diren espazioak bestelakoak dira.

ONDARE KULTURALA ETA NATURALA

Ataungo ondare kulturala eta naturala erabat lotuta ulertzen dira. Ataunen ondare naturalaren potentziala oso handia da, eta horrela jaso da eta baloratu da herritarrengatik. Kulturalki herri bizia da eta bere ondare kulturala naturarekin harreman zuzenean egon da eta egoten jarraitzen du (JM Barandiaran, Gentil Baratzea...).

Jarduera ekonomikoari lotuta ere ikusten da, eta zentzu honetan etorkizunerako gakotsat jotzen da naturari lotutako jarduerak eta zerbitzuak sustatzea eta honakoak baliatzea:

- Ibilbidetarako leku aproposa
- Lizarrustirekin duen lotura
- Zirkuituak potentziatu daitezke

GUNE LIBREAK

- Uarkain erabilera publikoko zona bezala utzi.

Gune berdearen inguruan zenbait gogoeta eta proposamen plazaratu dira:

- Kanpinaren ideia berreskuratzea
- Futbol zelaia
- Piszinaren bat edo

Jarduera zein izan daiteke zehaztu gabe, izendapen hori izango duten lurretan gauzatuko diren proiektuek zenbait baldintza betetzea eskatu da:

- Erabilpena herritarrei irekia egotea (baita ere); edo erabilera mixtoa.
- Kasu: trafikoa areagotu, aparkaleku beharra eta ekarri ditzaketen proiektuekin, honi ere eman beharko zaio erantzuna eragina negatiboa izan ez dadin.

San Martinen aurreikusten den gune berdea eskolara lotu, eskolak ere irabazi dezan espazio berde bat. Bertan aukera ezberdinak lantzea proposatzen da:

- Baratza
- Zuhaitzak
 - Polikiroldegiarekin lotzea.

Botikaren ondoko belardia gune libre bezala uztea proposatu da.

Errekaren ingurua berreskuratu. Erreka guneak prestatu: haurrentzat, nerabeentzat eta baita ere adinekoentzat, guztientzat irisgarriak izan daitezkeen lekuak prestatu erreka inguruan, freskatu eta jolasteko.

AIAKO AUZOA

Aiako auzotarrak urriaren 12ko aurkezpenaren ondoren bildu ziren hautabideak eta auzoaren aukerak aztertzeko. Auzoaren erronkak handiak dira eta ari dira proposamen eta eskaera desberdinak lantzen udalarekin elkarrizketa bati heltzeko asmoz.

HAPOaren aurrerapenean aurkeztutako hautabideei dagokienez bi eskaera luzatu dituzte:

- Behin betiko proposamenean 1. hautabideko proposamena jaso dadila, zeinean jarduera ekonomikorako eta etxebizitza berrietarako eremuak aurreikusten diren.
- Fosa beltza. San Gregorioko ur beltzekin lotzen joatea, erreka zikindu beharrean.

HAUTABIDEA

Galdetegian honako balorazioa jaso du 1. Hautabideak:

Auzo eta pertsonen arteko lotura eta kohesioa errazten du?	7,1
Herriko gazteek bertan bizitokia izan eta ataundarrek bizi osorako proiektua egiteko aukera ematen du?	7,4
Ondare naturala aitortuz Ataun ekonomikoki garatzeko aukera jasotzen du?	7,4

Aurrez aurreko saioetan honako aipamenak egin dira 1. Hautabidearen inguruan:

- Arrondon dentsitate baxuko etxeak.
- Ergoiena San Gregoriorekin lotu.

- Aiako bizilagunek bere auzoarentzat hautabide honetako proposamena jasotzea eskatzen dute.
- Arinen jarduera ekonomikoetarako izendatzea proposatzen den lurra beste leku batera aldatzea.

HAUTABIDEA

Galdetegian honako balorazioa jaso du 2. Hautabideak:

Auzo eta pertsonen arteko lotura eta kohesioa errazten du?	4
Herriko gazteek bertan bizitokia izan eta ataundarrek bizi osorako proiektua egiteko aukera ematen du?	4,8
Ondare naturala aitortuz Ataun ekonomikoki garatzeko aukera jasotzen du?	4,8

Aurrez aurreko saioetan honako aipamenak egin dira 12. Hautabidearen inguruan:

- Egungo etxe tipologia mantendu.
- Ergoiena San Gregoriorekin lotu.
- Ajarrestako jarduera ekonomikorako lur izendapen hori aldatu.
- Arinen jarduera ekonomikoetarako izendatzea proposatzen den lurra beste leku batera aldatzea.

HAUTABIDEA

Galdetegian honako balorazioa jaso du 3. Hautabideak:

Auzo eta pertsonen arteko lotura eta kohesioa errazten du?	8
Herriko gazteek bertan bizitokia izan eta ataundarrek bizi osorako proiektua egiteko aukera ematen du?	8,1
Ondare naturala aitortuz Ataun ekonomikoki garatzeko aukera jasotzen du?	8,1

Aurrez aurreko saioetan honako aipamenak egin dira 12. Hautabidearen inguruan:

- Ajarrestako jarduera ekonomikorako lur izendapen hori aldatu.
- Arinen jarduera ekonomikoetarako izendatzea proposatzen den lurra beste leku batera aldatzea.

KEZKAK

Etxebizitzaren premia, bereziki gazteentzat, saio guztietan izan da hizpide. HAPOak etxebizitzak eraikitzeke izendatuko dituen lurretatik haratago lehentasunezko gaitzat dute herritarrek. Norabide honetan, proposamen edo iradokizun ugari egin dira:

- Etxe hutsak merkaturatzeko lanketa bereziak egin
 - Etxe hutsen zentsoa eta egoeraren analisia
 - Etxe jabeekin kanpainak alokairuan jartzeko
 - Etxe horiek birgaitu behar badira, erraztasunak
- Gazteei inkesta bat egin: zenbatek behar duten etxea eta zein ezaugarriekin
- Udalean aholkularitza eta laguntza bulegoa sortu gai honen inguruan: jabeek aholkularitza alokairurako; kooperatibak sortzeko babesa eta aholkularitza; aztertu zertan lagundu dezakeen udalak.

San Martinetik San Gregoriorako gunea nukleo urbano bezala lantzea eta kontinuo zein mosaiko irudiarekin bat egin da orohar saio guztietan. Aurreko HAPOak jasotzen zuen irizpideetako bat: auzo guztiak modu orekatuan haztearena; momentu honetan Ataunek dituen erronkei aurre egiteko egokia ikusten ez bada ere, honek guztiak kezka bat azaleratu du prozesu honetan. Egoeraren diagnostika eta erronkak partekatuta ere, auzo bakoitzaren nortasunari euste beharra azpimarratu da.

Bide gorriaren aldeko hautua parte hartu duten guztiek positiboki baloratu badute ere, kezka eta zalantzak sortu dira honen exekuziorako beharko diren finantzazio, epe eta denbora, etabar.

- Ezin bestekotzat baloratzen da proposamen hau eta egun dauden trafiko arazoei irtenbidea ere ematea eskatzen da. Aldundiarekin landu
- Edonola, saio batean baino gehiagotan aipatu da ere lanketa bat egin beharko dela eta kotxeak alboratzeko, edo gutxiago erabiltzeko bestelako kultura bat landu beharko dela.

San Gregorion eta Arinen oinarritzko zerbitzu falta aipatu dira. San Gregorion ekipamendu gutxi daudela aipatu da eta behar bada jarduera ekonomikoak edota zerbitzuak sustatu beharko lirateke. Edonola, azken honek zalantzak sortzen ditu, ez baitute oso argi udal ekipamenduak San Gregoriora eramanda jendea erakartzea bermatuko lukeenik.

ERANSKINAK

AURREZ AURREKO SAIOEN AKTAK

AURRERAPEN ZIRRIBORROAREN GALDETEGIA: EMAITZEN USTIAKETA



ATAUN EGIN
ELKARREKIN
HERRI-PLANA


ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA

AURRERAPEN ZIRRIBORROA

AURKEZPEN SAIOAREN MEMORIA AIA. ATAUN, 2024/09/12

Bertaratutakoak

Herritarrak	Zazpi lagun: 3 emakume eta 4 gizon
Udal ordezkariak	Martin Aramendi, Alkatea, Mikel Dorronsoro (Hirigintza), Pili Imaz (Gizarte Politika eta Berdintasuna), Maider Irastorza (Kultura eta Euskara) eta Ion Fontenla (Ingurumena, Nekazaritza eta Abeltzaintza) zinegotziak
Lantalde teknikoa	Hektor Espin, Eñaut Muñoa (Astazaldi), eta Inesa Ariztimuño (Aztiker)



SARRERA ETA KOKAPENA

Martin Aramendi alkateak saioaren irekiera egin eta prozesua kokatu du.

Ondoren, Aztikerrek HERRI-PLANA eta HAPOren fasea kokatu du helburuak eta orain arte egindako lanak aurkezten diren hautabideekin lotu eta datozen asteetan egingo den lanketa laburki azaldu du.

AURRERAPEN ZIRRIBORROAREN AURKEZPENA

Astazaldiko Hektorrek eztabaidarako proposatzen den markoa osatzen duten hautabideak azaldu ditu; proposamenean marraztu diren planoen atzean dauden erabakiak diagnosiaren argazkia eta fase horretan landu ziren helburu eta irizpideekin lotuz. Hau da, planoetan marraztutako hautabide desberdinek nola erantzuten dioten HAPOaren helburuei herri plana eta Ataunek datozen 10 urteetan dituen erronkei erantzuna emateko.

PARTAIDEEN BALORAZIOAK/ EKARPENAK

Aurkezpenaren ondoren, galderetarako eta iritzia jasotzeko txanda zabaldu da.

Leku berezia hartu dute Aia auzoaren inguruko kezkek:

- HAPOan Aiarentzat proposamenik ez dagoela sentsazioa sortzen du.
- Aiako bizitza ez da erraza, zailtasun handiak daude bizitza oso bat bertan garatzeko.
- Zerbitzu falta dago auzoan: eskolara joateko, medikura joateko, erosketak egiteko.
- Ulertzen da HAPOak ez duela horri guztiari erantzuna emateko aukera. Baina Ataunek erantzun eta konponbide bat eman beharko lioke auzoari.

Aiaren etorkizuna non kokatu daitekeen elkarriketaren baitan honako indarguneak aipatu dira:

- Naturari lotutako turismo jasangarrirako aukerak baditu Aiak:
 - Ibilbideetarako leku aproposa
 - Lizarrustirekin duen lotura
 - Zirkuituak potentziatu daitezke

- Lehen sektorea eta ondare naturala dira Aiaren indargune nagusiak
 - Aitzitik, lehen sektorearen egoera tamalgarria da, une honetan ez da alternatiba
 - Lehen sektoreak laguntza behar du aurrera egin ahal izateko.
 - Lurrak landu egin behar dira, egoera irauli beharra dago.
- Aukera bezala ikusten da 1. Hautabidean jasotzen den jarduera ekonomiko baterako aukera, ostatu-taberna bat edo izan zitekeena; horrek ere auzoko herritarrentzat zerbitzu bat ere izan daiteke denda txiki baten papera jokatzuz.

Bukatzeko Aurrerapenean egindako proposamena orokorrean positibo baloratzen da, onartuta ez dituela herriak dituen arazo guztiak konpontzeko gaitasunik baina markatzen duen norabidea balekotzat ematen da.

ITXIERA

Amaitzeko fase honetan eztabaidarako eta iritzi bilketarako sortu diren bideak azaldu dira: on-line eta paperezko galdetegia; iradokizunak egiteko postontziak eta online lotura; informazio guztia eskuratzeko webgunea eta bertan nola jaso den dokumentazio guztia, hala nola burutuko diren lau saio monografikoetan izena emateko bideak.

Azkenik, eskerrak eman eta bukatutzat eman da saioa.

Ataunen, 2024ko irailaren 12an.



ATAUN EGIN
ELKARREKIN
HERRI-PLANA

ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA

AURRERAPEN ZIRRIBORROA

AURKEZPEN SAIOAREN MEMORIA SAN GREGORIO. ATAUN, 2024/09/18

Bertaratutakoak

Herritarrak	Hamaika lagun: 5 emakume eta 7 gizon
Udal ordezkariak	Martin Aramendi, Alkatea, Mikel Dorronsoro (Hirigintza), Pili Imaz (Gizarte Politika eta Berdintasuna) eta Maider Irastorza (Kultura eta Euskara) zinegotziak
Lantalde teknikoa	Eñaut Muñoa (Astazaldi), eta Susana Martinez (Aztiker)



1- SARRERA ETA KOKAPENA

Martin Aramendi alkateak saioaren irekiera egin eta prozesua kokatu du.

Ondoren, Aztikerrek HERRI-PLANA eta HAPOn fasea lotu ditu:

- Herri planean ondorioztatu ziren helburuak eta orain arte egindako lanak aurkezten diren hautabideekin lotu ditu.

Sarrera amaitzeko datozen asteetan egingo den lanketa laburki azaldu du.

2- AURRERAPEN ZIRRIBORROAREN AURKEZPENA

Astazaldiko Eñaut Muñoak eztabaidarako proposatzen den markoa osatzen duten hautabideak azaldu ditu; proposamenean marraztu diren planoen atzean dauden erabakiak diagnosiaren argazkia eta fase horretan landu ziren helburu eta irizpideekin lotu ditu. Hau da, planoetan marraztutako hautabide desberdinek nola erantzun diezaieketen Ataunek datozen 10 urteetan dituen erronkei erantzuna emateko.

Hautabideen azalpena ematearekin batera, argi adierazi du zioa ez dela horietako bat hautatzea, baizik eta bakoitzak zer duen interesgarri eta zer duen kaxkarrago baloratzea, eta ondorio horien baitan agian hautabide berri bat sortuko da, eta hori izango da forma teknikoa hartuko duena, eta beste erakundeen kontrasterako proposatuko dena.

3- PARTAIDEEN BALORAZIOAK/ EKARPENAK

Aurkezpenaren ondoren, galderetarako eta iritzia jasotzeko txanda zabaldu da. Jarraian jasotako balorazio eta ekarpenak:

HAUTABIDEAK BALORATZEN

- Partaideek hautabideen antzekotasuna azpimarratu dute, nahiko antzekoak direla baloratu dute, eta ñabardura txikiak salbu, ez dute horien arteko eztabaidarik ikusten.

- **Etxebizitzaren** gaiaren inguruan, honako aipamenak egin dituzte:
 - Galdetu dute ea zenbat ote diren hutsik dauden etxebizitzak. Alkateak esan du 200 paseak direla, eta kopuru horretan baserri hutsak ere sartzen direla.
 - Indarra hutsik dauden etxebizitzak betetzeko egin beharko liratekeela, eta ondoren berriak eraikitzea beharko lukeela baloratu da. Alkateak aipatu du Herri planean proposatutako Etxebizitza bulegoak horri erantzun beharko liokeela ere, eta ez dela egiteko erreza, jabego pribatuan eragiteko egun mugak eta ezintasunak daudela, baina kontzientzia beti landu daitekeenez, beti lortuko da emaitzaren bat. Etxebizitza huts batzuk ez direla bizigarriak ere esan du.
 - San Gregorion egin ahal izango diren etxebizitza aukera egokitzen jotzen da, bai lekuari dagokionez, eta baita dimentsioari dagokionez ere.
 - Partaide batek baloratu du egun baserriekin gertatzen dena: erosteko garesti, eta egokitzeko diru piloa...ezinezkoa bihurtzen dela baloratzen du, eta baldintza horietan behintzat, ez dela aukera bat baloratzen du.
- **Mugikortasuna eta batez ere errepidearen** egungo ezaugarriak baloratu dira: errepidea oso arriskutsua da, eta aldiro okertzen ari den egoera bizitzen ari direla azpimarratzen du: estua, trafikoa asko, kamioiak, busak, kotxe piloa, txirrindulariak...maiz belarrak ere errepidera ateratzen da, eta ez dago ertz txiki bat ere ez. Zentzu horretan, oso aberatsa baloratzen du bide gorria, baina horren exekuzio arduraz eta denboraz galdetzen du. Erantzun zaio udalarena izango dela horren exekuzio ardura, eta faseka egiten joan beharko dela, eta aprobetxatu beharko direla interbentzio ezberdinak bide gorria sortzen joateko.
 - Galdetzen da ea zer dela eta ez den egokitzen Kaxio bidea, eta hori aprobetxatuta sortzen bide gorria. Erantzuten da Kaxio bidea ez dela moldagarri, eta ezingo litzatekeela bide gorri bihurtu. Egundagoen bezala ez da irigarria, ez ditu baldintzak betetzen. Landa lurretik doa, eta hor ezin da edozein interbentzio egin, baimenak eskuratzea oso zaila izango litzateke.
 - Azpimarratzen da berriro errepidearen arriskua, eta bide gorria bitartean ere zerbait egin behar dela esaten da. Baloratzen da kotxeak gora eta behera, eta oso azkar mugitzen direla, eta horrekin zerbait egin behar dela. Aipatzen da baietz, datuen arabera, egunero gasolindegitik 4.000 auto pasatzen direla, eta Lizarrustitik 200. Kopuru handiak dira 1.400 biztanleko herri batentzat. Eta oso zaila gertatzen ari zaigu denoi kotxeak alboratu eta beste mugikortasun eredurantz pausoak ematea, bizi estiloa, ohiturak, azkartasuna...
 - Planteatzen da errepidean epe motzerako neurriak lantzea. Horretan, Aldundia interpelatu beharko dela azaldu da, berea baita eskumena.
 - Aparkalekua behar dela baloratzen da, eta baita ere aparkalekua jartzeak kezka sortzen du, horrek ere errazten duelako kotxearen mugikortasun eredua.

- Barandiaran museo eremua handitzea egokia, da, baina horrek ere **turismo eta kotxe mugimendu** gehiago ekar dezake, eta zurrumbiloan gabiltza! Leku zaila edozertarako, eta hori ere kontuan izan behar da.
- **Ajarrestan industriarik ezetz** baloratzen da, ez duela zentzurik.
- San Gregoriori lotuta, **zerbitzu falta azpimarratzen** da. Egun taberna bakarrak eguerdiko 14etan itxi egiten du; alternatiba soziedadea da nagusientzat, baina ez dago elkargune-topagunerik. Gure kulturaz zaila egiten da elkartzea taberna eta dendarik gabe. Dendaren beharra ere aipatzen da: ogia, eta oinarritzko gauzeekin. Taberna-denda baina irekita goiz eta arratsaldean. Hori gabe San Gregorio oso hilda dago, eta orduan denak gora eta behera ibiltzen dira. Zerbait egin beharra eskatzen da.

SORTUKO DEN PROPOSAMEN BERRIAN ZER JASO BEHAR DA BAI ALA BAI?

- Bidegorria, oinezko bidea eta errepidearen zirkulaziorako neurriak
- Mosaiakoaren ideia, edukiz eta jardueraz bete espazioa
- Etxebizitza erraztu gazteak Ataunen geratzeko.
- OROKORREAN, aipatzen diren helburuak ontzat ematen dira

BESTERIK

Aipatu dira eta ireki dira hausnarketarako beste zenbait iritzi:

- Zaila izango da plangintza hori betetzea, diru eta indar asko beharko da.
- Errepidean berehalako neurriak behar dira, zertxobait seguruago bihurtu behar da eremua.
- San Gregoriok elkargunerako zerbitzuren bat behar du: zerbitzua bera, eta bertakoak bertan elkartzea erraztuko duena (taberna-denda).

4- ITXIERA

Amaitzeko fase honetan eztabaidarako eta iritzi bilketarako sortu diren bideak azaldu dira: on-line eta paperezko galdetegia; iradokizunak egiteko postontziak eta online lotura; informazio guztia eskuratzeko webgunea eta bertan nola jaso den dokumentazio guztia, hala nola burutuko diren lau saio monografikoetan izena emateko bideak.

Azkenik, eskerrak eman eta bukatutzat eman da aurkezpen saioa.

Ataunen, 2024ko irailaren 18an.



ATAUN EGIN
ELKARREKIN
HERRI-PLANA

ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA

AURRERAPEN ZIRRIBORROA

AURKEZPEN SAIOAREN MEMORIA SAN GREGORIO. ATAUN, 2024/09/19

Bertaratutakoak

Herritarrak	Hogeita bost lagun: 8 emakume eta 17 gizon
Udal ordezkariak	Martin Aramendi, Alkatea, Mikel Dorronsoro (Hirigintza), Pili Imaz (Gizarte Politika eta Berdintasuna), Maider Irastorza (Kultura eta Euskara), eta Aitzol Barandiaran (Komunikazioa) zinegotziak
Lantalde teknikoa	Eñaut Muñoa (Astazaldi), eta Susana Martinez (Aztiker)



SARRERA ETA KOKAPENA

Martin Aramendi alkateak saioaren irekiera egin eta 2022tik hona lan gaiaren bueltan egindako ibilbidea kokatu du.

Ondoren, Aztikerrek HERRI-PLANA eta HAPOren fasea lotu ditu:

- Herri planean ondorioztatu ziren helburuak eta erronkak errepasatu ditu eta aurkezten diren hautabideekin lotu ditu.

Bileraren sarrera amaitzeko azpimarratu da oraingoz ez dagoela proposamenik, soilik hautabide zirriborroak daudela, eta iraila eta urria baliatuko direla zirriborro horiek herritarrekin kontrastea egiteko eta jasotzen diren balorazioak kontuan izanda, proposamena sortu ahal izateko.

AURRERAPEN ZIRRIBORROAREN AURKEZPENA

Astazaldiko Eñaut Muñoak eztabaidarako proposatzen den markoa osatzen duten hautabideak azaldu ditu; proposamenean marraztu diren planoen atzean dauden erabakiak diagnosiaren argazkia eta fase horretan landu ziren helburu eta irizpideekin lotu ditu. Hau da, planoetan marraztutako hautabide desberdinek nola erantzun diezaieketen 2023ko udazkenean herritarrekin egindako lanketan ondorioztatutako helburuei.

Hautabideen azalpena ematearekin batera, argi adierazi du zioa ez dela horietako bat hautatzea, baizik eta bakoitzak zer duen interesgarri eta zer duen kaxkarrago baloratzea. Jasotzen diren balorazio eta ondorioen baitan agian hautabide berri bat sortuko da, eta hori izango da forma teknikoa hartuko duena, eta beste erakundeen kontrasterako proposatuko dena.

PARTAIDEEN BALORAZIOAK/ EKARPENAK

Aurkezpenaren ondoren, galderetarako eta iritziak jasotzeko txanda zabaldu da.

JARRAIAN JASOTAKO BALORAZIO ETA EKARPENAK:

- Astigarran proposatzen den bai bide gorria eta baita etxebizitzak ere, zergatik ez dira errekan beste aldean proiektatzen? Helburuetan landa lurra eta lehen sektorea bultzatu nahi dela aipatzen da, eta landa lurra aldatzen dira eraikigarriak izateko mesedetan. Proposamenetan jasotzen den moduan, etxebizitza horiek ez dute eguzkirik izango arratsaldera arte, eta orduan ere justua. Errekaren bestaldean eginez gero, argi eta eguzki gehiago izango lukete.

Eskaera zehatza da egun landa lurrari ez kentzea lur sailik, horrek kontra egiten baitio aldi bererari aipatzen den landa lurra ez jateari.

Arkitektoak aipatzen du agian aukera bat dela, baina horrek eskatuko lukeela zubia, pasarela, e.a. beharra, eta horrek zailtasunak ekarriko dituela. Horrez gain, den lurzoruagatik eta inguruan dauden elementuengatik, erakunderen baten txostena jasoko lukeela aurreikusten du.

- Galdetzen da ea bide gorria zatika joango den, edo nola egingo litzatekeen, eta nola finantzatuko litzatekeen. Erantzuten da bide gorria herri barnean denean ardura munizipala dela, eta kasu honetan horrela izango dela. Hori dela eta, faseka egingo litzakeela irudikatu da, baina oraindik ez dago proiekturik, eta ezta finantzazio aukerarik ere ez. Helburuak jartzen joan beharko dela baloratzen da, eta horiek betetzen joan pixkanaka. Finantzazioari dagokionez, adibide gisan aipatzen da bada Arrondon etxebizitzak egitearen truke, karga urbanistikoetako bat hori izango litzatekeela, zona horretarako bide gorria ipintzea. Baina azpimarratzen da teknikoki faseak eta finantza bideak landu gabe daudela, besteak bete oraindik ez dagoelako proposamen zehatzik ere ez.

- Landa lurren harira, Arinen ere desagertzen direla aipatzen da, eta urbanizable izendatzen dela, orduan, non geratzen da landa lurra babestea? Azken urteetan etxeak berriro dira bertan, eta auzoa dentsitate baxuarekin sendotu da, eta orain, industria lur bat jarriko da? Bertako biztanleek ez dute ikusten bertan ekipamendu sozioekonomikorik. Argi dute orain arteko norabidearekin jarraitu nahi dutela, dentsitate baxuko hazkundearekin eta auzo identitatearen babesa eta sustapenarekin.

Zonalde horren harira argitzen da inolaz ere ez dela aurreikusten industriako inongo jarduerarik, eta islatutako ekipamendua lehen sektorearekin lotutako aktibitatearen baterako aurreikusi dela. Halere, baloratzen du beste herritar batek ez dela gune egokiena, kokatzen baita etxe gehiena dagoen lekuan. Baloratzen da harreman hori ez dela nahi, etxebizitzak-jarduera harremana nahastuta, elkarri eragingo diolako, bai aparkalekua, bai trafiko fluxuan, e.a.

- San Martin eta San Gregorio lotzea oso idea ona da, eta aspaldiko hamarkadetako nahia eta beharra da. Hautabide denetan trazatu bakarria proposatzen da, ez dago aukerarik trazado ezberdinak egiteko? Aukera bakarria da?

Bestalde, bere garaian auzo bakoitzaren nortasunari eustea eta hori babestea erabaki zen, eta norabide horretan eraberritu dira etxeak. Eskatzen du planeamendu berrian aukera horri eustea eta auzo bakoitzak bere identitateari eustea eskatzen da.

Azkenik, Ergoiena ere kasko gunera lotzea eskatzen da, eta norabide horretan kontuan hartzea eskatzen da.

- Beste norabidean, Arrondon propietarioak uso agropekuario mantentzea eskatzen du, orain urbanizatu nahi den horretan.
- Proposatzen den norabidean Astigarragan dentsitate handiko hazkuntza gertatuko da, eta norabidea beharko luke auzoak pixkanaka indartzea, gune bakoitzean gutxi batzuk handitzeko aukeran.
- Eskatzen du errespetatzea azken boladan eta gaur egun egin diren garapenak eta eraberritzeak, eta ez botarazi oraintxe osatu den ezer. Arin inguruan gertatu diren berrikuntzak babestu beharko lirateke.
- Galdetzen da ea HAPO honekin aisialdi-kultura garapena nola gertatzea aurreikusten den; hau da ea balio kulturala, naturala eta paisajistikoa nola babestuko den. Erantzuten da herri planean horri begira ateratako ideiak honakoak izan zirela:
 - Ibilbide gidatua sortu behar zela, bai bertakoak murgiltzeko eta etortzen den bisitaria murgiltzeko ere, eta natur-bideak izan behar zutela, tarteka kultura adierazpen gidatuekin. Horretan lagunduko duten baliabideak irudikatu ziren, hori elikatzeko norabidean. Kultura-natura-aisia integratzearen ideia sustatzea eta dinamizatzeari hitz egin zela argitu zen, eta ez horrenbeste lur zoruaren kategorizazioarekin.
- Gune berdeak, zer aurreikusten da? Futbol zelaia? Kanpiña izan daiteke? Erantzuten da baietz, izan daitekeela, baina hautabideetan ez dela jaso. Proposatzen bada aztertuko dela ere esan da (autokarabana parking-a ere mahai gainean egon izan da.
- Arrondon, azken plana oso ondo joan dela baloratzen du beste herritar batek, eta orain blokea? Etxebizitza blokea? Eskatzen da berriro ere dentsitate baxuko etxebizitza ereduarekin jarraitzea. Azpimarratzen da aukerak direla eta ez dela ezer definitiboa. Orain arte bilatu da aukera ematea herritarren deliberazio jardunalditik jasotakoari.
- Eskatzen da ondo gogoetatzea ea benetan zenbat biztanle lortzea den helburua.
- Astigarragan planteatzen dena, eskola ondora ekartzea proposatzen da (etxebizitzak).

- San Martinen futbol zelaia izateak ze ekarriko duen aztertu ote den galdetu da. Erantzun da eskualdeko emakumeen futbol zelaia izango litzatekeela, emakumeen futbol beharrei erantzuteko.
- Galdetzen da ea ba ote dagoen dirua dena aurrera eramateko, bidegorria ere ez ote den izango nahiko lan herriarentzat.
- Piszina berde gunetzat jotzen ote den galdetzen da. Erantzuna da baietz, berdegune gidan ulertu ahal izango litzatekeela. Pertsona berdinak baloratzen du ea bide gorriak eskola erditik pasa behar ote due. Azkenik, inoiz kanping piszina sortzea burutatu ote den.
- San Martin eta San Gregorio lotzearen helburua ongi ulertuta geratu da, baina kasko barruetan ez du zertan lotura bide gorriak ekarri behar, San Martinen behintzat, bai baitago barne lotura jada. Azpimarratzen du kasko gunetik kasko gunera eraikitzea egokia dela, eta kasko bakoitzaren barrenean ez duela zertan.
- 3. Adinekoentzat ekipamendua aurreikusi da eta horretan aparkalekua? Bertakoak bai, baina kanpotik ere mordoa etorriko baita. Aurreikusi da horrek sortuko duen trafikoa? Egun ibilgailuen joan etorriak arazo dira, eta gero?

AZPIMARRATZEN DA:

- Bide gorriaren ideia kaskotik kaskora oso egokitzen da eta helburutzat jotzen da. Lehenetsuna behar duela izan aipatzen da. Kaxio bidea ere mantenduta eta txukun izatea eskatzen da.
- San Martin eta San Gregorio lotzea oso helburu garrantzitsutzat jotzen da.
- Arrondon, orain arte garatu den etxebizitza tipologia mantentzea eskatzen da, eta bizilekuetan jarduera ekonomikorik ez.
- Oso beharrezkoa eta egokitzen da jotzen da nagusientzat ekipamendu aukera gorde izana, eta kaxko aukeraren batean egitea dela egokiena esaten da.

1. HAUTABIDEAN:

- Arrondon, dentsitate baxuko etxeak, bai; bi bloke 8 bizitzakoak, ez.
- Ergoiena auzoa S.Gregoriorekin ez lotzea akatsa da.

2. HAUTABIDEAN:

- -Auzoen nortasunari eusteko modua ez da irudikatzen. Egungo etxe tipologiaren ereduarekin jarraitzea eskatzen da, aurreko araudiko irizpideekin, alegia. Bateratu iritzpide horiek eta landu diren herri erronkak.

3. HAUTABIDEAN:

- Garapen ekonomikoa, kultura-natura eta aisia ardatza hartuta ez da sumatzen (inongo hautabideetan ere ez)

SORTUKO DEN PROPOSAMEN BERRIAN ZER JASO BEHAR DA BAI ALA BAI?

- Bidegorria, oinezko bidea eta errepidearen zirkulaziorako neurriak.
- Mosaikoaren ideia, agian, baina egungo biziguneak osatuz.
- Etxebizitza erraztu gazteak Ataunen geratzeko.
- Hirugarren adinekoen zaintzarako ekipamendua
- Zalantza bertakoentzat, jarduera ekonomikorako ekipamendua Arin/Saran.
- OROKORREAN, aipatzen diren helburuak ontzat ematen dira, eta azpimarratzen da etxebizitza hazkundera eta eredia orain artekoa behar duela, eta pisu blokeak non jarri tentu handiz erabaki

BESTERIK

Aipatu dira datozen bi asteetan gertatuko diren mahai espezifikoak eta horietan parte hartzeko aukera. Horrela, interesa duenak idatzi edo deitu behar duela esan da. Azkenik, urriaren erdira bitarte jasotzen diren balorazioak ustiatu, eta proposamena sortzeko material gisan erabiliko da, orain arte landutakoarekin kontrastatuta.

ITXIERA

Amaitzeko fase honetan eztabaidarako eta iritziz bilketarako sortu diren bideak azaldu dira: on-line eta paperezko galdetegia; iradokizunak egiteko postontziak eta online lotura; informazio guztia eskuratzeko webgunea eta bertan nola jaso den dokumentazio guztia, hala nola burutuko diren lau saio monografikoetan izena emateko bideak.

Azkenik, eskerrak eman eta bukatutzat eman da aurkezpen saioa.

Ataunen, 2024ko irailaren 19an.



ATAUN EGIN
ELKARREKIN
HERRI-PLANA

ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA



**ERRONKA
DEMOGRAFIKOA**

MEMORIA

ATAUN, 2024/09/25

Bertaratutakoak

Herritarrak	Zortzi lagun: 4 emakumezko eta 4 gizonezko
Lantalde teknikoa	Inesa Ariztimuño eta Gari Arrieta (Aztiker)

SARRERA ETA KOKAPENA

Saioari hasiera emateko, Aztikerrek ongi etorria eman die saiora bertaratutako lagunei. Honekin batera, orain arte egindako azken pausuen errepaso labur bat egin du, horien artean aipatu du egindako deliberazio jardunaldia. Bertatik lortutako ekarpenekin Astazaldik 3 hautabide proposamen garatu dituela adierazi du, eta aipatu du gaurko saioaren helburuetako bat 3 hautabide horiek aztertzea eta horien gaineko ekarpenak egitea izango dela.

Horren ondoren, adierazi du saioan zehar landuko den gaia garapen ekonomikoa izango dela, eta horrekin batera Ataunek HAPOari lotutako hainbat erronka plazaratu ditu: erronka soziodemografikoa, industria gune bat ezartzearen kontrako apustua, herriko ondare naturalari etekina ateratzea eta hau mantentzea etab.

Azkenik zera argitu du, HAPOak planoetan azaltzen diren proposamenak garatzeko aukera ematen duela, baina planoetan agertzeak berak ez duela esan nahi lan horiek burutuko direnik, etorkizunean lan horiek egiteko aukera sortzen duela baizik.

TALDE DINAMIKA

Aztikerreko teknikariak, behin saioaren testuinguratzea egin ostean, erronka soziodemografikoari aurre egiteko dauden lan ildoak aipatu ditu: Etxebizitza eta nagusien zaintza. Gai horien baitan talde osoak Aztikerren dinamizazioaren bitartez hainbat ekarpen jaso ditu, baita beste gai batzuetan ere.

PLENARIOA: PARTAIDEEN EKARPENAK ETA IRITZIAK

Hauek izan dira plenarioan jaso diren ekarpenak besteak beste:

ETXEBIZITZA:

- Etxebizitza kooperatibak eta BOEk egin beharko lirateke gaztek Ataunen geratzen direla bermatzeko
- Etxebizitza sozialak eraikitzeak beharra dago herrian. Gazteek ezin dituzte etxebizitza berriak erosi ezta baserriak ere.
- 237 etxebizitza daude hutsik Ataunen eta etxebizitza berriak egin beharrean horiek izan dezaketen bideragarritasuna aztertzea ezinbestekoa da.

- Hutsik dauden etxebizitzekin dagoen arazoa zera da, ez duela inork saldu nahi, jendeak soilik alokairuan jarri nahi du bere etxebizitza.
- Etxebizitza hutsak egoteak gazteak emantzipatzeko arazo nagusienetakoa da Ataunen, dauden etxebizitzaz gain beste etxebizitza batzuk egiteko zailtasun handiak daudelako.
- Gazteentzat etxebizitza txikiagoak eta merkeagoak egin daitezke, aldiz, jende helduagoarentzat etxebizitza handiagoak eraiki daitezke familian bizi diren horientzat.
- Ataunen eraikitzen diren etxebizitza berriak Ataundarrentzat babestu behar dira. Hori egin ezean inguruko herrietako jendea etorriko da bizitzera, batik bat ekonomikoki botere gehiago dutenak izango lirateke.
- Plaza ondoan etxebizitzak egitea ez da guztiz ideia ontzat hartzen, bertan dagoen berdeguneak errespetatu behar direlako.
- Botika etxea (Zumardia) inguruan eraikitzeko aukera ona izan daiteke, espazio horiek udalarenak direlako eta horrek erraztasunak sortzen ditu etxebizitza berriak eraikitzerako garaian.
- Etxebizitza aukerak sortzekotan, baldin eta auzoen bizitza mantendu nahi bada, auzo guztietan eraiki beharko lirateke eta ez soilik herriko erdigunean kontzentratu etxebizitzak.

NAGUSIEN ZAINTZA:

- Nagusiak industria gunera bidaltzea ez da onartzen, komunitate ikuspegitik 3. Adineko pertsonak alboratzen dituelako.
- Nagusientzat eraikin bat egitea ezinbestekoa da, eta horretaz gain, pertsona hauen mugikortasuna bermatu beharreko afera bat da.
- Herri guztiek ezin dituzte zerbitzu guztiak eskaini. Mugikortasuna indartu behar da bailara mailan zerbitzu horietara heldu ahal izateko.
- Herriko komunitatearen parte izaten jarraitzeko zaintza komunitarioa bultzatu beharko litzateke, adibidez: eguneko zentroa, herrian harremantzeko espazioak, belaunaldi ezberdinen arteko harremanak sortzeko dinamikak etab.
- Bailara ikuspegia txertatu beharra dago nagusien zaintzaren aferari erantzun bat emateko, etekinak normalean herri handietan geratzen dira eta hori banatzeko beharra dago.
- Boulderraren inguruko zonaldean zerbitzu komunitarioak txertatzea aukera ona izan daiteke. Bikoitzen ondoko espazioan horrelako espazioak sortzea ere aukera ona da.
- Herri baratzak belaunaldi arteko sozializazioa bultzatzeko oso erabilgarriak dira.

BESTELAKO GAIAK:

- Lurrak zatitzea baserria mantentzeko aukera bada, ideia ona izan daiteke.
- Baserri kontzeptua aldatu egin da, produkzio eremu izatetik, bizitoki soilak izatera pasatu daitezke etorkizunean. Gaur egun baserri eremuetako landetan lan egiteak geroz eta etekin ekonomiko gutxiago du eta zaila da hori denboran zehar mantentzea.
- Etekin ekonomiko baxua dute lurrek eta nekazaritza zentro txiki horien irtenbidea oso zaila da.
- Eredu misto bat bultzatzeko aukera aztertu daiteke herri mailan.
- Ataunen lurra aberatsa eta emankorra da nekazaritza eredu jasangarri bat bultzatzeko.

ITXIERA


Plenarioan burutu den eztabaidaren ostean, Aztikerrek eskerrak eman dizkie saiora bertaratutako partaideei eta gogorarazi die inkesta bat dagoela nahi dituzten ekarpen berriak egin ahal izateko.

Ataunen, 2024ko irailaren 25ean.



ATAUN EGIN
ELKARREKIN
HERRI-PLANA

ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA



**GARAPEN
EKONOMIKOA**

MEMORIA

ATAUN, 2024/09/24

Bertaratutakoak

Herritarrak	Bederatzi lagun: 4 emakumezko eta 5 gizonezko
Lantalde teknikoa	Inesa Ariztimuño eta Gari Arrieta (Aztiker)

SARRERA ETA KOKAPENA

Saioari hasiera emateko, Aztikerrek ongi etorria eman die saiora bertaratutako lagunei. Honekin batera, orain arte egindako azken pausuen errepaso labur bat egin du, horien artean aipatu du egindako deliberazio jardunaldia. Bertatik lortutako ekarpenekin Astazaldik 3 hautabide proposamen garatu dituela adierazi du, eta aipatu du gaurko saioaren helburuetako bat 3 hautabide horiek aztertzea eta horien gaineko ekarpenak egitea izango dela.

Horren ondoren, adierazi du saioan zehar landuko den gaia garapen ekonomikoa izango dela, eta horrekin batera Ataunek HAPOari lotutako hainbat erronka plazaratu ditu: erronka soziodemografikoa, industria gune bat ezartzearen kontrako apustua, herriko ondare naturalari etekina ateratzea eta hau mantentzea etab.

Azkenik zera argitu du, HAPOak planoetan azaltzen diren proposamenak garatzeko aukera ematen duela, baina planoetan agertzeak berak ez duela esan nahi lan horiek burutuko direnik, etorkizunean lan horiek egiteko aukera sortzen duela baizik.

TALDE DINAMIKA

Aztikerreko teknikariak, behin saioaren testuinguratzea egin ostean, saioan landuko den metodologia azaltzeari ekin dio. Gauzak horrela, adierazi du, lehenik eta behin, 3 pertsonako taldeetan banatuko dela taldea. Eta talde horietan proposatu die Astazaldik sortutako 3 hautabideen gaineko ekarpenak egitea honako 3 lan ildoetan: Turismoa, lehen sektorea eta zerbitzuak.

Talde bakoitzari 40 minutuko tarte eman zio hiru hautabideen baitan ekarpenak egin eta lan ildo bakoitzaren gainean ideiak plazaratzeko.

PLENARIOA: PARTAIDEEN EKARPENAK ETA IRITZIAK

3 taldetan banatutako dinamika buru ostean, talde guztiak plenarioan batu dira eta lan ildoen baitako ekarpenak plazaratzeari ekin diote. Hauek izan dira besteak beste plenarioan jaso diren ekarpenak:

TURISMOA:

- Bidegorriak BOL eremua bultzatzeko modu bat Lazkaorekin lotuta dagoena. Azken finean, bide gorriak aukera ematen du Ataun Lazkaorekin lotzeko eta horrek Ataunen bizitza hobetu dezake.
- San Gregoriora heltzeko zailtasunak sortzen dira bidegorriarekin, batik bat topografikoak.
- San Gregorion ez dago ia ekipamendurik ez eta zerbitzurik, San Gregorio auzo bizia izatea nahi bada bertan indarra jarri beharra dago aktibitate ekonomikoak edota zerbitzuak garatzen.

ZAILTASUNAK/BESTELAKO EZTABAIDAK:

- Udal ekipamendua San Gregoriora eramateak jende gehiago erakarriko luke ala utzita jarraituko luke auzoak?
- San Gregorion agroturismoa jartzea ideia ona izan daiteke, baina aste santuan edota gabonetan jendeak ez badu bertan lan egin nahi ez du zentzu handirik, gara horietan baita turismo gehien egon daitekeen garaia.
- Turismoarekin lotuta ekintzailetasunean arazoak daudela plazaratu da, azpiegiturak egon badaudelako baina ez du herriko inork hori hartu eta bertan lan egin nahi.
- San Gregorion inbertitzea (ekipamenduak, zerbitzuak, aktibitate ekonomikoak...) auzoak lotzeko aukera on gisa antzematen da.
- Bidegorria garrantzitsua da inguruko jendeak paseatzeko, baina mugikortasunari lotuta ez du horrenbesteko garrantzirik, izan ere, eguraldi txarra egiten duenean kasu erabilera mugatua izango luke.
- Txangoetarako eta paseorako guneetan zerbitzu falta dagoela azpimarratu da.
- HAPOak turismoarentzat zailtasunak ezarri ditzake, HAPOak berak mugatuko duelako zonalde edo espazio bakoitzean zer eraiki daitekeen eta zer ez.

LEHEN SEKTOREA:

- Baserrien inguruan eta lurretan bestelako eraikuntzarako aukerak aztertzea eta ematea, izan ere baserrien eraikinak ez dira bateragarriak gaur egun produkzioarako dauden tresnekin eta hauek bertan gordetzeko edo hauekin lanean aritzeko behar diren espazioak bestelakoak dira.
- Lurrak ondo identifikatzea eta hauek babestea positibotzat hartzen da, eta hori hala azaltzen da plano guztietan. Lurren identifikazio hori lagungarria da belaunaldi gazteenek nekazaritzara hurbiltzeko.
- Gune libre gisa hartutako eremua baratza komunitarioak sortzeko erabili daiteke edota belaunaldi gazteenei nekazaritzaren inguruko ikasketak jasotzeko eremu gisa planteatu daiteke.
- 2. Hautabidean ekipamendu komunitario gisa.

ZAILTASUNAK/BESTELAKO EZTABAIDAK:

- Lurren gestiorako eredu malguago bat bilatu behar da, lur horiei erabilpen erreal bat emateko.
- Lurrak espekulatzeko ezin direla erabili azaleratu da.
- Ez dira lur berriak behar industrialdeak edo etxebizitza berriak sortzeko, horretarako jada badaude lurrak.
- Gune morea ez da guztiz egokia, herriko landa eremu batzuk ez direlako erabilgarriak nekazaritzarako eguzki/itzal kontuengatik besteak beste.
- Eguzki panelak jartzeko aukera ematen al du HAPO batek? (Zalantza gisa)

ZERBITZUAK:

- Ekipamendu komunitarioa hautabidean agertzen den tokian jarri beharrean, herriko erdigunera eramatea komenigarriagoa da. Honen adibide gisa jarri da herriko plazako Bikario etxea. Espazio hau herritarrentzat gaitu daiteke eta ekipamendu komunitario gisa erabili.
- Elizak ekipamendu publiko bilakatzeko eskaera egin, errekalifikazioak ekiditeko eta herritar guztien zerbitzurako egongo diren espazioak sortzeko, adibide zerbitzu berriak.

BESTELAKO GAIAK:

- Lurzoru berdeak erdigunean:
 - Uarkain erabilera publikoko zona bezala utzi
- Baserria:
 - Bizimodu aldaketa nabaria, baserria bera ez da interesgarri suertatzen etxebizitza gisa. Bai, aldiz, inguruko landa eremua, ikuspegi produktibo batetik.
 - Baserriak banatu daitezke etxebizitzak sortzeko eta, horren bidez, komunitateari bestelako onura bat sortu diezaiokete baserriek.
 - Eskarian bidea erraztu beharra dago baserriak biziberritzeko.

Elizak eraikin asko ditu Ataunen. Udalak akordio batetara heldu Elizarekin hauen erabilpena mugatu eta herriaren interes eta beharrei lotzeko

ITXIERA

Plenarioan burutu den eztabaidaren ostean, Aztikerrek eskerrak eman dizkie saiora bertaratutako partaideei eta gogorarazi die inkesta bat dagoela nahi dituzten ekarpen berriak egin ahal izateko.

Ataunen, 2024ko irailaren 24an.



ATAUN EGIN
ELKARREKIN
HERRI-PLANA

ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA



MUGIKORTASUNA
(Auzoak eta bizitza
lotzea)



**ONDARE
NATURALA**
(Indargunea)



MEMORIA
ATAUN, 2024/10/01

Bertaratutakoak

Herritarrak	Sei lagun: emakumezko 1 eta 5 gizonezko
Lantalde teknikoa	Inesa Ariztimuño

SARRERA ETA KOKAPENA

Saioari hasiera emateko, Aztikerrek ongi etorria eman die saiora bertaratutako Saioari hasiera emateko, Aztikerreko teknikariak ongi etorria eman die saiora bertaratutako lagunei. Honekin batera, orain arte egindako azken pausuen errepaso labur bat egin du. Zein fasetan gauden kokatu eta Astazaldik pasa den urtean osatutako diagnostiko partekatuaren gainean 3 hautabide proposamen garatu dituela adierazi du, eta aipatu du gaurko saioaren helburuetako bat 3 hautabide horiek aztertzea eta horien gaineko ekarpenak egitea izango dela.

Horren ondoren, adierazi du saioan zehar landuko den gaia ingurumena eta mugikortasuna izango direla..

Amaitzeko gogoratu du, HAPOak planoetan azaltzen diren proposamenak garatzeko aukera ematen duela, baina planoetan agertzeak berak ez duela esan nahi lan horiek burutuko direnik, etorkizunean lan horiek egiteko aukera sortzen duela baizik.

PLENARIOA: PARTAIDEEN EKARPENAK ETA IRITZIAK

GUNE BERDEAK

San Martinen aurreikusten den gune berdea eskolara lotzea proposatzen da. Bertan, aukera desberdinak landu daitezkeela aipatzen da:

- Baratza
- Zuhaitzak

Taldeak orokorrean zalantzak plazaratzen ditu aurkezpenetan iradoki zen Goierriko emakume futbol taldeentzako zelaiauen aukeraren aurrean. Futbol zelai ugari badiela inguruan, eta finean trafikoa ekarriko lukeela eta zelaia egoera egokian mantentzeko ezin izango zuela edonork erabili. Aldiz, eskolaren inguruan berdegune beharra dagoela aipatu da.

JARDUERA EKONOMIKORAKO GUNEAK

Hiru hautabideetan jarduera ekonomikoetarako Arinen jasotzen den eremua lekuz aldatzea proposatzen da. Hautabideetan Arinen proposatzen den lekua ez da egokia ikusten, etxebizitzetatik oso gertu dagoelako eta honek zarata eta bestelako deserosotasunak sor ditzakeelako bertako biztanleentzat.

ETXEBIZITZAK

Etxebizitzetarako jaso diren eremuen inguruan ekarpen desberdinak egin dira.

Astigarragan proposatzen diren bizitegi erabilerarako lurak eremu handiegia hartzen dutela baloratzen da, eta jada eraikita dauden etxeetatik gertuegi. Proposatzen da egun eraikita dauden etxebizitzaren artean dauden hutsuneak betetzen joatea, horren eremu handia hartu beharrean.

Alde batetik, eredu askotarikoak jasotzea proposatu da: blokeak, adosatuak... Arriskua ikusten da bakarrik esate baterako, adosatu edo txalet txikien ereduak, Olabarriako adibidea jarri da desiragarria ez den eredu gisa.

Hilerriko zonaldean oraindik banakako etxe gehiago eraikitzeak aukera baloratu da, eta HAPOan jasotzea proposatu da.

Herrian badira etxe oso handiak (Paskinene jarri da adibide). Etxe hauek zatitu eta berritzeko aukera aztertzea proposatzen da, modu honetara etxe bakar batetik lau edo bost etxebizitza ateratzeko aukera legoke. Gainera horrelako etxe handiak berritzeko beharra gero eta handiagoa omen da, eta ez bada horrelako interbentziorik aurreikusten denborarekin eraikinekin berak arazoak izan ditzakete.

Etxe handiekin bezala, baserri handiak etxebizitzetan zatitzeko aukera jasotzea proposatu da.

Etxebizitzari dagokionez udaletik lanketa bat abiatzea proposatzen da herritarrei aholkularitza eskaini eta erraztasunak emateko honako edukien inguruan: etxe hutsen egoera, etxe handiak eta baserriak zatitzeko, kooperatibak sortzeko...

MUGIKORTASUNA

Mugikortasuna hobetzeko eta jasangarriagoa izateko herria bidegorri baten bidez konektatzearen proposamena oso ongi baloratzen da, oso luzera joango den proiektu bezala ikusten bada ere; izan ere Lazkaorekin lotzeko proiektuak duen atzerapena eta beharra erakusten duen moduan.

Edonola, eta ulertuta bidegorriaren proiektuak aparteko lanketa bat beharko duela garatzeko, Astigarraga eta Arrondoko trazatua marraztuta dagoen bezala ez da oso argi ikusten, etxeen artean geldituko litzatekeelako eta honek segurtasun edo bestelako arazoak sor ditzakeelako. Zentzu honetan, aukeran errepideari lotuagoa hobeto ikusten da.

ITXIERA

Eztabaidaren ostean, Aztikerrek eskerrak eman dizkie saiora bertaratutako partaideei eta gogorarazi die inkesta bat dagoela nahi dituzten ekarpen berriak egin ahal izateko.

Ataunen, 2024ko urriaren 1ean.



ATAUN EGIN

ELKARREKIN

HERRI-PLANA

ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA

AURRERAPEN ZIRRIBORROA

EKARPENAK KALEAN JASOTZEN. MEMORIA

SAN MARTINGO PLAZA. ATAUN. 2024/10/15

ARRATSALDEKO 17:00TATIK 19:00AK ARTE

Bertaratutakoak

Herritarrak	Hamabost lagun: 8 emakume eta 7 gizon
Lantalde teknikoa	Susana Martinez eta Inesa Ariztimuño (Aztiker)



DESKRIBAPENA

San Martingo plazako eliza arkupeetan aurrerapenaren hautabideen planoak kokatu dira paretean. Mahai handi bat eta aulki batzuren bueltan etorritako herritarrekin zalantzak argitu eta hauek ekarritako kezkak eta ekarpenak jaso dira.

Bertaratuen arteko solasaldirako aukera eman du saioak; baita ere momentu desberdinetan gerturatutako banakakoen zalantzak argitu eta ekarpenak jasotzeko.

GERTURATUTAKOEN EKARPENAK ETA BALORAZIOAK

Jarraian gaika antolatuta jasotzen dira herritarrek egindako hausnarketa eta ekarpenak.

BALIO AGROLOGIKO ALTUKO LURREN IZENDATZEA

Oso positibotzat baloratzen da erreka bazterreko lurra horiek denak babestea. Horrek ez du bermatzen lurra horiek denak lehen sektorerako erabiliko direnik baina herriaren nahia eta norabidea jasotzen dute etorkizunari begira.

AIAKO AUZOA

Aiako auzotarrak urriaren 12ko aurkezpenaren ondoren bildu ziren hautabideak eta auzoaren aukerak aztertzeko. Auzoaren erronkak handiak dira eta ari dira proposamen eta eskaera desberdinak lantzen udalarekin elkarrizketa bati heltzeko asmoz.

HAPOaren aurrerapenean aurkeztutako hautabideei dagokienez bi eskaera luzatu dituzte:

- Behin betiko proposamenean 1. hautabideko proposamena jaso dadila, zeinean jarduera ekonomikorako eta etxebizitza berrietarako eremuak aurreikusten diren.
- Fosa beltza. San Gregorioko ur beltzekin lotzen joatea, erreka zikindu beharrean.

MUGIKORTASUNA/BIDE GORRIA

Herria bidegorri baten bidez lotzea oso positibo baloratzen bada ere, eszeptizismoa nagusitzen da horrelako erronka batek burutu ahal izateko egongo diren aukera eta epeez.

San Martinetik Astigarragarako tartean (gutxienez eskolarako tartean) atzean baino karreterari lotuta egitea proposatzen da. Aukera gisa karreterari errail bat kentzea aipatzen da, eta kotxeetarako bidea txandakakoa izatea; honek kotxeak abiadura txikiagoan joatera behartuko lituzke gainera.

- Errepide nagusia erdigunetik txandakakoa izatea.
- Bidegorria atzetik baino, errepide ondoan.
- Arinetik behera bide gorria errepidearen eskuin aldean eraikitzea errazagoa dirudi.

Bidegorria eraikitzeko, guztia batera ezingo denez egin, lehentasunak markatzea proposatzen da:

- Otasoro-Arrondo zatiarekin hasi
- Edo bestela, hasi goitik behera, faseka San Gregoriotik San Martinera.

ETXEBIZITZAK

Etxebizitzen gaiak kezka handia sortzen du. Aspaldian etxerik ez da eraiki Ataunen eta honek belaunaldi oso bat etxe bila herritik kanpo ibili behar izatea ekarri du.

Etxe berriak eraiki beharra baloratzen da, baina udalari bestelako ekimenak ere abiatu ditzala eskatzen zaio:

- Baserriak etxebizitza txikiagotan zatitu
- Herriko etxe handiak etxebizitza txikiagotan zatitu
- Etxe hutsak merkaturatzeko lanketa bereziak egin
 - Etxe hutsen zentsoa eta egoeraren analisia
 - Etxe jabeekin kanpainak alokairuan jartzeko
 - Etxe horiek birgaitu behar badira, erraztasunak
- Gazteei inkesta bat egin: zenbatek behar duten etxea eta zein ezaugarriekin
- Udalean aholkularitza eta laguntza bulegoa sortu gai honen inguruan: jabeek aholkularitza alokairurako; kooperatibak sortzeko babesak eta aholkularitza; aztertu zertan lagundu dezakeen udalak

HAPOan eraikitzeko jasotzen diren eremuak eredu askotarikoak izatea proposatzen da:

- Tamaina desberdinetako etxeak
- Espazio berean modu desberdinetako etxebizitzak eraikitzea. Hau da, eremu espezializatuak ez sortzea.
- Astigarragako inguruan marraztu den etxebizitzetarako bigarren lerro hori baino, etxeen artean existitzen diren hutsuneak baliatzea proposatzen da: Rafalena eta Lazkantiberri-ren artekoa (garai batean Iturralde etxea zena. Bota egin zuten); Bordatxo eta Bonne tartean; eta Ambone eta Lazkauti-zahar arteko hutsuneak, adibidez.

JARDUERA EKONOMIKORAKO ESPAZIOAK

Arinen jarduera ekonomikoetarako hautabideetan jaso den proposamena ez da partekatzen. Etxebizitzetatik gertuegi dagoela baloratu eta honek bertako bizilagunentzat deserosotasuna sortuko duela uste dut. Bertako errepideko trafikoa areagotuko lukeela eta segurtasun arazoak sor ditzakeela baloratzen da.

Inguru berean baina etxeetatik distantzia handiago batetara kokatuz gero nola baloratuko litzateke galdetuta, ez da lehen aukera bezala baloratzen baina etxebizitzetatik distantzia nahikoa jarritz gero aukera izan daiteke..

Edonola jarduera ekonomikoetarako espazioren bat aurreikustea positibo baloratzen da eta beste leku bat proposatu dadila eskatu.

GUNE LIBREAK

San Martin inguruan aurreikusi den gune librearen inguruan hitzartzeak izan dira baita ere. Aurkezpen saioetan aipatu zen emakumezkoentzako futbol zelaiaeren aukerari, begi onez ikusten bada ere, baldintzak jartzen zaizkio: erabilpena herritarren esku ere egon dadila (kezka sortzen du mantenuagatik belardia beste inork ezin erabiltzea edo bestelako erabilerarik ezin ematea).

Erabilera mistoa izan dadila, herritarrek erabili ahal izatea eta eskolarekin nolabait lotzea, eskolak ere irabazi dezan espazio berde bat; eta baita ere polikiroldegiarekin lotzea kanpoan ariketa egiteko aukera txertatuz.

Bestalde, herritar batek Botika etxe ondoko belardia gune berde bezala uztea proposatu du.

EKIPAMENDU KOMUNITARIOAK

Adinekoentzat ekipamenduren batean pentsatzea inportantea dela azpimarratu da. Ekipamendu hori San Martineko erdigunean kokatzea: Errota-etxea proposatzen da.

EKIPAMENDUAK

Ekipamenduak indartzea eskatzen da. Nagusiki, bi norabideetan:

- Adinekoen zaintzara bideratutako ekipamendu eta espazioak
- Nerabeei zuzendutakoak, herrian gelditzeko aukera izan dezaten, bestela ondoko herrietara joaten dira eta.
 - Padel guneak edo. Jada frontoian ez omen dago guztientzat lekurik
 - Ura/pistina...
 - Erreka guneak prestatu: haurrentzat, nerabeentzat eta baita ere adinekoentzat, guztientzat irisgarriak izan daitezkeen lekuak prestatu erreka inguruan, freskatu eta jolasteko.

BESTELAKO EKARPENAK

Antzoki ondoko futbol zelaia: sarea jarri (baloiak erreka ez joateko)

ITXIERA

Amaitzeko fase honetako azken aurrez-aurreko saioa izan dela aipatu, eztabaidarako eta iritzi bilketarako sortu diren bideak gogorarazi dira eta ekarpenak eta galdetegiak erantzuteko epea urriaren 26an bukatuko dela azpimarratu da, orain arte iritzia eman edo galdetegia bete nahian dabilena lehen bai lehen egin dezan. Informazio eta dokumentazio guztia webgunean eskura dagoela aipatu da.

Azkenik, eskerrak eman eta bukatutzat eman da kalean ekarpenak biltzeko saioa.

Ataunen, 2024ko urriaren 15ean.

AURRERAPEN ZIRRIBORROAREN GALDETEGIA

EMAITZEN USTIAKETA

AURKIBIDEA

SARRERA	3
METODOLOGIA OHARRAK	4
EMAITZAK	4
INKESTATUEN DATUAK	4
HAUTABIDEEN BALORAZIOA	6
1. LEHEN HAUTABIDEA	7
2. BIGARREN HAUTABIDEA	10
3. HIRUGARREN HAUTABIDEA	11
AZKEN GOGOETAK	12
ONDORIO NAGUSIAK	13

SARRERA

Ataungo HAPOaren AURRERAPEN ZIRRIBORROaren inguruan balorazioak eta eztabaida sustatzeko asmoarekin galdetegi bat sortu da aurkeztu diren hautabideak baloratu eta hauen inguruko ekarpenak egiteko galdera irekiekin.

Galdetegia HAPOaren aurrerapen fasean herritarren parte hartzea eta elkarriketa errazteko tresna bat gehiago izan da. Aurrerapen zirrriborroan proposatutako hiru hautabideen inguruko iritziak jasotzeko beste bitarteko bat izan da. Zentzu honetan, balorazioak eta ekarpenak egiten laguntzeko tresna gisa irudikatu da, eztabaida zentratzeko hainbat galdera gako eskainiz.

Galdetegia erantzuteko aukera irailaren 10etik urriaren 26a bitartean egon da luzatu da.

Urrian Ataungo postontzi guztietara bidalitako euskarriaren baitan eman da ezagutzera galdetegia. Euskarri horretan QR baten bidez galdetegira sarbidea jaso da. Paperean erantzuteko aukera ere eman da; horretarako postontziak jarritako lekuetan paperezko aleak utzi dira.

Azkenik, udaletxeak herriko WhatsApp-eko kontutik zabaldu du galdetegia online erantzuteko lotura baita ere.

Guztira 47 galdetegi erantzun dira; guztiak online, paperezko galdetegirik beteta ez da jaso eta.

METODOLOGIA OHARRAK

Sarreran aipatu bezala, galdetegi hau elkarrizketa sustatzeko tresna gisa irudikatu da batik bat. Hortaz, bertan jaso diren emaitzak ez dira ordezkagarriak, izan ere, hori ez da izan galdetegiaren helburua eta ez da horretarako ere diseinatu. 18 urtetik gorako herritar guztiak zeuden gonbidatuta galdetegia betetzera eta, hortaz, ez da herritarren lagin ordezkagarri bat bilatu.

Erantzun duten guztiak ez dira galdetegiaren amaiera arte iritsi: lehenengo hautabidea eta azkenengoaren balorazioen artean 10 bat lagun galdu dira.


EMAITZAK

INKESTATUEN DATUAK


47 lagunek erantzun dute galdetegia.

Erantzun duten gehienak emakumezkoak izan dira (%51). %83a 30 eta 64 adin tartean kokatzen dira, 30-44 urte eta 45-64 urte taldeetan ia erdibana banatuta.

Adina	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
30 urtez azpikoak	4	8,5
30-44 urte	20	42,6
45-64 urte	19	40,4
65 ++	4	8,5
Guztira	47	100,0




Generoa	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Emakumezkoa	24	51,1
Gizonezkoa	19	40,4
Ez dut erantzun nahi	4	8,5
Guztira	47	100,0



HAUTABIDEEN BALORAZIOA

Hautabide bakoitzari emandako puntuazioa

	Auzo eta pertsonen arteko lotura eta kohesioa errazten du?	Herriko gazteek bertan bizitokia izan eta ataundarrek bizi osorako proiektua egiteko aukera ematen du?	Ondare naturala aitortuz Ataun ekonomikoki garatzeko aukera jasotzen du?	Erantzun kopurua
1. hautabidea	7,1	7,4	7,4	35 inguru
2. hautabidea	4,0	4,8	4,8	25 inguru
3. hautabidea	8,0	8,1	8,1	25 inguru



1. LEHEN HAUTABIDEA

Auzo eta pertsonen arteko lotura eta kohesioa errazten du		
Zertan bai?	Zertan ez?	Zer gehitu edo moldatuko zenuke?
3. hautabidearen ondoren, hautabide orekatuena, jasangarriena eta Ataungo natura gehien errepresentatzen duena dela iruditzen zait	Astigarraga auzoan eraikiko dituen etxeak dentsitate baxukoak izatea. Blokeak ez. Auzoaren izaera bermatu.	Astigarraga auzoari forma ematen dio. Gazteentzako eta haurrak dituzten familientzako primerako auzoa izan daiteke bizitzeko. Ataun bezalako herri batean eraikitzen diren etxebizitzak belardi txiki batekin eta etxe familiar edo bifamiliarrak izan behar dira. Pisuz beteriko blokeak ez. Hori soberan dago Lazkaon eta inguruko herrietan. Herriko eta inguruko jendeak etxetxo lasaiez osaturiko guneak nahi ditu Ataun bezalako herri batean.
Arazo demografikoari irtenbidea eman behar zaio. Gazteak herritik alde egingo dute. Zenbaitek itzuli nahi eta ez dago etxebizitza berririk eta alokairurik ere ez. Etxe berriak eraikitzea komeni da lehenbailehen. Eskola ingurua gune aproposa da horretarako eta azkar eman behar zaio forma.	Auzoetan dauden arazo egoerei auzoan bertan eman behar zaie erantzuna.	Bide gorri bat eskola ingurutik San Gregoriora.
Ataunen bizi nahi dut eta etxe berriak eraikitzea.	Etxe motak Astigarragako auzoan, bizitza gehiegikoak agian (masifikatuegia)	Bide gorri bat San Martin San Gregorio lotzen dituen.
Auzoz auzoko bileretan aurrez aurre elkarteak lagundu egin du.	Gauza asko falta dira	Dentsitate baxuko etxeak Arrondo auzoan eta Astigarraga auzoan. Blokeak ez.
Eskola eta arrondo arteko eremua (Astigarraga)	Hiru herri bezala funtzionatzea	Etxebizitza askoz gehiago, gaztek badoaz kanpora bizitzea, ya de ya behar die!
Etxebizitza berriak eraikitzeko leku proposak. Pisu blokeak beharrean bifamiliarrak, adosatuak!	Orokorrean ez diot ezezkorik ikusten	Ez dakit, gaur egun ez da erraza jendeak horrelako prozesuetan parte hartzea.
Etxebizitzan beharra, herria urbanizatu eta txukundu	Parte-hartzea txikia izan da eta, gainera, bileretara joandako batzuek saio osoan presentzia handiegia hartu dute.	Kotxe bidea oso gaizki dago
Gehienbat Astigarraga auzoa iruditu zait interesgarria. Atauna bizitzera joateko asmoa daukat. Etxebizitzak eraiki behar dira. Auzo polit bat diseinatu. Inguruko herrietan pisuak daude, Ataunek beste zerbait eskaini behar du. Herri handietan ezin den hori. Bifamiliarrak, horretarako leku ezin hobea da Astigarraga auzoa. Eskolatik gertu. Kalitatezko lekua.		Orokorrean, dagoen moduan ongi ikusten dut
Nolabaiteko aurrera pauso bat		San Martingo plaza eguneratu, itzalak, babes lekuak. Erreka txukundu, selba bat ematen do

<i>Herriko gazteek bertan bizitokia izan eta ataundarrek bizi osorako proiektua egiteko aukera ematen du</i>		
Zertan bai?	Zertan ez?	Zer gehitu edo moldatuko zenuke?
Astigarraga auzoko proiektua egokia ikusten dut	Etxe motak Astigarragako auzoan, bizitza gehiegikoak agian (masifikatuegia)	Aldatuko nuke, erreka inguruko oinezko bideak berdinak izatea, barandilla bat gorria, bestea grisa eta bestea metala. Autokarabanak bere lekua izatea eta kotxeentzako aparkaleku garbiak, batzuk beti dute aparkaleku fijoak, autokarabana kendu eta kotxea jarri lekua gordetzeko
Dudarik gabe. Baina presazkoa da. Niri pena ematen dit herriko jende gaztea Lazkao eta inguruko herrietan etxe berriak begiratzen ari direla jakiteak. Kezka handia sortzen dit.	Ez dakit. Askotan iruditzen zait lehen sektoreari bultzada emateko ahalegin handia egiten dugula, baina guztiok teknikari eta funtzionario izan nahi dugu.	Eskolako parkea berritu. Igerileku bat egin. Haurrak Lazkao, Etxarri... bezalako herrietara alde egin behar izaten dute udaran herrian ez dagoelako igerilekurik. Horrek banaketa sortzen du haurren artean.
Eskeletoak ez du aurrera jarraitu. Ez da etxeak egiteko leku ona. Hautabide honetan ikusten diren etxebizitzak eraikitzeke lekuek beste maila bat dute.	Herriaren nortasuna galdu da, zergatik San Martin guztia orain Elbarrena da, Suki aldea ere bai?? Non dira etxeen betiko izenak	Etxebizitza askoz gehiago, gaztek badoaz kanpoa bizitzea, ya de ya behar die! Ta piszina bat udan ume guztik kanpoa ez Jun beharrik izateko!
Eskola inguruan, leku lasaia bizitzeko, laua, naturarekin kontaktuan! auzo masifikaturik ez.	Orokorrean ez diot ezezkorik ikusten	Ezer ez, uste dut jasotako ekarpen guztiak aintzat hartuta egindako proposamena dela.
Etxebizitza hazkundera egokia izateaz gain, 3. hautabidearen ondoren, hautabide orekatuena, jasangarriena eta Ataungo natura gehien errepasatzen duena dela iruditzen zait	Zenbait aukera falta dira	Haurrentzako parke estaliren bat eta udarako alternatiba (igerilekua, San Martinen errekan bainua hartzeko lekuren bat prestatu bestela).
Ez da erraza, alternatiba hauek ulertzeko, marrazkiak ez dira ulertzeko errazak		Kasu konkretu bakoitza aztertu beharko litzake
Herriko gazteek ez dute aukera inik bertan bizitzen gelditzeko.		Orokorrean, dagoen moduan ongi ikusten dut
Lehenbailehen eraiki. Ez dago aukerarik.		
Pentsatu nahi dut hori dela ardatza, gazteak herrian bizitzen geratzeko etxebizitza duinak eraikitzea eta aukerak ematea.		
Zenbait aukera daude		

Ondare naturala aitortuz Ataun ekonomikoki garatzeko aukera jasotzen du		
Zertan bai?	Zertan ez?	Zer gehitu edo moldatuko zenuke?
Ezertan ez	Etxe motak Astigarragako auzoan, bizitza gehiegikoak agian (masifikatuegia)	1.hautabidea gustuko dut.
Indar handia jartzen da Ataungo ondareari orain baino etekin handiagoa ateratzeko asmoan.	Ez zait erraza egiten proposamen batzuk nola gauzatuko diren irudikatzea.	Dena aldatuko nuke
Ondare naturala modu egokian aitortzean, bertako eta kanpoko jendeak modu ezin hobean disfrutatuko du Ataun	Ia lehen bezala gelditzen da	Eskola inguruan parkea berritu, estalia izan dadila. Eguraldi txarrarekin ezin da ezer egin hurrekin. Eta udaran, berriz, igerileku eta ur txorroten parkea beharrezkoa da. Pump track bat eraiki bitorrrene alboko berdegunean.
	Orokorrean ez diot ezezkorik ikusten	Ez dakit
		Orokorrean, dagoen moduan ongi ikusten dut

2. BIGARREN HAUTABIDEA

Auzo eta pertsonen arteko lotura eta kohesioa errazten du		
Zertan bai?	Zertan ez?	Zer gehitu edo moldatuko zenuke?
Behar beharreko bide gorria	Bide gorriaren kokaketak	Batik bat, ekipamendu komunitarioen kokapen proposamena aldatuko nuke, 1. eta 3. hautabideen moduan balio agrologiko erabilera emanez
Bone ondoko zelai/soraa berde gune izateari ez diot zentzurik topatzen. Etxea egiteko primerako zelaia da. Gainera, lotu egiten ditu bi auzoak.	Bonesoro berdegune izateak ez du zentzurik. Etxetxo bat eraikitzeko moduan jartzea.	Etxebizitza askoz gehiago, gaztek badoaz kanpoa biziitza, ya de ya behar die! Ta piszina bat udan ume guztik kanpoa ez Jun beharrik izateko!
Etxe solteak, baxuak (gehienez bi solairu), bifamiliarrak Astigarra auzoan.	Orokorrean, hautabide desegokiena iruditzen zait, batik bat ekipamendu komunitarioen kokapena guztiz desegokia ikusten dut, bai bizilagunen erosotasun eta naturarekiko errespetu aldetik	Ez dakit garbi
Ez zait hautabide egokiena iruditzen, beraz ez diot baikorik aurkitzen		

Herriko gazteek bertan bizitokia izan eta ataundarrekin bizi osorako proiektua egiteko aukera ematen du		
Zertan bai?	Zertan ez?	Zer gehitu edo moldatuko zenuke?
Etxebizitza gehiago, bide gorria...	Ez dakit	Batik bat, ekipamendu komunitarioen kokapen proposamena aldatuko nuke, 1. eta 3. hautabideen moduan balio agrologiko erabilera emanez
Orokorrean ez diot baikorik ikusten	Orokorrean, hautabide desegokiena iruditzen zait, batik bat ekipamendu komunitarioen kokapena guztiz desegokia ikusten dut, bai bizilagunen erosotasun eta naturarekiko errespetu aldetik	Ez dakit zergatik ez ditut ondo ulertzen grafikoak
		Igerilekua eta jolas parke estalia egingo nituzke gune libre handian.

Ondare naturala aitortuz Ataun ekonomikoki garatzeko aukera jasotzen du		
Zertan bai?	Zertan ez?	Zer gehitu edo moldatuko zenuke?
...	...	Batik bat, ekipamendu komunitarioen kokapen proposamena aldatuko nuke, 1. eta 3. hautabideen moduan balio agrologiko erabilera emanez
Orokorrean ez diot baikorik ikusten	Orokorrean, hautabide desegokiena iruditzen zait, batik bat ekipamendu komunitarioen kokapena guztiz desegokia ikusten dut, bai bizilagunen erosotasun eta naturarekiko errespetu aldetik	Etxebizitza askoz gehiago, gaztek badoaz kanpoa biziitza, ya de ya behar die! Ta piszina bat udan ume guztik kanpoa ez Jun beharrik izateko!

3. HIRUGARREN HAUTABIDEA

Auzo eta pertsonen arteko lotura eta kohesioa errazten du		
Zertan bai?	Zertan ez?	Zer gehitu edo moldatuko zenuke?
Astigarraga eta Arrondo auzoa lotuta gelditzen dira.	Orokorrean ez diot ezezkorik ikusten	Etxebizitza askoz gehiago, gaztek badoaz kanpoa bizi, ya de ya behar die! Ta pizsina bat udan ume guztik kanpoa ez Jun beharrik izateko!
Eskola ingurutik Arrondo auzo arteko jarraipena. Banaketa dago orain eta ez du zentzurik. Gune horretan zerbait egin behar da berehala.		Orokorrean, dagoen moduan ongi ikusten dut
Orokorrean gehien gustatu zaidan aukera hau da.		
Orokorrean, hautabide orekatuena, jasangarriena eta Ataungo natura gehien errepresentatzen duena dela iruditzen zait		

Herriko gazteek bertan bizitokia izan eta ataundarrekin bizi osorako proiektua egiteko aukera ematen du		
Zertan bai?	Zertan ez?	Zer gehitu edo moldatuko zenuke?
Etxebizitza hazkunde handiena proposatzeaz gain, orokorrean, hautabide orekatuena, jasangarriena eta Ataungo natura gehien errepresentatzen duena dela iruditzen zait	Orokorrean ez diot ezezkorik ikusten	Astigarraga auzoari forma ematea egokia iruditzen zait. Hori dela eta 1.hautabidea eta 3.hautabidea iruditzen zaizkit egokienak. Bien arteko nahasketa bat egingo nuke etxebizitzei dagokionez. Ikusi zer nahi duten etxebizitza erosiko dietenak eta estilo/tamaina ezberdinetako etxeak egin (etxe bifamiliar batzuk, unifamiliarren bat, tamaina ezberdineko pisuz osaturiko bloke baxuak). Denetarik pixka bat, behararren arabera. Eta espazio guztia hartuz, ez denak pilatuta.
		Etxebizitza askoz gehiago, gaztek badoaz kanpoa bizi, ya de ya behar die! Ta pizsina bat udan ume guztik kanpoa ez Jun beharrik izateko!
		Orokorrean, dagoen moduan ongi ikusten dut

Ondare naturala aitortuz Ataun ekonomikoki garatzeko aukera jasotzen du		
Zertan bai?	Zertan ez?	Zer gehitu edo moldatuko zenuke?
Ondare naturala modu egokian aitortzean, bertako eta kanpoko jendeak modu ezin hobean disfrutatuko du Ataun	Orokorrean ez diot ezezkorik ikusten	Etxebizitza askoz gehiago, gaztek badoaz kanpoa bizi, ya de ya behar die! Ta pizsina bat udan ume guztik kanpoa ez Jun beharrik izateko!
		Orokorrean, dagoen moduan ongi ikusten dut

AZKEN GOGOETAK

Orokorrean, beste gogoetarik edo oharrik egin nahi baldin baduzu, orain daukazu aukera:

	Maiztasuna
Astigarraga auzoan etxebizitzak eraikitzea. Bidegorria eta etxeetarako bidea gaur egun dauden etxeen atzealdean egitea. Astigarraga auzoko zenbait horren aurka dauden arren, beraien argudiaketarekin ez nator bat. Errekaz bestalde etxeak egitea ez da egokia eta Kaxio bidea asfaltatzea are gutxiago. Kaxio bidea dagoen bezala mantendu behar da. Astigarraga auzoan Bonesoro bezalako soroak eraikigarri jartzea, oso leku ona da bizitzeko eta auzoak lotzeko ezinbestekoa.	1
Bidegorria egitea ezinbestekoa da. San Gregorio eta San Martin lotu. Horretaz aparte, Astigarraga auzoari forma eman eta etxebizitzak egin.	1
Etxebizitza askoz gehio, gaztek badijotze kanpoa bizitzea, ya de ya behar die! Ta pistina bat udan ume guztik kanpoa ez Jun beharrik izateko! Gaztek gure herrin gelditzea behar deu, horrek sortzen do bizie ta ambientea, baino gazte hoik nun bizitzeko etxek ez badittue kanpoa dijotze, pixuk ta etxek behar die (berrik, etxen zarrak obratzeko lan gogo gutxi dau), erreztu mesedez egon daitezken traba ta burokrazik etxebizitza berrik sortzeko!	1
Ez dut ulertzen zergatik eskatzen duten erantzunak arrazoitzeko.	1
Gabillene ondoko (eskola pareko) aparkalekuak beste era batera jartzea. Ez dago batere ondo sartu eta irteteko eta gainera auto asko pilatzen dira ordu puntetan. Eskolako parkea berritu eta parkea estalia izan dadila. Igerilekua edo ur txorrotekin parke bat.	1
Gogoeta: Ataunen dentsitate baxuko etxeak eraiki behar dira. Behararren arabera poliki-poliki. Jendeak argi dago ez duela bloke handietan bizi nahi Ataun bezalako herri txiki batean. Blokeetan bizitzea gustatuz gero Lazkao/Beasain/Ordizia bezalako herriak eskura daude. Ataunen bertako jendeak dentsitate baxuko etxeak nahi ditu (Arrondo eta Astigarraga bezalako auzoetan) eta ez San Martingi eskeletoa bezalako proiektuak. Horretaz aparte, bidegorria ezinbestekoa da. Bestalde, Altzanipeko bidea zabaldu eta trafiko guztia hortik bideratzea. Eta erdigunea peatonala izatea ezinbestekoa da.	1
Herria bizirik egoteko, bertan gelditzeko aukerak behar die, ez orain bezala, udan herri fantasma bat ematen do, piszinata kanpoa, tabernak itxita, herrin erdie Lazkaon, paseatzen, zerbait hartzen, irari eta abar haundi bat..	1
Igerilekua. Bizikleta eta patineteekin ibiltzeko pista. Parke estalia. Hiru hauek eskolako berdegunean edo Bitor Jatetxe ondoko zelaian.	1
Laburbilduz, bizilagunen beharrak, jasangarritasuna eta naturarekiko errespetua gehien bermatzen duen hautabidea 3. dela iruditzen zait, 1. ere egokia ikusten dut, 2. ordea guztiz desegokia	1
San Martin herrigunean autoak ez ibiltzea asteburuetan. Izugarrizko arriskua dago Troska inguru horretan haurrekin. Jendea oso azkar pasatzen da.	1
San Martingo Plazan estalpe bat egin eguraldi on zein txarretarako.	1
Gutira	11

ONDORIO NAGUSIAK

Hiru hautabideetatik balorazio altuenak jasotzen dituen 3. hautabidea da: 8a gainditzen du honako hiru galderetan: *Auzo eta pertsonen arteko lotura eta kohesioa errazten du; herriko gazteek bertan bizitokia izan eta ataundarrek bizi osorako proiektua egiteko aukera ematen du; eta ondare naturala aitortuz Ataun ekonomikoki garatzeko aukera jasotzen du*. Aldiz, bigarren hautabidea ez da 5era iristen balorazioetan.

Laburbilduz,

- Hiru hautabideen balorazioetan azpimarratzen da etxebizitza berrien premia indar handiarekin. Kezka handia sortzen du gazteek herrian etxebizitzarik ez topatzeak. Etxebizitza berrien aukerari dagokionez, dentsitate baxuko etxeak izatea eskatzen da bereziki. Askotariko etxebizitzak eraikitzea, eta blokeen kasuan baxuak izatea aldarrikatzen da. Astigarraga auzoaren potentzialitatea azpimarratu da, eskolaren inguruari garrantzia eman zaio. Baina aldi berean kezka sortzen du Astigarraga *masifikatzeko* arriskuak. Eraikitzearen premia handia bada ere, guztia batera eraiki beharrean faseka egin dadila proposatzen da.
- 2. Hautabidean ekipamendu komunitarioen kokapenak sortzen ditu zailantza handienak eta ez da erdigunetik horren isolatuta aukera egokitatzat jotzen; eta Ajarrestakoa balio agrologiko altuko lur izendatzea proposatzen da.
- Bidegorriaren proposamena ongi baloratzen da, zenbait lekuetan trazatu alternatiboa proposatzen baldin bada ere.
- Proposamenekin Astigarraga eta Arrondo lotzen direla baloratzen da.
- Trafiko aldetik ere erdigunean trafiko asteburuetan etetea (edo peatonalizatzea) eta aparkalekuak eskolaren inguruan berrantolatzearen proposamenak ere jaso dira.
- Herria biziagoa izan dadin zenbait proposamen jaso dira: parke estaliak eta udarako txorrotadak edo igerilekuaren proposamena.

3. JENDAURREKO EPEAN JASOTAKO EKARPEN ETA IRADOKIZUN IDATZIEN TXOSTENA

3.1 PARTAIDETZA PROZESUAN JASOTAKO EKARPENEN BALORAZIO OROKORRA

Jasotako ekarpenetatik ondorioztatu daitekeenez, ataundarrek begi onez hartu dituzte oro har Aurrerapen agirian jasotako antolamendu proposamenak, eta bereziki onetsi dute Ataunen egun indarrean den lurralde- edo hiri-ereduaren berrikustea, hau da, udalerriaren eremu hiritarra begiratzeko, aztertzeko eta proiektatzeko paradigma aldaketa. Edonola, badira parte hartze prozesu osoan eztabaida eragin duten eta agiri honetan arreta berezia merezi duten zenbait egiturazko gai.

Adibidez, Elbarrena eta San Gregorio auzuneak eremu hiritarra mugatu eta asentamendu sistema errematatzen duten buru edo polo gisa garatzeak aldeko iritzi ugari bildu ditu, baita bi poloen arteko konektibitatea oinezko, bizikleta eta garraio jasangarri zein publiko bidez bermatzeak ere.

Nolanahi ere, bide berriaren proposamenak arreta handia piztu du eta ideia aldeko iritziak bezain beste dira herritarrek adierazitako kezka eta zalantzak: bidearen trazadura, epeak, lehentasunak ezarri beharra, eta abar. Ondorioz, agiri honen bidez eta dagokion atalean, aipatu azpiegituraren inguruan irizpide zehatzagoak ezartzea komenigarria dela deritzogu.

Bestalde, Aurrerapen agiriak Astigarraga auzoan proposatzen duen bizitegi-garapenaren kokapenak eztabaida eta iritzi kontrajarriak eragin ditu herrian: batetik, herritarrek oro har proposamenaren aldeko iritzia agertu dute, baina bestetik, bertako bizilagun zein lur-jabeek erabateko aurkakotasuna erakutsi dute idatziz aurkeztutako iradokizunean. Honen aurrean bi gauza argitu behar dira:

- Aurrerapen agiriak ez du ezer berririk asmatu, egun indarrean dagoen plangintzak ere aurreikusten baitu bizitegi-garapena kokapen berean, garapenaren helburuak eta intentsitatea berraztertu diren arren.
- Egia da, halaber, indarreko plangintza onartu zenetik ez dela inolako pausorik eman eremuaren garapenaren alde eta horrek garbi adierazten du, gure ustez, bizilagun zein lur-jabeen aurkakotasuna ez dela koiunturala, egungo bizimoduari eusteko borondate tinkoa baizik, euren iradokizunean bertan aipatzen den bezala.

Edozein kasutan, aipatu bizitegi-garapenak funtzio erabakigarria betetzen du proiektu honek proposatzen duen lurralde ereduari, “habitat alternatiboa” sustatzeko eta bizi-proiektu berritzailea eraiki nahi duen “biztanleria erakartzeko” ahalmena baitu, gure ustez.

Hala ere, Astigarraga auzoko lur-jabeen erabateko aurkakotasunak asko zaildu eta luzatu dezake eremuaren kudeaketa eta beraz, Udalak haren garapena behartzeko tresnak badituen arren, aurreikusitako bizitegi-garapena berraztertzea eta lekualdatzea proposatzen da, beti ere, Aurrerapenak jasotako helburuari uko egin gabe, eta uholde-arriskuaren mapak balizko kokapen berrien zerrenda asko mugatzen badu ere.

Horren harira, jasotako ekarpen zein iradokizunetan edota parte hartze prozesuan zehar bizitegi-garapen esanguratsuak hartzeko proposatu diren beste zenbait kokapen (*Bittorrene* ondoko zelaia, Agauntza ibaiaren mendebaldeko erribera, San Martingo hilerri ingurua, *Sanztegi* eta *Ajarresta* baserrien ingurua, eta abar) baztertu egin behar ditugu, aurrerago azalduko diren arrazoiak tarteko.

Beraz, adierazitako helburuak erdiesteko baldintzak betetzen dituen kokapen (ia) bakarra Arinberriaga auzoan dago, hain zuzen ere, GI-2120 errepidearen eta Agauntza ibaiaren artean uholde-arriskutik kanpo dagoen eremuan. Bide batez, bizitegi-garapen berria egungo asentamendu bati atxikia legoke, ez luke azpiegitura berri handiren beharrik izango beraz, eta gainera indarreko araudian 6 etxebizitza berri aurreikusten dira dagoeneko bertan, auzo osoa lur urbanizaezineko landa-gune gisa izendatua dagoen arren.

Eremuak 11.000 m² inguruko azalera du eta, nabarmena denez, ez du Astigarraga auzoan aurreikusitako bizitegi-programa osoa hartzeko ahalmenik, batik bat intentsitate altueneko hautabideez ari bagara, baina etxebizitzaren atalean azalduko diren beste zenbait irizpiderekin batera, ezarritako helburuak erdiesteko bizitegi-ahalmen egokia finkatzen lagun dezake.

Gainera, jendaurreko epean jasotako zenbait ekarpen zein iradokizunekin bat dator proposamen berria, izan ere, Aurrerapenak Arinberriaga auzoan aurreikusitako garapenak ez baitu aldeko iritzirik jaso. Gogora dezagun nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta basogintzaren sustapena dela Aurrerapen agirian proposatzen den herri-proiektuaren zutabeetako bat, eta Arinberriaga eremuan kokatzen zirela lehen sektorearen garapenak behar dituen azpiegiturak.

Aldiz, jendaurreko epean jasotako iradokizun baten bidez, Arrondo eta Arinberriaga auzoen artean kokatzen den *Baztarrika* “baserrian eta inguruan tokiko fruituak elaboratzeko gunea” egokitzea proposatu da, eta “errepidearen beste aldeko lursailean berriz sagastia” eta beste zenbait azpiegitura. Baztarrika baserriko proiektuak “erakusketa eta dastaketa lekua” ere barne hartzen ditu eta, gure ustez, guztiz osagarria eta bateragarria da Aurrerapen agiriak Arinberriaga auzoan aurreikusitako azpiegiturarekin.

Hori dela eta, lehen sektorearen garapenak behar dituen azpiegitura publikoak *Baztarrika* baserriaren inguruan txertatzea eta iradokitako proiektu pribatuarekin bateragarri egitea proposatzen da, Arinberriaga auzoan egun indarrean dagoen bizitegi-garapena finkatuz eta indartuz. Bide batez, aipatu egitasmoak Arrondo eta Arinberriaga auzoen artean oinezkoen eta bizikleten bide berria burutzeko baliatu behar dira.

Arestian aztertu dira Aurrerapen agiriaren jendaurreko epean jasotako ekarpen eta iradokizunek proposatutako antolamenduan eragindako aldaketa nagusiak baina, nolanahi ere, partaidetza prozesuan zehar herritarrek adierazitako zalanntza eta kezka atalez atal aztertzen eta baloratzen dira ondoren:

3.1.a Bidegorria-Mugikortasuna:

Aurrerapen agiriak Elbarrena eta San Gregorio auzuneak oinezko, bizikleta eta garraio jasangarri zein publiko bidez lotzeko egiten duen proposamena agiri honi dagokion eskalaren arabera da eta ideien izaera eta potentzialtasuna adieraztea du helburu. Halabaina, esan bezala, aipatu azpiegituraren inguruan irizpide zehatzagoak ezartzea komenigarria dela deritzogu, behin-behinean bada ere. Horrela:

- Elbarrena eta San Gregorio arteko ibilbidean 2 atal bereizten dira: batetik, Elbarrenatik Arrondoraino doan atala (a), eremu hiritarragoa zailtzarik gabe non errepide ertzean (alde bakarrean edo bietan) oinezkoen espaloia badagoen egun, oro har haren zabalera eskasa den arren; bestetik, Arrondotik Arinberriaga eta San Gregorio auzuneetara doan atala (b), zati handi batean hiritartu gabea eta GI-2120 errepidean inolako espaloirik ez duena. Bada, bereizitako 2 atal hauek lehentasun eta irizpide ezberdinak izan behar dituzte gure ustez.
- Elbarrenatik Arrondora doan (a) atala egungo baliabideetan oinarrituko da eta haietan esku hartuz burutuko da. Izan ere, arestian azaldu dugun Astigarraga auzoko garapenari dagokion irizpide aldaketaren ondorioz, ez baitago arrazoirik bide berriaren trazadura eremuaren ekialdetik eta ekipamendu publikoen erditik eramateko.

Aldiz, (a) atal honetan guztian bide berria GI-2120 errepideari atxikia eramatea proposatzen da, egungo espaloiak zabalduz ahal denean, eta errepidean esku hartuz beharrezkoa denean. Horrela, Elbarrena eta Arrondo auzoetako gune hiritartuenak gurutzatzeko, GI-2120 errepidea egokitzea proposatzen da, ibilgailuen zein oinezkoen eta bizikleten erabilera har dezan, bide batez, GFaren lankidetzaz errepideak hirigune horietan eragiten dituen kalteak murriztuz.

- Aldiz, egun errepide soila duen (b) atala, Arrondotik San Gregoriora doana alegia, oinezkoen eta bizikleten erabilera mistoa izango duen bideaz hornitzeak lehentasun osoa du, eta atal honen garapenean ere bi fase aurreikusten dira.

Lehen fasean Arrondo eta Arinberriaga auzuneak lotuko dira. Bide berriaren atal hau GI-2120 errepidearen ertzean burutuko da (oraingoz aldea finkatu gabe), eta eremu horretan aurreikusten diren garapen zein erabilerei atxikia burutuko da.

Bigarren fase batean burutuko da Arrondotik San Gregoriora doan atala, proiektu osoaren luzeena eta korapilatsuena ezbairik gabe, eta finantzazio beharrik handiena izango duena beraz. Hori dela eta, bide berria GI-2120 errepidearen ertzean burutzea hobesten da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzeta eta finantzazioa bilatzea, baina ezin da baztertu atal honek erreka bestalde doan *Kaxio* bidearekin bat egin behar izatea.

3.1.b Agrologiako balio altua duten lurrak:

Nabarmena da horrela kategorizatu diren lurrek proposatutako herri-proiektuan eta lurralde eremuan duten garrantzia, eremu hiritarraren elementu egituratzaile izateraino. Bada, proposamenak herritarren aldeko iritzia zabala jaso du, eta planeamenduan Aurrerapen agiriak jasotako irizpideak finkatzea proposatzen da.

3.1.c Etxebizitza:

Aurrerapen agiriak etxebizitza alorrean proposatutako irizpide eta helburu orokorrak berretsi egin dira oro har jendaurreko epean jasotako ekarpen zein iradokizunen arabera. Edonola, gogora dezagun bi direla Aurrerapenak alor honetan ezartzen dituen helburu eta proiektu estrategikoak:

- Batetik, Elbarrenako plazako bizitegi-garapena (50 etxebizitza), lurzorua udal jabetzakoa izanik, udalerriko biztanleria, batik bat gaztea, errotzea helburu duena.
- Bestetik, Astigarragako auzoko bizitegi-garapena (48-84 etxebizitza artean), bizimodu “alternatiboak” eskainiz egungo migrazio saldoa iraultzea helburu duena.

Bada, aurreratu dugun bezala, planeamendu orokorrari begira Astigarraga auzoko bizitegi-garapena berrikustea proposatzen da, eta egun indarrean dagoen planeamendua finkatzea edo eremua atzera lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzea erabaki beharko da.

Hala ere, horrek ez du esan nahi aipatu proiektuari ezarritako helburua bertan behera utzi behar denik, baizik eta aurreikusitako bizitegi-garapena, neurri batean bederen, lekualdatu egingo dela, Arinberriaga auzora adibidez.

Nolanahi ere, Arinberriaga auzoko bizitegi-garapenak ez du Astigarragan aurreikusitako bizitegi-programa osoa hartzeko ahalmenik, batik bat intentsitate altueneko hautabideez ari bagara, baina ezarritako helburuak erdiesteko bizitegi-ahalmen egokia finkatzen lagun dezake, partaidetza prozesuan berretsitako beste zenbait helburu eta irizpiderekin batera; hauek dira:

- Planeamenduaren bizitegi-ahalmenean zenbatzen ez duten baina etxebizitza eskaintza handitzen duten hiri-lurzorua birgaitzeko, berroneratzeko edo birdentsifikatzeko eragiketak eta zuzkidura-jarduketak hobestea.
- Lurzoru urbanizaezinean kokatutako baserriak banantzeko baldintzak malgutzera, planeamenduaren bizitegi-ahalmenean zenbatzen ez duten etxebizitza berrien sorkuntza indartuz, beti ere, udalerrian eraikitako ondarearen babesa, birgaitzea eta erabileran jartzea sustatuz eta baserriak lurraldean historikoki izan duen funtzio egituratzailea bermatuz.
- Etxe hutsak merkaturatzeko politika ausartak aztertzea eta abian jartzea, plangintza orokorraren eskumenetik kanpo dauden arren. Adibidez, etxebizitzaren eta alokairuaren alorrean aholkularitza eta laguntza emango duen udal zerbitzu edo bulego teknikoaren sorkuntza behin baino gehiagotan aipatu da partaidetza prozesuan zehar.

Aldiz, jasotako ekarpen zein iradokizunetan edota parte hartze prozesuan zehar bizitegi-garapen esanguratsuak hartzeko proposatu diren beste zenbait kokapen baztertu egin behar ditugu, ondorengo arrazoiak tarteko:

- *Bitorrene* ondoko zelaia: 100 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuan dago bete-betean eta *PLAN HIDROLÓGICO DE LA DEMARCACIÓN HIDROGRÁFICA DEL CANTÁBRICO ORIENTAL* delakoaren 45. artikulua zera dio:

Artículo 45. Limitaciones a los usos en el resto de la zona inundable.

1. *Las edificaciones se diseñarán teniendo en cuenta el riesgo de inundación existente y los nuevos usos residenciales se dispondrán a una cota tal que no se vean afectados por la avenida con periodo de retorno de 500 años, (...).*
2. *En los **suelos rurales** en zona inundable y hasta la delimitación de la avenida de 100 años, tampoco podrán autorizarse las edificaciones, instalaciones y usos no permitidos en **zona de flujo preferente** en suelo rural conforme a la presente normativa, con la única excepción de los invernaderos, cerramientos y vallados, estos dos últimos, permeables.*

Eta beraz:

Artículo 42. *Limitaciones a los usos en la zona de flujo preferente en suelo rural.*

1. ***Con el objeto de garantizar la seguridad de las personas y bienes, en los suelos rurales en zona de flujo preferente a fecha 30 de diciembre de 2016 en que entró en vigor el Real Decreto 638/2016 de 9 de diciembre de modificación del RDPH, y de acuerdo con lo previsto en el artículo 9.bis) del Reglamento de Dominio Público Hidráulico, no se permitirá la instalación de nuevas edificaciones (...).***

Ondorioz, aipatu eremuan bizitegi-garapen berriak antolatzea debekatzen du araudiak eta gainera, proposatutako lurralde-ereduan bestelako funtzioak betetzera deitua dago, gure ustez. Eremuak Elbarrenako eta Astigarragako lur hiritartuen arteko jarraikortasuna eteten du, bi auzoen izaera morfologikoa babestuz, eta bertan eraikitzea ekidin beharko litzateke beraz.

Gogora dezagun eremua Espazio Libreen Sistema Orokorra bezala kalifikatzea proposatzen duela Aurrerapen agiriak, eta haren erabilera publikoa Astigarraga auzoko bizitegi-garapenaren bidez eskuratzea, orain aipatu helburua zaildu edota bertan behera gera daitekeen arren.

- Agauntza ibaiaren mendebaldeko ertza: Astigarraga auzoaren parean uholde-arriskutik kanpo dago baina lur zerrenda oso estua da eta, Elbarrena mendebalde eremuari jarraipena emango liokeen arren, dentsitate baxuko bizitegien lerro isolatu bat soilik har zezakeen, ekialdeko ibaiertzarekin zein egungo lurzoru hiritartuarekin lotura arazo nabarmenak izango lituzkeena... Ikusi besterik ez dago nola errematatzen duen Elbarrena, 19 eraikinak auzoko hiri-bilbea.
- San Martingo hilerriaren ingurua: bizitegi-hazkunde esanguratsuak Agauntza ibaiaren arrotik aldentzea eta hiri-bilbea maldan gora garatzea babestu nahi den lurralde ereduaren aurkakoa da eta ingurumen zein paisaia eragin oso kaltegarriak izango lituzke, gure ustez. Gainera, bizitegi-garapenaren irisgarritasun baldintzak oso eskasak izango lirateke eta *Troskaeta* tabernaren inguruko bidegurutzean zein Elbarrena auzo osoan trafiko arazo larriak eragingo lituzke.
- *Sanztegi* eta *Ajarresta* baserrien ingurua: uholde-arriskutik kanpo dago baina ez du inolako loturarik egungo lurzoru hiritartuarekin eta lotura arazo nabarmenak izango lituzke ekialdeko ibaiertzarekin, egun eremuan aurreikusia dagoen industria erabilerako garapenak bezalaxe. Gainera, bertan bizitegi-garapena burutuko balitz, ondorio kaltegarriak izango lituzke proposatutako lurralde ereduan, izan ere, ia gehiago funtzionatuko luke Lazkaoko auzo berri bat bezala Ataungo hiri-bilbearen zati bezala baino.

3.1.d Ekipamendu komunitarioak:

Aurrerapen agirian jaso diren ekipamendu publikoen artean arreta berezia piztu du adinekoen zaintzarako proposatu denak, eta aldeko iritzi ugari bildu ditu. Edonola, herritarrek ez dute ekipamendu berria egungo hiri-bilbetik kanpo ikusten, herrigunetik eta zerbitzu publikoetatik gertu kokatzea hobesten dute, adinekoak herriko bizitzan txertatuak egon daitezen.

Horren harira, 1. hautabidean jasotzen den proposamena, hau da, adinekoen zaintzarako ekipamendu publikoa “eskeletoaren” inguruan kokatzeak aipatu helburuak asebetetzen ditu baina proposamenak kudeaketa zaila du, lekualdatze ugari eta, ondorioz, kalteordain handiak sortuko lituzkeelako, eta uholde arriskuak ere eragiten dio.

Ondorioz, aipatu zuzkidura kokatzeko 3. hautabideko proposamena hobesten da, hau da, indarreko AU13 unitatea. Gainera, adinekoen txertatzea eta belaunaldien arteko harremana sustatu asmoz, adinekoen zuzendutako zuzkidurak (eguneko zentroa, adinekoen zentroa, tutoretzapeko etxebizitzak,...) gazteentzako zuzkidura bizitokiekin osatzea iradoki da.

Proposamenak etxebizitza alorrean ezarritako helburuekin bat egiten du eta gainera, proiektuaren kudeaketa eta bideragarritasuna erraztu ditzake gure ustez.

Bestalde, herriko nerabeei zuzendutako ekipamenduak indartzea ere iradoki da baina, gure ustez, jada aurreikusia dagoen *Aierdienea* edo *Botika* etxearen berriztatzeak arindu dezake neurri batean alor horretan dagoen edo antzematen den gabezia. Ingurune berean kokatua dagoen *Errota-zahar* eraikina ere aipatu da ekipamendu publikoen kokagune gisa baina eremuko proiektuaren garapena oztopatuko luke (ordenazioz kanpo eta birpartzelatua dago jada) eta eraikuntzaren egungo aurrerak haren berreraikuntza eskatuko luke, eraikinaren balizko balio historikoa deuseztuz.

Gainera, Astigarraga auzoan dagoen kirol ekipamenduen egungo eremua ere zabaltzea ahal den neurrian, iradoki denez txiki geratu diren frontoia eta kiroldegia handitu asmoz. Besterik da, Agauntza ibaian aisialdirako eta bainurako guneak aurreikusteko iradokizuna, izan ere, aspaldiko eskaera izanagatik, *URA Ur Agentziaren* aurkako ebazpena jaso duen proiektua izan baita Udalak proposatu izan duen bakoitzean.

Azkenik, San Gregorio auzoan egun dagoen ustezko ekipamendu eta zerbitzuen gabeziaren inguruko iradokizunak jaso dira. Eta ustezko diogu, datuen arabera auzoaren zuzkidura maila (frontoia, eskola eta elkargunea, museoa-interpretazio zentroa eta hilerria) egokia delako biltzen duen biztanlegoari erreparatzen badiogu.

Besterik da zerbitzu pribatuen nahikotasunaz ari baikara, tabernaren ordutegiak aipatzen dira adibidez, baina planeamenduak nekez esku hartu dezake arazo honen konponbidean, eremuaren baldintza orokorrak hobetuz negozio pribatuen erakargarritasuna handituz ez bada. Baina auzoan esku hartzeko aukerak San Gregorio mendebaldea eremuan kokatzen dira, San Gregorio ekialdea eremua guztiz finkatua ageri baita planeamenduari dagokionez.

3.1.e Jarduera ekonomikoak:

Aurrerapen agirian Ajarresta izendatu dugun eremuan indarreko plangintzan aurreikusten diren jarduera ekonomikoak bertan behera uzteak adostasun zabala jaso du, baita eremua agrologiako balio altua duen lur urbanizaezina bezala sailkatzeko proposamenak.

Izan ere, nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta basogintzaren sustapena baita Aurrerapen agirian proposatzen den herri-proiektuaren zutabeetako bat, eta jendaurreko epean jasotako ekarpenak bat datoz horrekin, baita agrologiako balio altua duten lurak eremu hiritarraren elementu egituratzaile izatearekin ere.

Edonola, lehen sektorearen garapenak behar dituen azpiegiturak Arinberriaga auzoan kokatzen zituen Aurrerapenak, baina proposamenak aurkako iritzia jaso ditu batik bat. Hori dela eta, aipatu azpiegitura publikoak *Baztarrika* baserriaren inguruan txertatzea eta iradokitako proiektu pribatuarekin bateragarri egitea proposatu da lehenago ere agiri honetan bertan.

Gainera, lehen sektoreari dagokionez, “baserrien inguruan eta lurretan bestelako eraikuntzarako aukerak aztertzea eta ematea” ere iradoki da, “izan ere baserrien eraikinak ez dira bateragarriak gaur egun produkzioarako dauden tresnekin eta hauek bertan gordetzeko edo hauekin lanean aritzeko behar diren espazioak bestelakoak” baitira.

Oro har, guztiz bat gatoz azken iradokizun honekin, baina gogorarazi behar dugu lurzoru urbanizaezineko ordenantzak direla aipatu eraikuntzak arautzen dituztenak, egungo indarreko plangintzan zein etorkizuneko Plan Orokorrak berriak, beti ere, lurzoru urbanizaezin bakoitzaren kategorizazioaren arabera, eta kategorizazio hori udalaz gaindiko lurralde plangintzak finkatzen du, batik bat, *EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala* delakoak.

Nolanahi ere, eraikuntza mota honen baimentzea lehen sektoreko jarduera profesionalaren ezaugarrien eta benetako beharren arabera da beti, eta udal mailako ordenantzak haien ezaugarri estetikoak arautu edota malgutu ditzake soilik, beti ere ingurunearen paisaia baloreak babesteari uko egin gabe.

Gainera, helburu hau bateragarri egin behar da etxebizitzari dagokion atalean aipatu dugun baserriak banantzeko edo zatikatzeko baldintzen malgutzarekin, baserriak historikoki izan duen funtzio anitza eta lurralde-egituratzailea gal ez dezan.

Beste horrenbeste adierazi behar dugu *Arrateta* baserriaren inguruan, GI-4151 errepidearen ertzean, “bisitariei oinarritzko zerbitzua emango dion zerbitzu-gunea” sortzeko eta “etxola batzuk” eraikitzeko jaso den proposamenaren inguruan, ahaztu gabe proposatutako kokapena Aralarko Parke Naturalaren barnean dagoela eta, ondorioz, haren *Baliabide Naturalak Antolatzeke Planak* arautzen dituela azken batean bertan garatu daitezkeen jarduerak.

Hala ere, udalerriko zerbitzu sektorea eta batez ere ostalaritza zerbitzuak indartzeko apustua berresten du Aurrerapen agiriak eta, adibidez, Aia auzoan proposatzen den aterpetxeak aldeko iritziak bildu ditu, auzotarren artean batik bat. Hala ere, San Gregorio auzoan antzeman den zerbitzu gabezia ere aintzat hartu beharko du plangintza orokorrak.

3.1.f Ondare kulturala eta naturala:

Partaidetza prozesuan zehar udalerriaren ondare kulturala eta naturala uztartzeko eta babesteko nahia azpimarratu da, baita hari lotutako zerbitzu sektorea sustatzeko beharra ere, agiri honen aurreko pasartean aipatzen den bezala, hain zuzen ere.

Bada, Aurrerapen agiria bat dator guztiz aipatu irizpide eta helburuekin, eta plangintza orokorraren oinarri gisa finkatzea proposatzen da.

3.1.g Gune libreak:

Aurrerapen agirian aipatu bezala, indarreko plangintza orokorrak badu arazo bat haren garapenerako aurreikusitako gune libre orokorrekin, zehazki, *Iturritza* eta *Astigarraga* izeneko Sistema Orokorrak ez baitira inoiz gauzatu/eskuratu.

Bada, gogora dezagun Aurrerapen agiriak alor honen inguruan esaten duena: *“Etorkizunera begira, beraz, funtsezkoa da udal plangintzak izendatzen dituen Gune Libreen Sistema Orokorrak hiri-bilbean txertatuak egotea eta hiri-ereduan zuzeneko funtzioa betetzea, egungoek ez bezala. Zentzu horretan, espazio publikoen eta gune berdeen arteko bereizketa baztertu beharko litzatekeela uste dugu, eta espazio publikoetan gune hiritartuak eta naturalak uztartu, klima-aldaketak hiri-guneetan sortuko dituen erronka berriei aurre egin ahal izateko”*.

Horrela, Aurrerapenak egungo Sistema Orokorrak ezabatzea eta haien ordez *Bittorrene* ondoko zelaia izendatzea proposatzen zuen, Astigarraga auzoan aurreikusitako bizitegi-garapenari atxikia.

Baina jasotako iradokizunen ondorioz proposatu den irizpide aldaketak arriskuan jartzen du gune libre berri honen eskuratzea, eta Udalak erabaki beharko du zenbaterainoko ahalegin ekonomikoa egiteko prest dagoen, gure ustez, hiri-parke edo zelai publikoaren bokazio garbia duen eremu hau beste bide batetik bereganatzeko.

Nolanahi ere, 2. eta 3. hautabideetan San Gregorio mendebalde eremuan, *Lauztierreka* alboan proposatzen den gune libreen Sistema Orokorrak 4.350 m² inguruko azalera du eta legeak ezarritako eskakizunei erantzuteko gaitasuna duela deritzogu, eta Udalak lagapen gisa eskura dezake eremuan aurreikusitako bizitegi-garapenaren kontura.

Bestalde, jendaurreko epean jasotako ekarpenetan eliza eta *Botika-etxea (Aierdienea)* inguruko berdegunea errespetatzea proposatu da. Bada, Aurrerapen agiriak ezarritako irizpideak guztiz bat datoz aipatu iradokizunarekin eta 1., 2. eta 3. hautabideetan indarreko araudiak aurreikusitako gune libre publikoa handitzea eta berdegune izaera errespetatzea proposatzen da.

3.1.h Aia auzoa:

Aiako auzotarrek bilera eta hausnarketa dinamika propioa burutu dute Aurrerapen agiriko proposamenen inguruan eta, udalak zein plangintzaren talde idazleak elkarriketa eta partaidetza prozesu iraunkorra mantentzeko konpromisoa hartu dugun arren, behin behinean 1. hautabidea hobestea erabaki da.

Gainera, auzoko ur zikinen saneamendu sarea egokitzea ere eskatu dute auzotarrek, eta eskumendun erakundearekin aukera ezberdinak aztertu beharko dira.

3.2 JENDAURREKO EPEAN JASOTAKO IRADOKIZUNEN ZERRENDIA

Ataungo Udalbatzarrek, 2024ko uztailaren 22an egindako bilkuran, udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapen agiria eta Hasierako Agiri Estrategikoa onartzea eta agiri horiek bi hilabetez jendaurrean jartzea erabaki zuen, interesdunek agiriari iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko.

Aipatu akordioa 2024ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 174. zenbakia) eta baliabide elektroniko propioetan, eta aldiz, urriaren 25ean eman zen argitara “udal-mugar-tean tirada handiena duen egunkarian”. Ondorioz, Aurrerapen agiriaren jendaurreko epea 2024ko irailaren 11tik abenduaren 26ra luzatu da.

Bada, aipatu jendaurreko epean idatziz aurkeztu diren iradokizunen zerrenda ondorengoa da:

Zenbakia	Sarrera data	Sarrera kodea	Interesduna/k	N.A.N.
1	2024/10/18	20241018_0001	[REDACTED]	[REDACTED]
			[REDACTED]	[REDACTED]
			[REDACTED]	[REDACTED]
			[REDACTED]	[REDACTED]
			[REDACTED]	[REDACTED]
			[REDACTED]	[REDACTED]
			[REDACTED]	[REDACTED]
			[REDACTED]	[REDACTED]
			[REDACTED]	[REDACTED]
2	2024/10/23	A24-01010-002	[REDACTED]	[REDACTED]
3	2024/10/23	A24-01010-003	[REDACTED]	[REDACTED]
4	2024/10/25	A24-01025	[REDACTED]	[REDACTED]
5	2024/11/07	A24-01063-002	[REDACTED]	[REDACTED]

3.3 JENDAURREKO EPEAN JASOTAKO IRADOKIZUNEN AZALPEN LABURRA

1. Iradokizuna

Iradokizuna sinatu duten herritar guztiak Astigarraga auzoko bizilagunak dira, *Andresenea*, *Dornarienea*, *Txetañenea*, *Luziaenea* eta *Bordatxo* etxeetako biztanleak alegia, eta aurkeztutako idatzia Aurrerapen agiriak euren auzorako aurreikusten dituen hautabideen aurkakoa da, oro har.

Horrela, egungo etxebizitzaren atzealdean proposatzen den bizitegi-garapenaren eta, bereziki, bidegorriaren aurka argudiatzen dutena ondoren laburbiltzen da:

- Ibilbide irisgarrien arazoak konponbide globala behar du “herri osoan” eta Astigarragako etxeen atzealdetik eramateak ez du arazoa konpontzen, trazadura ondoren erreperidera itzultzen delako.
- Proposatzen dena ez da “bidegorria”, proposatzen den bizitegi-garapenak autoentzako “erreperidea” beharko duelako.
- Bailara estua da eta ez dira 2 “erreperide” sartzen.
- Proposamenak okupatuko lituzkeen lursailak nekazaritza eta abeltzaintza estentsiborako erabiltzen dira egun.
- Lursail horiek parke naturalaren barnean kokatzen dira.
- Proposamena auzoko zenbait eraikinen “baserri” izaera deuseztera dator, Aurrerapen agiriak berak helburutzat duen berreskuratze eta babesarekin talka eginez.

- *Andresenea* eta *Astigarragaetxea* “baserriak” balizko arkeologia gune gisa jasotzen ditu Aurrerapen agiriak berak.
- Aurrerapen agirian jasotako proposamen berriek orain arte “baserri” izaera mantendu duten nekazal aktibitateen lursailak banatzen eta mugatzen dituzte.
- Aurrerapen agirian proposatzen diren bizitegien kokapena ez da egokia, mendi magalak eguzki ordu gutxi eta hezetasun handia duelako.
- Aurrerapen agirian jasotako proposamen berrien fotomuntaketak eranstean dira.
- Proposatutako garapenak egun abeltzaintzarako erabiltzen diren hainbat eraikinen eraistea dakar.
- Proposatutako bide berriak Ataungo eskolaren egungo eremua zeharkatuko luke.
- Arrondo auzoan zenbait jarduketa isolatu bertan behera uztea proposatzen du Aurrerapen agiriak, ustez “baratzak eta zelaia babestu beharra” argudiatuta; Astigarraga auzoan ere irizpide bera aplikatzea eskatzen da.
- Indarreko plangintzak auzoan aurreikusitako garapena ez da gauzatu onartu zenetik.

Aurkeztutako idatziak, aipatu argudioen segidan, zenbait eskaera egiten ditu; laburbilduz:

- Herritarren mugikortasunerako bide berriak ez dezala Astigarraga etxebizitzaren atzealdetik gurutzatu; “bidegorria” Agauntza ibaiaren mendebaldeko ertzetik (zubi berri bat eraikiz) edo errepide ertzetik eramatea proposatzen da.
- Astigarraga auzoko bizitegi-garapena lekualdatzea; beste zenbait kokapen proposatzen dira (*Bitorrene* ondoko zelaia, errepide ondoko zelaia, Agauntza ibaiaren mendebaldeko ertza, hilerriaren ingurua, *Sanztegi* baserriaren ingurua...) eta etxebizitzaren hutsen inguruko lanketa ere proposatzen da.

2. Iradokizuna

Iradokizun idatziak, Arrondo auzoko *Auzmendienea* etxearen jatorria eta historia azaldu ondoren, hura egungo egoeran finkatzea eskatzen du, eta “bere lursailarekin eta gehitu zaion *Barberoenea* etxea zenaren lurzorurekin jarduketa unitate bakarrean egungo egoeran errespetatzea”.

3. Iradokizuna

Eskatzaileak, ustez Arinberriaga auzoko lursail baten jabe denak, aipatu eremurako Aurrerapen agiriko 0. hautabidea hobestea iradoki du, gainontzeko hautabideetan aurreikusitako garapenak “landa-auzoak izan dezakeen bere neurriko hazkundera mugatzen duela eta aktibitate ekonomiko bat auzoari itsatsita izatea ez dela aukerarik onena” argudiatuz.

4. Iradokizuna

Aurkeztutako idatziak 4 iradokizun edota eskaera ongi berezituak jasotzen ditu, bakoitzak plano bana atxikia duelarik; horrela:

- a) Bittor jatetxearen ekialdeko lursailean hari atxikitako "aire libreko topagune bat sortzea" eta "etxebizitza erabilera izango duen eraikin berri bat" eraikitzea proposatzen da.
- b) Ustatxo aldean, *Arrateta* etxearen inguruan, "bisitariari oinarritzko zerbitzua emango dion zerbitzu-gunea" proposatzen da, "paisaiarekin bat egingo luketen" eta naturarekiko jasangarriak eta ekologikoak izango liratekeen "modulo gisako txabolak" eraikiz.
- c) Lehenago ere aipatu denez, "*Baztarrika* baserrian eta inguruan tokiko fruituak elaboratzeko gunea" egokitzea proposatzen da, eta "errepidearen beste aldeko lursailean berriz sagastia" eta beste zenbait azpiegitura; proiektuak "erakusketa eta dastaketa lekua" ere barne hartzen ditu *Baztarrika* baserrian bertan.
- d) Trazadura alternatiboa proposatzen da "bidegorri" berriarentzat.

5. Iradokizuna

BaskEgur. Euskadiko Egurraren Elkartea delakoaren izenean aurkeztatutako "alegazioak" 4 atal ditu eta bakoitzaren laburpena jasotzen da ondoren:

- 1) Aurkeztutako idatziak *EAEko NEKAZARITZA ETA BASOZAINTZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA* delakoa aldarrikatzen du hierarkian gorago dagoen tresna gisa eta haren xedapenak lotesleak direla udalerriko hirigintza plangintzarentzat.
Ondoren, basogintzak duen garrantzia goraipatzen du idatziak, ez soilik aberastasuna sortzeko, baizik eta ingurumena babesteko ere, guztia EAEko eta Ataungo baso-maparen egoera eta bilakaera xehetasun handiz azaltzearekin batera.
Azkenik, idatziak eskatzen du, arestian aipatu plan sektorialak ezartzen duena bere eginez, Aurrerapen agiriaren irizpide eta helburuen artean ondorengoa jasotzea: "Plangintza landa-irizpideetatik abiatuta planteatuko duen lurralde-antolamendua bultzatzea, nekazaritza eta basogintzako sektoreen beharrak eta ikuspegiak kontuan hartuta, nekazaritza eta basogintzako jarduerak ingurumenaren kontserbazioa bermatuko duten funtsezko faktoreen barruan sartzea sendotuz eta nekazaritza eta basogintzako jarduerak garatzeko behar diren azalerak, kantitateari eta kalitateari dagokienez, ziurtatuz".

- 2) Aurkeztutako idatziak adierazten du, *EAEko NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LPS* delakoaren arabera, urriaren 20ko *7/2006 FORU ARAUA* delakoari dagokiola basogintza erabileraren erregulazioa eta beraz, Udalak ez duela hura arautzeko inolako eskumenik. Ondorioz, eskatzen du:
- 2.1- Ataungo HAPOn aurreikustea baso-erabilera Gipuzkoako Mendiei buruzko Foru Arauak arautuko duela eta, beraz, erreferentziazko legedi gisa txertatzea.
- 2.2- Ataungo HAPOn Udalak basogintzako erabilera edo kudeaketa arautuko duela dioen edozein erreferentzia ezabatzea, basogintzako erabilera arautzeko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiolako.
- 3) Aurkeztutako idatziak adierazten du Aurrerapen agirian ez dagoela baso-kudeaketa iraunkorraren inguruko inolako aipamenik eta, bio-ekonomiaren azalpen eta goraipamen luze baten ondoren, Haserako Agiri Estrategikoan ondorengo helburuak espresuki jasotzea eskatzen du:
- Baso-kudeaketa iraunkorra sustatzea.
 - Baso-biomasa bezalako energia berriztagarrien erabilera sustatzea.
- 4) Aurkeztutako idatziak zera eskatzen du: Aurrerapen agirian *“A6.2 LURZORU URBANIZAEZINEKO PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK atalean, horrela katalogatuta ez dauden espezieak (Robinia pseudoacacia, Eucalyptus sp., etab.) inbaditzaile gisa definitzea ezabatzea”*.

3.4 JENDAURREKO EPEAN JASOTAKO IRADOKIZUNEN BALORAZIOA

1. Iradokizuna

Astigarragako zenbait auzotarrek, talde esanguratsua nolanahi ere, aurkeztu duten iradokizunari puntuz puntu erantzun baino, hausnarketa zabalago bat egitea komeni dela deritzogu, hainbeste argudioren atzean eskaera bakar eta garden bat baitago: Aurrerapen agiriko hautabideetan jasotako bizitegi-garapena (indarreko zein berri) bertan behera uztea.

Partaidetza prozesuan jasotako ekarpenen balorazio orokorrean erantzun zaio auziaren mamiai baina, errepikatzeko asmorik gabe, garrantzitsua da zenbait ideia azpimarratzea.

Lehenik eta behin, Aurrerapen agiria Diagnostiko fasearen ondorioei erantzutera dator, hau da, egungo migrazio saldo negatiboa iraultzeko asmoz, Ataungo udalerrian bizimodu “alternatiboak” eskaintzeko eta eskualdetik biztanleria erakartzeko ahalmena izango duten bizitegi-garapenak aurreikustea.

Bada, **Astigarraga auzokoa da aipatu funtzio erabakigarri horri erantzuteko baldintzak betetzen dituen udalerriko kokapen bakanetakoa, lurzoru urbanizaezin berriak okupatu gabe eta uholde-arriskutik salbu, herriko ekipamendu orokorrak asentamendu sisteman integratzeko eta zuzkidura orokor berriak eskuratzeko aukera ematen duelako, beste edozein kokapenek ez bezala.**

Zentzu horretan, Plan Orokorraren idazle gisa berretsi behar dugu Aurrerapenak jasotzen dituen proposamenak egokiak direla hirigintzaren ikuspegitik. Hala ere, jada aipatu den bezala, auzoko bizilagunen eragozpenak ez dira koiunturalak eta lur-jabeen erabateko aurkakotasunak asko zailduko du eremuaren kudeaketa, Udalak haren garapena behartzeko tresnak badituen arren. Edonola, proposamena auzotarrei hobeto azaltzeko ahalegina egin beharko litzatekeela uste dugu, izan ere, iradokizunean egiten dituzten hainbat baieztapen ez baitira zuzenak.

Adibidez, iradokizunari atxikiak ageri diren fotomuntaketak eskalaz kanpo daude eta proposamena guztiz desitxuratzen dute. Proposamenaren alde (egon badaude) aurkeztutako ekarpenetan aipatzen den bezala, eremuko bizitegi berrien tipologia dentsitate baxukoa izan daiteke eta neurri batean egungo baratzak eta erabilerak mantenduko lirateke, azalera txikiagoan bada ere. Gainera, bi bizitegi lerroen artean sortuko litzatekeen espazio publikoak oinezkoen eta bizikleten pasealeku izaera izango luke. Modu horretan, auzoko “bizitza publikoa” ardatz berrira, egungo etxebizitzaren atzealdera lekualdatuko litzateke eta GI-2120 errepidea auzoaren “ertzean” kokatuko litzateke, egun duen zentraltasuna saihestuz.

Bestalde, iradokizunean auzoko eraikinen “baserri” izaeraren inguruan orain egiten den aldarria arrakero edo bentajista samarra iruditzen zaigu. Gogora dezagun beste behin auzoaren zatirik handiena hiri-lurzorua dela jada, egungo baratza gehienak barne, eta bertako eraikinek sailkapen horrek eskaintzen dizkien abantaila guztiak dituzte, lurzoru urbanizaezinean kokatzen diren benetako baserrien mugak jasan gabe. Iradokizunaren koherentzia handituko litzateke, gure ustez, eskatzaileek haien lurzorua urbanizaezin gisa sailkatzea eskatu edo galdegingo balute, baina ez dago halakoren arrastorik.

Pentsatu nahi genuke nabarmena dela Aurrerapen agirian proposatzen den lurralde ereduak udalerriko ondare natural zein eraikiarekiko eta labore-lurrarekiko erakusten duen enpatia eta sentikortasuna, baina **plangintza orokorrak helburu zehatzak ditu baita ere udalerraren jasangarritasun demografikoarekiko eta Astigarraga auzoak aipatu helburuari erantzuna emateko aukera eskaintzen du, iradoki diren Arrondo auzoko jarduketa isolatuek ez bezala, bide batez esanda.**

Azkenik, Astigarragakoaren ordeztu bizitegi-garapen esanguratsuak hartzeko proposatu diren kokapenak baztertu egin behar ditugu, jada azaldu diren arrazoiak tarteko, baita “bidegorria” Agauntza ibaiaren mendebaldeko ertzetik eramatea ere, *Kaxio* bideak beste helburu batzuk dituelako eta zubi berriaren proposamenak ingurumenarekiko errespetu eskasa erakusten duelako, Ur Agentziaren aurkako ebazpenek behin eta berriz nabarmentzen duten bezala.

Nolanahi ere, plangintza orokorraren irizpide gisa, indarreko antolamendua (0. hautabidea) oinarritzat hartzea eta “bidegorria” errepidearen ertzetik eramatea proposatzen da, ekarpenen balorazio orokorrean adierazi eta arrazoitu den bezala.

2. Iradokizuna

Aurrerapen agiri 2., 3. eta 4. hautabideek ordenaziotan kanpo uzten zituzten Arrondo auzoko *Auzmendienea*, *Zapatarizar* eta *Errekondo* etxeak, eta zuzkidura-jarduketan bitartez lursailen eraikigarritasuna handitzea proposatzen zuten, bizitegi-eraikin berriak atzerago eraikiz GI-2120 errepidearen ertzean “bidegorria” egokitu asmoz.

Bada, ekarpenen balorazio orokorrean adierazi bezala, “bidegorria” egokitzeko irizpideak berrikusi dira eta Arrondo auzoko gune hiritartua gurutzatzeko GI-2120 errepidea egokitzea hobesten da. Gainera, *Auzmendienea* eta *Barberoenea* etxeen lursailean proposatzen zen eraikuntza 100 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuan kokatzen da betebetan eta, lurzoru hiritartuan egonagatik ere, aipatu eremuan bizitegi-garapen berriak ez antolatzea aholkatzen du araudiak.

Gauzak horrela, *Auzmendienea* etxeak badu jada aurrealdean espaloi irisgarria egokitzeko lurzerrenda nahikoa eta, ondorioz, iradokizuna aintzat hartzea eta *Auzmendienea* etxea finkatzea proposatzen da.

Hala ere, ohartarazi behar da indarreko plangintzak (0. hautabidea) bizitegi-garapen berria aurreikusten duela *Barberoenea* etxearen jatorrizko lursailean baina, esan bezala, uholde-arrisku eremuan kokatzen da eta plangintza orokor berriak baztertu egin beharko du.

3. Iradokizuna

Gure ustez, eskatzaileak bere iradokizunean erabiltzen dituen ustezko argudioak iritzi pertsonalak besterik ez dira, errespetagarriak noski baina hautemate subjektiboak nolanahi ere. Aurrerapen agiriak jasotzen dituen proposamenak guztiz zilegiak eta auzoaren landa-izaerari egokituak dira, eta koherenteak plangintza orokorrari ezarritako helburu zein irizpideekiko.

Hala ere, ekarpenen balorazio orokorrean adierazi eta arrazoitu da lehen sektoreak beharrezko dituen azpiegiturak *Baztarrika* baserriaren inguruan txertatzeko asmoa, eta Arinberriaga auzoari etxebizitza alorrean ezarritako helburuak erdiesteko beharrezkoak diren bizitegi-garapenak hartzea dagokio, aurkeztutako iradokizunarekin bat eginez hein handi batean.

4. Iradokizuna

Idatzian jasotako 4 iradokizunetako bakoitzak helburu ezberdinak ditu eta berezko balorazioa eskatzen du; beraz:

- a) *Bittor* jatetxearen inguruan “aire libreko topagune bat” sortzeko eta “etxebizitza erabilera izango duen eraikin berri bat” eraikitze proposamena koherentea izan daiteke Aurrerapen agiriak ezarritako lurralde ereduaren helburu eta irizpideekin, baina ingurumen alorreko baldintzatzaile ezberdinek eragiten diote:
- Lursail osoa Aralarko Parke Naturalaren barnean kokatzen da.
 - Eraikin berria *Batasuneko Intereseko Habitata [6510] : Larratu gabeko sega-belardi atlantiarra* delakoan kokatzen da.
 - Lursaila 100 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuan kokatzen da.

Horrela, 168/1994 DEKRETUA, apirilaren 26koa, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onesten duena, zein 146/2004 DEKRETUA, uztailaren 13koa, Aralarko Parke Naturaleko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana aldatzeko dena, delakoek Hirigune eta azpiegitura barrutiak kategorian txertatzen dute aztergai dugun lursaila eta araudiak zera dio proposatutako erabileren inguruan:

13. atala.– Jolas iharduerak.

7.– Turismo eta jolaserako **ostalaritza-** eta kirol-instalazioak onartzen dira. Instalazio horiek, ordea, «*ekipamendu eta zerbitzu*», «*landazabal*» eta «**hirilur eta azpiegitura**» barrutietan soilik kokatuko dira eta eraikuntza- eta azpiegitura-jarduerei buruz 16. artikuluan ezartzen dena errespetatuko dute.

16. artikulua. Eraikuntza- eta azpiegitura-jarduerak.

B.–Arauak.

10.– **Debekatuta daude lehen sektoreari lotzen ez zaizkion egoitza-erabilerako eraikin berriak «hirilur eta azpiegitura» gisa definitutako barrutietatik kanpo.** Debeku horretan ez dira barne hartzen baimendutako beste erabilera batzuetarako lagungarriak diren egoitza erabilerara zuzendutako eraikinak.

«Landazabal» eta «**hirilur eta azpiegitura**» barrutietan ostalaritza- eta kirol-instalazioak dagokion **udalerriko arau subsidiarioetan** ezarritakoari egokituko zaizkio.

30. atala.– Hirilur eta azpiegitura barrutiak.

B.– ARAUA.

1.– **Zona hauetan** aplikatu behar den arautegia, ukituriko **udalerri bakoitzeko ordezkoko arauetan** jasotzen dena izango da, baita aipaturiko azpiegituretarako aplikatzekoak diren legeak ere.

Bada, esan bezala, proposamena onargarria izan liteke baldin eta aurreikusitako plangintzara egokitzen bada eta haren garapena ahalbidetzen badu.

Izan ere, gure iritziz, guztiz funtsezkoa gertatzen baita kiroldegi ondoko Espazio Librean Sistema Orokorra eta, *Aitzarterreka* ertzetik, Elbarrenako hirigunea lotzeko proposatu den oinezkoen ardatza, are gehiago indarreko AIU13 unitatean proposatu den helduen zaintzarako ekipamendua garatzen bada, eta ardatz berriak eskatzailearen lursaila gurutzatuko luke ekialdeko ertzetik, iradokitako proiektua ekidin gabe baina hari atxikitako zuzkidura-jarduketa gisa.

Edozein kasutan, lursail osoa uholde-arriskuko eremuan kokatzen da eta indarrean dagoen *PLAN HIDROLÓGICO DE LA DEMARCACIÓN HIDROGRÁFICA DEL CANTÁBRICO ORIENTAL* delakoaren xedapenek bete betean eragiten diote; horrela:

Artículo 45. Limitaciones a los usos en el resto de la zona inundable.

1. *Las edificaciones se diseñarán teniendo en cuenta el riesgo de inundación existente y los nuevos usos residenciales se dispondrán a una cota tal que no se vean afectados por la avenida con periodo de retorno de 500 años, debiendo diseñarse teniendo en cuenta el riesgo y el tipo de inundación existente. Podrán disponer de garajes subterráneos y sótanos, siempre que se garantice la estanqueidad del recinto para la avenida de 500 años de periodo de retorno, se realicen estudios específicos para evitar el colapso de las edificaciones todo ello teniendo en cuenta la carga sólida transportada y además se disponga de respiraderos y vías de evacuación por encima de la cota de la mencionada avenida. Se deberá tener en cuenta su accesibilidad en situación de emergencia por inundaciones.*

4. *Asimismo, en los suelos urbanizados en zona inundable por las avenidas de 100 años de periodo de retorno, no se permitirán nuevos establecimientos de servicios o equipamientos sensibles o infraestructuras públicas esenciales, acampadas, zonas destinadas al alojamiento los campings y edificios de usos vinculados, parques de bomberos e instalaciones de los servicios de Protección Civil o similares.*

b) Aurreko atalean aztertutako egoeraren oso antzekoa da *Arrateta* etxearen inguruan proposatu den proiektuarena, izan ere, koherentea izan baitaiteke lurralde ereduaren helburu eta irizpideekin, baina hau ere ingurumen alorreko baldintzatzaile ezberdinen menpe dago:

- Eremu osoa Aralarko Parke Naturalaren barnean kokatzen da.
- Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE-ZEC) kokatzen da.
- Eremua *Batasuneko Intereseko Habitata: Quercus robur nagusitzen den baso azidofiloa (Hariztia)* izendatua dago eta, gainera, “funtsezko elementua” kontsideratua dago *84/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko dena*, delakoan.

Beraz, lehen ere aipatu dugun *146/2004 DEKRETUA* delakoaren arabera, *Arrateta* etxearen eremu osoa *Landazabal barrutia* kategorian txertatzen da eta araudiak zera dio proposatutako erabileren inguruan:

13. atala. – Jolas iharduerak.

*7. – Turismo eta jolaserako **ostalaritza**- eta kirol-instalazioak onartzen dira. Instalazio horiek, ordea, « ekipamendu eta zerbitzu », « **landazabal** » eta « hirilur eta azpiegitura » ko barrutietan soilik kokatuko dira eta eraikuntza- eta azpiegitura-jarduerei buruz 16. artikuluan ezartzen dena errespetatuko dute.*

16. artikulua. Eraikuntza- eta azpiegitura-jarduerak.

B. – Arauak.

*« **Landazabal** » eta « hirilur eta azpiegitura » barrutietan ostalaritza- eta kirol-instalazioak dagokion udalerriko **arau subsidiarioetan** ezarritakoari egokituko zaizkio.*

29. atala. – Landazabal barrutiak.

D. – ARAUA.

*1. – Zona hauetan aplikatu behar den arautegia, ukituriko **udalerrri bakoitzeko ordezkio arauetan** jasotzen dena izango da.*

Beraz, ostalaritza-instalazioak landazabal eremuan garatzeko aukera udalerriko plangintza orokorraren menpe uzten du Parke Naturalaren antolamendu planak, baina Plan Orokor berria *EAEko NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA* delakoari lotu behar zaio lurzoru urbanizaezinaren araudiari dagokionez.

Horrela, zera dio aipatu plan sektorialak ostalaritza erabileren inguruan:

5. ATALA: LURZORUAREN ERABILERAK ETA ERAIKUNTZA-ERABILEREI LOTUTAKO JARDUERAK.

42. artikulua.- Erabilera publikoko edo gizarte intereseko eraikin eta instalazioak.

1. Komunitate-ekipamendu publiko edo pribatuetarako eraikuntzak eta instalazioak: ematen dituzten zerbitzuak, beren izaera eta ezaugarriengatik, nahitaez landa-ingurunean kokatu behar dira, betiere aurrez erabilgarritasun publikoa edo gizarte-interesa dutela adierazi bada.

e) **Erabilera tertziarioak. Ostalaritza, turismo-ostatuak eta aterpetxeak** biltzen ditu. Erabilera tertziarioak aplikagarria den araudi sektorialaren arabera ezarriko dira.

Ondorioz, proposatutako erabilerara bideratutako eraikuntzak onargarriak izan daitezke landazabal kategorian, beti ere haien balizko **“gizarte interesa edo interes publikoa”** aitortzen bada.

Gainera, eremua Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE-ZEC) kokatzen da eta ondorioz, proiektuaren interes publikoa aitortuko balitz ere, haren antolamendurako Plan Berezia eta dagokion Ingurumen Azterketa Estrategikoa izapidetu beharko lirateke, erabilera berriek Natura 2000 Sareari eragin diezaiokeen inpaktua baloratzeko eta konpentsazio-neurriak ezartzeko.

Aldiz, plangintzaren izapidearen une honetan, eta eskatzaileak bere idatzian eskaintako azalpen zein xehetasun eskasen aurrean, ezinezkoa egiten zaigu proposamenak izan dezakeen gizarte interesaren inguruko ebazpenik ematea.

- c) Jasotako ekarpenen balorazio orokorraren atalean aztertu da jada eskatzaileak *Baztarrika* baserriaren eremuan egiten duen garapen proposamena eta, esan bezala, aurkeztutako proiektua koherentea da Aurrerapen agiriak ezarritako lurralde ereduaren helburu eta irizpideekin, lehen sektorearen sustapena baita proposatzen den herri-proiektuaren zutabeetako bat.

Horrela, aurkeztutako proiektuak nekazal- eta abeltzain-produktuak zein lanabesak biltegitartzeko, hozkailuei esker kontserbatzeko, produktuak eraldatzeko, eta erakusketa zein salmentarako beharrezkoak diren azpiegiturak proposatzen ditu besteren artean, eta horretarako errepidearen bi alboetan kokatutako eraikuntza berriak edota *Baztarrika* baserriaren berriztatzea aurreikusten dira.

Bada, *Baztarrika* baserria bera eta haren lursaila (GI-2120 errepidearen ekialdera kokatzen den guztia alegia) ingurumen alorreko baldintzatzaile ezberdinen menpe dago:

- Aralarko Parke Naturalaren barnean kokatzen da.
- Natura 2000 Sarearen parte da.
- *Batasuneko Intereseko Habitata [6510] : Larratu gabeko sega-belardi atlantiarra* delakoan kokatzen da.

Bada, 146/2004 DEKRETUA delakoaren arabera, eremua Landazabal barrutia kategorian txertatzen da eta araudiak zera dio proposatutako erabileren inguruan:

16. atala.– *Eraikuntza eta azpiegitura iharduerak.*

B.– ARAUAK.

11.– *Egun dauden eraikuntzetan egin beharreko edozein ihardueratarako, udalerri eskuduneko ordezkoko arauak aginduko dute, eta beharrezkoa izango da parkearen kudeaketarako organo arduradunaren onespena.*

14.– *«Landazabal» eta «hirilur eta azpiegitura» barrutietan soilik baimentzen da kutsatzaileak ez diren industriak ezartzea, betiere dagozkien arau subsidiarioetan ezartzen denaren arabera. Proiektuek Parkearen Organo Kudeatzailearen baimena izan beharko dute, ondorio horretarako plan berezi bat tramitatu eta onartuta dutenean salbu. Plan bereziak, hala badagokio, Aralarko Parke Naturalaren Patronatuaren aldeko iritzia jaso beharko du hasierako onespeneren aurretik.*

29. atala.– *Landazabal barrutiak.*

D.– ARAUA.

1.– *Zona hauetan aplikatu behar den arautegia, ukituriko udalerri bakoitzeko ordezkoko arauetan jasotzen dena izango da.*

Eta, berriro ere, udalerriko Plan Orokorra EAEko NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA delakoari lotu behar zaio baina, kasu honetan, zailtasunak ageri dira proposatutako erabilera anitzak aipatu plan sektorialak aurreikusitakoen artean kokatzeko.

Horrela, aurkeztutako proiektua 3. ATALA: LEHEN SEKTOREKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUERAK ETA LURZORUAREN ERABILERAK, delakoan koka daiteke; horrela dio:

28. artikulua.- Nekazaritza.

3.- *Nekazaritzako ustiaguneekin zerikusia duten eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak dira:*

a) *Nekazaritzako jarduerekin zuzeneko lotura duten eraikuntza eta instalazioak: Nekazaritzako ekoizpenari laguntzeko egiten diren eraikuntzak eta instalazioak:*

- *Tresnak eta produktuak kontserbatzea eta biltegitratzea.*
- *Nekazaritzako produktuak lehortzea, ateratzea eta sailkatzea.*
- *Pentsuen ekoizpena, frutaren eta landareen egokitzapena.*
- *Ureztapen-nekazaritzarako obrak eta instalazioak, ureztatze-putzuak barne.*

- *Terrazak: zapaldak eraikitzea, haiek higatze-prozesuak saihesteko edo minimizatzeko egiten badira, eta landaredi naturalak estalitako zonetan eraginik ez badute.*
- *Nekazaritzako produktuak biltzeko eremuak.*
- *Berotegiak.*
- *Basozaintzako, nekazaritzako, landare apaingarritako eta loreetako mintegiak.*

b) *Nekazaritzako produktuen lehenbiziko transformazioan laguntzeko instalazioak eta eraikuntzak:*

- ***Landare-kontserben, marmeladen eta konfituren produkzioa.***
- *Sagardoa egiteko dolareak eta ardoa eta txakolina egiteko upategiak.*

c) *Nekazaritzako ustiagunearen jarduera osagarriak garatzeko eraikuntzak eta instalazioak: Jarduera osagarriak dira ustiagunean nekazaritzako jarduera nagusiaren osagarri egiten diren jarduerak, besteak beste:*

- ***Ustiaguneko produktuen transformazioa eta zuzeneko salmenta.***
- ***Ustiagunean bertan ateratako nekazaritzako produktuak dastatzea.***
- *Bertako produktuen artisautzako tailerrak (saskigintza, zeramikagintza, zurgintza, ogi-labeak, eta abar).*
- *Nekazaritza-turismoa (turismoko ostatu-zerbitzuak nekazaritzako ustiagunean).*
- *Aisialdiarekin, ondo pasatzearekin eta natura eta ingurune naturala erakustearekin zerikusia duten jolas-jarduerak (landa-inguruko hipikak, ume-parkeak, animalien bertako arrazen eta landareen erakusketak, etnografiako bildumak, eta abar).*

Beraz, proposatutako erabilerak (eta beste zenbait) onargarriak izan litezke beti ere “nekazaritzako ustiaguneekin zerikusia” badute. Baina egun, dakigunez, *Baztarrika* baserrian eta haren eremuan ez dago inolako nekazal ustiagunerik, ezta aurkeztutako idatzian aipatutako sagastiaren arrastorik ere eta, nabarmena den bezala, sagasti bat ez da egun batetik bestera bere ekoizpena ematen hasiko.

Beraz, proiektuaren garapenak funtsezkotzat dituen zenbait erabilera, hala nola, ustiaguneko produktuen dastaketa, zuzeneko salmenta eta beste zenbait ezingo lirateke baimendu eta proiektuaren gizarte interesa edo interes publikoa aitortzeak soilik berma dezake, gure ustez, haren legezkotasuna.

Aldiz, GI-2120 errepidearen mendebaldera kokatzen den lur eremua ere baldintzatzaile ezberdinen menpe dago; hala nola:

- *Agrologiako balio altua duten lurak dira.*

- *Batasuneko Intereseko Habitata [6510] : Larratu gabeko sega-belardi atlantiarra* delakoan kokatzen da.
- *[91E0*]: Ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarra* lehentasunezko habitata izendatua dago.
- 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuan dago.

Nolanahi ere, lursail honetan proposatutako erabilerak onargarriak dira, beti ere, arestian aipatu lehentasunezko habitata errespetatzen bada. Bide batez, proiektua Arrondo eta Arinberriaga auzoen artean oinezkoen eta bizikleten bide berria burutzeko baliatu beharko litzateke.

- d) “Bidegorri” berriarentzat proposatzen den trazadura alternatiboak *Bittor* jatetxearen lursailari eraginak ekiditea du helburu, beste arrazoibiderik gabe.

Horren harira, adierazi dugu balorazio honen a) atalean ere, guztiz funtsezkoa dela gure iritziz kiroldegi ondoko Espazio Libreen Sistema Orokorra eta, *Aitzarte* erreka ertzetik, Elbarrenako hirigunea lotzeko proposatu den oinezkoen ardatza, azkenean “bidegorria” errepidearen ertzetik eramateko erabakia hartzen bada ere.

5. Iradokizuna

Aurkeztutako idatziaren mamiari heldu aurretik, adierazi behar dugu Aurrerapen agiriari ez zaizkiola “alegazioak” egiten, “iradokizunak” baizik, *2/2006 Legea, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa*, delakoaren 90.3 artikulua eta martxoaren 24ko *46/2020 Dekretua, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena*, delakoaren 26.5 artikuluan xedatutakoaren arabera. Nolanahi ere, aurkeztutako idatziaren eskaera edo proposamenak banan bana baloratuko dira ondoren.

- 1) Aurrerapen agiriak Ataungo udalerrirako proposatzen duen herri-proiektuan zein lurralde ereduan basogintzak duen garrantzia nabarmena da eta horrela jasotzen da agiriaren hainbat ataletan; adibidez:

A4. ESKU-HARTZE HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK

A4.1 INGURUMEN ETA INGURUNE FISIKOAREN ALDERDIAK

4) Nekazaritza eta baso lurzoruen babes eta birsorkuntza.

- *Baso autoktono eta nekazaritza lurzoruak babestu eta indartu.*
- *Kudeaketa jasangarri bidez **ustiapen intentsiborako egokiak diren baso-lurzoruak mugatu eta arautu**, bereziki udal jabetzakoak diren lursailen kasuan, haien inbentarioa eginez eta kudeaketa plana garatuz.*

- *Nekazal eta baso-lurzoruen ziklo naturalen ingurumen kalitatea zaindu, baita bere inguru ekologikoena ere.*

A4.5 JARDUERA EKONOMIKOAK

*Esan bezala, Ataungo ehun produktiboak potentzialtasun mugatua du baina tokiko nekazaritza-abeltzaintza edota **basogintza ustiapenak**, eta ingurumen- zein kultura-ondarean oinarritutako turismo jarduerak herri-nortasun berritu baten ardatza izan daitezke, beti ere, iraunkortasun paradigma oinarri hartuta.*

*15) **Basogintza** eta landa-abeltzaintzaren babesa eta sustapena.*

- ***Basogintza jarduera eta lehen eraldatzea sustatu**, bai zerrategiei bai udalerriko ahalmen handiko energia berriztagarriei (biomasa, ura..) lotutako jarduera berriei dagokionean.*

Beraz, uste dugu Aurrerapen agiriak eta hark irudikatzen duen antolamenduak jasotzen duela eta bere egiten duela *EAEko NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA* delakoak basogintzaren alorrean ezartzen dituen helburu orokorrak.

Besterik da udalerri mailako hirigintza plangintzak hierarkian gorago dauden antolamendu-tresna guztiak hitzez hitz jaso behar ote dituen, eta erantzuna ezezko garbia da gure ustez, are gutxiago araudiaren irakurketa partzial eta interesatua egin behar badu, eskatzaileak galdegiten duen bezala.

Izan ere, Aurrerapen agiriak berak aitortzen baitu aipatu plan sektoriala, maila bereko antolamendu-tresna guztiak bezala, loteslea dela bere xedapenetan eta, ondorioz, haren helburu eta irizpideak berez daude txertatuak udalerri mailako plangintzan, baldin eta honek haien aurka doan ezer jasotzen ez badu behintzat. Bada, Aurrerapen agiriak ez du halako ohartarazpenik jaso erakundeei egindako kontsulten erantzunetan.

Beraz, kasu honetan, iradokizuna aintzat ez hartzea proposatzen da.

- 2) Aurrerapen agiriak, *A1.5 PROIEKTUA BURUTZEKO MARKO OROKORRA* atalean, zera adierazten du: *“Ataungo Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren idazketa eta izapidetze lanei, Aurrerapen dokumentu hau barne, izaera, ezaugarri, arau maila... ezberdineko xedapen, dokumentu eta proiektuek osatutako marko konplexu batetan ekiten zaie. **Une honetan, xedapen, dokumentu eta proiektu hauen adierazle moduan, honakoak aipatu behar dira:**”.*

Ondorioz, ulertu behar da Aurrerapenaren aipatu ataleko lege- eta arau-markoaren zerrenda, agiriak berak aurrerago adierazten duen bezala, *“**plangintza eta agirien lagin gisa eta beraien zerrenda itxi eta osatua eskaintzeko asmorik gabe**”* jasotzen dela.

Nolanahi ere, aipatu zerrendak berak dio:

3.- *Ataungo udalerriarekiko eragina kontutan harturik, ondorengo lurralde-antolaketa tresnak aipatzea legoke:*

- *EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPS (2014eko irailaren 16a).*

Beraz, aurkeztutako idatziak aitortzen duen bezala, baso-erabileraren erregulazioa foru arauari esleitzen dien antolaketa tresna jasota dago jada Aurrerapen agiriaren lege- eta arau-markoan eta, ondorioz, urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA delakoaren izaera loteslea ere aitortua dago inplizituki. Hala ere, ez da arazorik ikusten foru arauaren eskumenak plangintza orokorrean esplizituki jasotzeko.

Baina aipatu behar da baso-erabilera babestutako natur-guneetan ere ematen dela, eta kasu horietan eremu horiek kudeatzeko indarrean dagoen araudia hartu behar dela kontuan: Aralar Parke Naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremua, Oria Garaia KBE etab. Bestalde, baso-lurzoruak mugatu eta arautzeko eskumena udal jabetzakoak direnean soilik dagokio hirigintza plangintzari eta aitortu behar dugu Aurrerapen agiriko ondorengo atalak nahasmena sor dezakeela:

A4. ESKU-HARTZE HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK

A4.1 INGURUMEN ETA INGURUNE FISIKOAREN ALDERDIAK

4) *Nekazaritza eta baso lurzoruen babes eta birsorkuntza.*

- *Kudeaketa jasangarri bidez **ustiapen intentsiborako egokiak diren baso-lurzoruak mugatu eta arautu, bereziki udal jabetzakoak diren lursailen kasuan, haien inbentarioa eginez eta kudeaketa plana garatuz.***

Bada, iradokizuna ontzat ematea eta arestian jasotako pasartea zentzu horretan aldatzea proposatzen da, hori baita Aurrerapen agiriaren benetako helburua. Edozein kasutan, garrantzitsua dirudi alor honetan Udalarenak diren eskumenak zehatz mehatz adieraztea. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2007ko uztaillean argitaratutako **“Natur ingurunean udalek dituzten eskumenen gida”** hartuko da aintza, zeinak hitzez hitz adierazten duen:

E. Udal-eskumenak mendiei dagokionez

Udalek mendien inguruan dituzten eskumenak, oinarrizko legezko araudiaren arabera, ondokoak dira:

- 1. Udala titularra den mendien kudeaketa, Erabilera Publikoko Mendien Katalogoan ez daudenetan.*
- 2. Udala titularra den sailkatutako mendien kudeaketa, dagokion baso araudian hala ezartzen denean.*

3. *Udalaren titulartasuneko baso ustiapen guztien errendimendu ekonomikoaren disposizioa, xedatutakoaren kalterako izan gabe sailkatutako mendien hobetze funtsarekin erlazionatuta, edo, bere kasuan, dagokion baso araudian xedatutakoaren kalterako izan gabe.*

Sailkatutako mendien titularrak diren udal entitateek hobetze funtsa batean arauz zehaztutako zenbatekoa ipini beharko dute. Funtsaren helburua Erabilera Publikoko Mendien Katalogoan dauden mendiak hobetzea eta zaintzea da. Ipini beharreko zenbatekoa ez da baso ustiapenen balioaren edo mendian garatutako beste jarduera edo okupazioekin ateratako etekinen % 15 baino gutxiago izango.

Aipatutako funtsa foru baso organoak kudea dezake, edo horrek udal entitate titularrari eman diezaioke ardura.

4. *Nahitaezko txostenen igortzea, Erabilera Publikoko Mendien Katalogoan dauden eta bere titulartasuna duten mendien kudeaketa tresnak sortzeko prozesuan.*

5. *Mendien oinarrizko arauetan aurreikusitako bestelako nahitaezko txostenen igortzea, bere titulartasuneko mendien inguruan.*

6. *Lege honen gai xedean, espresuki ematen dizkion bestelakoak, dagokion baso araudiak edo aplikagarriak diren bestelako legeak. Hala nola, BBAPak egiteko orduan udal entitateak kontsultatu behar dira. Era berean, udal ordenantzak eman ditzakete bere titulartasuneko mendien erabilera eta ustialekuak erregulatzeko, betiere, mendiei buruzko araudi orokorrean xedatzen dena errespetatzen badute.*

Modu horretan aurkeztutako iradokizunari erantzuten zaiola deritzogu.

- 3) *Aurkeztutako idatziak egiten duen eskaera Haserako Agiri Estrategikoari egiten dio erreferentzia eta ez du Aurrerapen Agiria aipatzen. Ez dakigu eskatzailearen omisio kontzientea dena baina, edozein kasutan, Aurrerapenak ondorengo aipamenak egiten ditu gai honen inguruan:*

A4. ESKU-HARTZE HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK

A4.0 ALDERDI OROKORRAK

1. Garapen jasangarria.

a) ingurumen eta ekologia jasangarria:

- baliabide naturalen ustiapen eraginkorra, eraginkortasun energetikoaren sustapena, energia berriztagarrien erabilera eta ekonomia zirkularra (gutxitu-berrerabili- birziklatu), hondakinen ekoizpena murriztuz;*

A4.5 JARDUERA EKONOMIKOAK

15) Basogintza eta landa-abeltzaintzaren babesa eta sustapena.

- *Basogintza jarduera eta lehen eraldatzea sustatu, bai zerrategiei bai udalerriko ahalmen handiko energia berriztagarriei (biomasa, ura..) lotutako jarduera berriei dagokionean.*

A4.8 AZPIEGITURAK ETA ZERBITZU SAREAK

27) Energia berriztagarrien hedapena sustatu.

- *Gas hornikuntzaren sarea hedatzeari uko egin gabe, energia berriztagarrien (fotovoltaikoa, eolikoa, hidroelektrikoa, biomasa...) instalakuntzek sor ditzaketen eskakizunak aurreikusi, adibidez, auzo berogailu sistema zentralizatuak edo “district heating” deritzonak.*

Beraz, Aurrerapen agiriak jada eskaerari erantzuten diola deritzogu; aldiz, Haserako Agiri Estrategikoari dagokionez, zera dio zehazki gai honen inguruan:

2.3 IRIZPIDE ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK

2.3.1 INGURUMEN ETA INGURUNE FISIKOAREN ALDERDIKO HELBURUAK

4) *Nekazaritza eta baso lurzoruen babes eta birsorkuntza: baso autoktono eta nekazaritza lurzoruak babestu eta indartu, eta **baso-ustiapenen kudeaketa jasangarria bermatu.***

Gure ustez, Haserako Agiri Estrategikoan gaiari egiten zaion erreferentzia nahikoa da, baina besterik da baso-kudeaketa jasangarriaren inguruan egon daitezkeen iritzi eta definizio ezberdin eta askotan kontrajarriak.

Zentzu horretan, iradokizun berberaren aurreko atalean ebatzi dugu jada, *EAEko NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA* delakoaren arabera, urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA delakoari dagokiola basogintza erabileraren erregulazioa eta beraz, ez da udal plangintzaren zeregina baso-kudeaketa jasangarriaren definizioa zehaztea.

Bestalde, biomasaren (edota beste energia berriztagarrien) erabilerak ingurumenen duen eragina aldekoa edo aurkakoa izan daiteke, hura nola burutzen den funtsezkoa baita. Ondorioz, energia berriztagarrien erabilera sustatzea, zehazki baso biomasarena, ezin dugu modu orokorrean Haserako Agiri Estrategikoaren helburutzat hartu, izatekotan, helburu sozioekonomikoen artean kokatzen delako, Aurrerapen agiriak egiten duen bezala.

- 4) EAEko Flora Aloktono Inbaditzailearen Diagnosian udalerria dagoen UTM laukietan hainbat espezie aloktonoren aipamenak jasotzen dira. Horietatik batzuk A kategoriakoak dira, hau da, inbaditzaile eraldakorrak, arriskutsuenak biodibertsitaterengan eragiten duten presioa dela eta. Horien artean, *Robinia pseudoacacia* (sasi-arkazia) azaltzen da, baso misto hezeetan harizti azidofiloen ordeztatuak hedatzen dena.

Espainiako Espezie Aloktono Inbaditzaile Landareen Atlasak *Robinio pseudoacaciari* buruz, honakoa dio: “*Aparece naturalizada en muchos lugares de la Península, habitando en taludes y cunetas, orillas de pistas, bosques de ribera y en menor medida en otros biotopos naturales y seminaturales. Localmente forma colonias con numerosos individuos que desplazan a las especies forestales autóctonas, (...). Tendencia demográfica expansiva. (...) Es invasora en buena parte de las regiones templadas del mundo. Está extensamente naturalizada en el sur y centro de Europa (...). Por sus atributos ecosfisiológicos, es muy peligrosa para los ecosistemas naturales, sobre todo forestales, invadiendo claros de bosques, y provocando el desplazamiento de la flora autóctona. Su rápido crecimiento y su facilidad para emitir brotes de raíz la hacen muy difícil de eliminar. En España, es muy problemática en la Cornisa Cantábrica (...). Debe evitarse su empleo con fines forestales (...)*”.

B1 kategoriakoen, hau da, habitat natural eta erdi-naturaletako bertakotutako espezie aloktono inbaditzaileen artean, aipagarrienak dira: *Acacia dealbata*, mimosa izenez ezagutzen dena, baso sailetan eta harizti oligotrofoetako mugetan basati bihurtutakoa; eta *Platanus hispanica*, astigar zuria, legardi, ibaiertza eta ezponda hezeetan agertzen dena.

Eukalptoari dagokionez, Espainiako Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioaren Flora eta Fauna basatien Batzorde Zientifikoaren CC30/2017 ebazpenak haxe dio: “*Constatado con los datos científicos disponibles el carácter invasor de las especies de Eucalyptus naturalizadas en nuestro país, se concluye que se debería incluir en el Catálogo de Especies Exóticas Invasoras regulado por el R.D. 630/2013, de 2 de agosto, bajo el criterio de la IUCN (2000), a todas estas especies: Eucalyptus camaldulensis, E. globulus, E. gomphocephala, E. gunnii, E. nitens y E. sideroxylon, así como cualquier otra especie de este género cuyo destino sea la explotación forestal, debido al alto riesgo de invasión por estas especies consecuencia de sus características biológicas, fisiológicas y ecológicas. Se recomienda extremar la precaución con nuevas introducciones y plantaciones, y se recomienda un seguimiento local y llevar a cabo medidas de erradicación antes de que se produzca la invasión siempre que se observe naturalización de cualquier especie de Eucalyptos en nuestro territorio*”.

Batzorde Zientifikoaren CC30/2017 ebazpena aintzat hartuz, *Eucalyptus* espeziea inoiz espezie inbaditzaile izendatua bada, HAPOak ezarritako baldintzetan haren landaketa guztiz debekatua geratuko litzateke.

4. IRISMEN AGIRIA

Esan bezala, ingurumen-ebaluazioaren Hasierako Agiri Estrategikoa Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapenarekin batera onartu zuen Ataungo Udalbatzarrak, 2024ko uztailaren 22an egindako bilkuran, eta uztailaren 24an igorri zion ingurumen-organoari, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jasangarritasun Departamentuko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari planaren Irismen Dokumentua egiteko eskaera.

Ingurumen-organoak 2024ko azaroaren 11ean eman zuen *ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN DOKUMENTUA*, Ingurumen Administrazioko zuzendari nagusiak sinatua.

Ingurumen Administrazioko Zuzendaritzak legeak aurreikusitako kontsulten izapidea egin zien eragindako administrazioei eta publiko interesdunari, eta erantzunak bidaltzeko epea amaitu ondoren, ondorengoak jaso dira (ordena kronologikoan):

- Uraren Euskal Agentzia (URA) (2024/08/09), jakinarazten du Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari helarazi diola kontsulta.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza (2024/09/01).
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Departamentua (2024/09/05)
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza (2024/09/10).
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza (2024/09/23).
- Uraren Euskal Agentzia (URA). Plangintza eta Obra Zuzendaritza (2024/11/14).

ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN DOKUMENTUA.

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan eta II. A) eranskinean xedatutakoaren arabera, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek (HAPO) ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura bete behar dute nahitaez.

Ildo horretan, Ataungo Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra izapidetzeko prozesuari ekin dio, eta, beraz, Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 18. artikulua aplikatuz, plan horren irismen dokumentua egiteko eskatu zion Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari 2024ko uztailaren 24an.

Horri dagokionez, Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen alderdiak planen eta programen prestaketan integratzeko, ingurumen organoak irismen dokumentu bat prestatu behar du, ingurumen azterketa estrategikoak izan behar duen zabaltasun, xehetasun eta zehaztasun maila mugatzeko, betiere ukituriko administrazioei eta herritar interesdunei kontsulta egin ondoren.

Beraz, 10/2021 Legearen 62. artikulua aplikatuz eta Jasangarritasun Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urriaren 1eko 29/2024 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusi honek Ataungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren irismenari buruzko dokumentu hau egin du.

1.- ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN EREDUA ETA AUKERAK

Ataungo Udalak ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurari ekiteko bidalitako dokumentazioaren artean jasotzen dira aurrerapen dokumentu bat, hasierako dokumentu estrategikoa eta agiri horietako bakoitzari dagozkion planoak.

Aurrerapenak diagnostiko teknikoaren eta udalak antolatutako partaidetza prozesuan lortutako emaitzen laburpena egiten du. Jarraian, gaur egun indarrean dagoen antolamenduaren garapen maila analizatzen du, eta antolamenduaren helburu orokorrak ezartzen. Azkenik, bizitegi ahalmena kalkulatzeko, eta antolamendu aukerak deskribatzen eta aztertzen ditu, bai lurzoru urbanizaezinean, bai hiri lurzoruan eta urbanizagarrian.

1.1. Plan Orokorren helburuak

Hauek dira, laburbilduz, Ataungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiteko proposatutako helburuak:

A. Ingurune fisikoa

- Biodibertsitatea eta naturaguneak babestea eta zaintzea.
- Ibai sarea babestea eta zaintzea.
- Arrisku naturalei aurrea hartzea.
- Nekazaritzako eta basogintzako lurrak babestea eta lehengoratzea.

- Paisaia berroneratzea eta babestea.
- Herritarren sentsibilizazioa eta ingurunearen ustiapen jasangarria sustatzea.

B. Landaguneak

- Baserriaren tipologia tradizionala berreskuratzea eta babestea.
- Azpiegitura eta zerbitzuetako zuzkidura egokiak ematea.

C. Hiri eremuak

- Kokaguneen sistema hierarkizatu eta nukleo anitzekoari eustea.
- Kokaguneen sistema artikulatzea Elbarrena eta San Gregorio arteko bizikleta bidearen bidez.
- Hiri paisaiaren ezaugarriak babestea.

D. Bizitegi lurzorua

- Udalaren bizitegi ahalmena berrikustea.
- Etxebizitza duina izateko eskubidea babestea.
- Etxebizitza parkearen jasangarritasuna bultzatzea.

E. Jarduera ekonomikoak

- Basogintza eta abeltzaintza sustatzea eta babestea.
- Industria jarduerari eustea.
- Zerbitzuen sektorea garatzea.

F. Ekipamendu eta espazio publikoak

- Ekipamendu zuzkidura mantentzea eta garatzea.
- Espazio publikoen hiri kalitatea hobetzea.

G. Garraioa eta mugikortasuna

- Mugikortasun jasangarria sustatzea.
- Ibilgailu pribatua modu eraginkorrean integratzea.
- Landa bideen sarea mantentzea eta garatzea.

H. Azpiegiturak eta zerbitzu sareak.

- Edateko ura hornitzeko sarea eta saneamendua hobetzea.
- Argiteria publikoari jasangarritasun irizpideak aplikatzea.
- Telekomunikazio sistemarako sarbidea ziurtatzea.
- Energia berriztagarrien hedapena sustatzea.

I. Ondarea

- Ondare arkeologikoa eta eraikia kontserbatzea eta balioestea.
- Ondare immateriala kontserbatzea eta zaintzea.

Helburu horiek oinarri hartuta, aurrerapen dokumentuak lau aukera proposatzen ditu ingurune fisikoarekin eta hiri ingurunearekin loturiko alderdietarako. Horietako bakoitzaren kasuan,

aztertutako lehen alternatiba 0. aukera da, eta bat dator 2005ean behin betiko onetsitako Arau Subsidiarioetan eta 2006ko eta 2009ko aldaketa puntualetan ezarritako antolamenduarekin, nahiz eta ez den inoiz egiten haren alde. Bestalde, hasierako dokumentu estrategikoak aurreikusitako aukeren alde aurreko ingurumen azterketa egiten du, eta adierazten du zeintzuk diren ingurumenaren aldetik onuragarriak. Nolanahi ere, kontuan hartzekoa da aurrerapen dokumentuan Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak ez duela egiten haien alde behin betiko, eta izapidearen ondorengo une batera atzeratzen duela erabakia.

1.2 Hiri lurzorurako eta lurzoru urbanizagarriko aukerak eta haien ingurumen azterketa.

0. aukera ez dago 2/2006 Legera egokituta, ezta arau subsidiarioak onetsi ondoren indarrean jarri den eskualde eta sektore plangintzara ere. Okupatutako hiri lurzoruaren azalera 253.701 m²-koa izango litzateke. Aurreikusitako etxebizitzak 112 dira guztira, zuzkidura jarduketak kenduta (91 etxebizitza); hau da, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek ezarritako gehienekoa baino 66 gutxiago. Nolanahi ere, gaur egun indarrean dauden arauen bizitegi proposamenak ez dirudi oso justifikagarria, eduki duen garapena ikusita —hasieran aurreikusitako 364 etxebizitzetatik 115 bakarrik eraiki dira, eta horietatik 2 bakarrik azken 14 urteetan—. Jarduera ekonomikoei dagokienez, bi eremu bereizten dira: batetik, AU 1 Zubikoeta, dagoeneko garatuta dagoen hiri lurzoru finkatua, eta, bestetik, AU 2 Ajarresta, lurzoru urbanizagarria. Gainera, azalera gehiago proposatu da zuzkidura publikoetarako (1.770 m²) eta ibai ibilguetarako (635 m²).

Proposatutako beste 3 aukeren ezaugarri orokorrei dagokienez, hauek dira labur-labur:

- *Okupatutako hiri lurzoruaren azalera.* Guztietan da 0. aukeran jasotakoa baino handiagoa. 1. aukerak 283.691 m² okupatzea proposatzen du, 2. aukerak 313.092 m², eta 3. aukerak, azkenik, 286.821 m².
- *Jarduera ekonomikoen garapenak.* 1. eta 3. aukeretan, desklasifikatu egin da 0. aukeran proposatutako AUI 2 Ajarresta, eta lurzoru urbanizaezin bihurtzen da. 2. aukeran, 0. aukeran aurreikusitako industria erabilera aldatzen da, eta adinekoen zaintza integralerako ekipamendu publikora bideratzen.
- *Bizitegi garapenak.* 1. aukeran, jarduketa integratuak —hau da, bizitegi ahalmena definitzeko kontuan hartzen direnak— 153 etxebizitza dira guztira; hau da, 0. aukeran baino 41 etxebizitza gehiago; zuzkidura jarduketek, berriz, 22 gutxiago dituzte, eta 69 etxebizitza geratzen dira. 2. aukerak 155 etxebizitza biltzen ditu jarduketa integratuetan —hau da, 1. aukeran baino 2 gehiago— eta 91 zuzkidura jarduketetan; 1. aukeran baino gehiago baina 0. aukeran bezainbeste. 3. aukeran, jarduketa integratuko etxebizitzak ugaritzen dira berriro, 169 izatera iritsi arte, eta zuzkidurakoek 91 izaten jarraitzen dute.

Aukerak eremuka txertatzen dituzten **bizitegi erabileren proposamenei** dagokienez, funtsean hauek dira:

- *Elbarrena herriguneko ekialdea.* Azalerak zertxobait behera egiten badu ere aurkeztutako 3 aukeretan (76.281 m²) 0. aukerarekin alderatuta (78.846 m²), garapen proposamenak oso antzekoak dira eremuaren zati handiengan, eta, aldaketa batzuk gorabehera, 0. aukeran jasotakoei jarraitzen zaie, zeinak garatu gabe baitaude oraindik. Badira desberdintasun batzuk Aitzarterreka inguruan (AIU 13) 0. aukerarekin alderatuta; izan ere, beste hirurek murriztu egiten dute bizitegi erabileretarako azalera eta dentsitatea, berriz, handitu. Bizitegi proposamen osoa 117 etxebizitzakoa da 1. aukeran; 2. aukeran 111 dira, eta 3. aukeran, azkenik, 121. Adinekoen zaintza integralerako ekipamenduari dagokionez, 2. aukeran AUI 2 Ajarrestan kokatzen da, 1. eta 3. aukeretan, berriz, eremu horretan kokatzen dira, baina jarduketa integratuko area banatan (1. aukeran AIU 11n, eta 3. aukeran, berriz, AIU 13n). Bestalde, 1. aukeran, ekipamendu horren bideragarritasuna bermatze aldera, indarrean

dagoen AIU 13aren bizitegi garapena indartzen da; hala, haren tipologia aldatu eta 32 etxebizitza antolatzen dira, besteak beste, etxebizitzak AIU 11n birkokatzeko. Bestalde, 2. aukeran, 0. aukeraren proposamenari eusten zaio, AIU 13n izan ezik. Kasu horretan, bizitegi eskaintza 24tik 8ra murrizten da, aprobetxamenduaren zatirik handiena merkataritza jarduerara bideratzeko. Azkenik, 3. aukeran, AIU 8ko bizitegi zuzkidura 60 etxebizitzara handitzen da.

- *Astigarraga herrigunea.* Gune horren hiri lurzorua azalera handitu egiten da, 0. aukerako 41.003 m²-tik 1. eta 3. aukeretakoa 66.837 m²-ra, nahiz eta zati bat (10.000 m² inguru) espazio libreen sistema orokor berri batera bideratzen den, Elbarreneko nukleoa "harrotzen" dela bermatzeko. Eremu horretan eta aurrekoan biltzen ditu Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak bizitegi garapen handienak. Hori horrela, 1. aukeran, "garapen txikiko" 48 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusten da, nahiz eta 7 etxebizitzak birkokatzeko erabili. 2. eta 3. aukeretan, 1. aukeran ezarritako gidalerroei eutsi zaie, baina bizitegi eskaintza handituz joan da; izan ere, 2. aukeran tipologia irekiko 72 etxebizitza izatetik 3. aukeran tipologia irekiko 84 etxebizitza izatera igaro da.
- *Arrondo herrigunea.* Proiektuaren helburu nagusia da herri ardatz bat eratzea (bidegorria), errepidearekiko paraleloan, Elbarrena eta San Gregorio lotzeko. Dentsitate txikiko 14 etxebizitza daude 0. aukeraren bi aldeetan sakabanatuta, eta 3 aukera berrietan 16 zuzkidura jarduketa aurreikusten dira, baina dentsitate handiagokoak, etxebizitza guztiak bi eraikinetan kokatuta.
- *San Gregorio herrigunea.* Plan horren azken zatia finkatutzat jotzen da 3 aukeretan, eta egungo Arau Subsidiarioetan planifikatutako zuzkidura jarduketan 7 etxebizitzak baino ez dira aurreikusten. Era berean, Agauntza ibaiaren ertzean espazio libreen sistema orokor gisa sailkatzen dira 1.868 m². Hirigunearen mendealdeari dagokionez, 1. aukeran, gaur egungo Arau Subsidiarioetan aurreikusitako 19 etxebizitzei eutsiko zaie, eta 8 etxebizitza berri gehituko zaizkie; 2. eta 3. aukeretan, berriz, hiri lurzoru haztea proposatzen da, Lauzti erreken errepidearen abiotik aurrera. Ondorioz, area horren azalera 0. aukeran 18.833 m² izatetik 2. aukeran 34.76 m² izatera igarotzen da, edo 3. aukeran 31.624 m² izatera. Horrekin batera, 2. aukeran jarduketa integratuko garapen txikiko 10 etxebizitza berri proposatzen dira, auzorako 7.552 m² espazio libre eta 1.596 m² aparkaleku lortzeko.
- *Aia herrigunea.* 1. aukeran, 6 zuzkidura etxebizitzei eusten zaie, baina 0. aukeran aurreikusitako jarduketa integratuko 8 etxebizitzetatik 4 jarduera ekonomikoekin ordezkatzeko. 2. aukeran, AIU 24 unitatea kentzen da, eta, beraz, eremuaren azalera 6.709 m²-tik 2.758 m²-ra igarotzen da. Era berean, eremua egungo egoeran finkatzen da, zuzkidura jarduketarako aurreikusitako 6 etxebizitzak barne. 3. aukeran, eremuaren 0. eta 1. aukeren mugaketari eusten zaio, baina landagune gisa kalifikatzea proposatzen da, plan berezi baten bidez mugatuz.

Azkenik, Elbarrena eta San Gregorio auzoak lotzen dituen **bizikleta eta oinezko bidearen proposamenari** dagokionez, bi zati bereiz daitezke, trazadura erabat zehaztu gabe dagoen arren:

- Elbarrena herrigunearen ekialdearen eta Arrondo artean, GI-2120 errepidearen paraleloan dagoen hiri lurzurutik barrena igaroko da, baina, Astigarraga herrigunearen kasuan, hiri eremua zeharkatzeko du eta bizitegi garapenei atxikiko zaie jarduketa integratuetan.
- Arrondo eta San Gregorio herrigunearen ekialdearen artean ere errepidearen paraleloan joango da, baina lurzoru urbanizaezinetik, Arinberriagan izan ezik.

Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, oso egokia da bizikleta bidea errepidearen parean trazatzea inpakturik ez izateko, gutxitu egingo baitu lurzorua artifizializazioa. Hala ere, errepidearen egungo egoera kontuan hartuta, bidearen erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko, zabaldu egin beharko da bidea 2 km inguruko luzeran. Hasierako dokumentu estrategikoak

izapidetzearen ondorengo faseetara atzeratzen da analisi sakonagoa, baina trazadura Aralarko Parke Naturalaren eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren mugan badago ere, printzipioz ez du izango eragin nabarmenik intereseko elementu naturaletan.

Bestalde, hasierako dokumentu estrategikoak aldez aurreko azterketa bat egiten du proposatutako aukerek area guztietan izan dezaketen ingurumen inpaktuaz. Hauek dira ondorio aipagarrienak:

- *AIU 2 Ajarresta.* 1. eta 3. aukeretan planteatutako desklasifikazioak ezabatu egingo lituzke indarrean dagoen 0. aukerarekin arlo horretan gertatuko ziren inpaktuak. 2. aukerari dagokionez, ekipamenduen erabilerarako bada ere, haren inpaktua, hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, ez da 0. aukerak jasotzen duenaren oso bestelakoa, eta ez du detektatzen, inola ere, inpaktu larririk.
- *Elbarrena herriguneko ekialdea.* Ingurumen analisiaren arabera, aukerarik onena 1.a izango litzateke; izan ere, beste hiruretan ez bezala, espazio libre gisa baliatzen dira Aitzarterreka erreken ondoan dauden lursailak, eta, beraz, txikiagoa izango da ingurumen balioen gaineko inpaktua. Nolanahi ere, hasierako dokumentu estrategikoak ez du aurreikusten inpaktu larririk aukera horietako batean ere.
- *Astigarraga herrigunea.* Ingurumen azterketak ez du detektatzen inpaktu larririk, baina nabarmentzen du areagotu egiten dela hiri lurzorua Aralarko Parke Naturalaren eremuan eta Kontserbazio Bereziko Eremuan.
- *Arrondo herrigunea.* Ingurumen analisiaren arabera, uholde arriskua da inpaktu larri bakarra (lau aukeretan ageri da). Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da hiru aukera berriek lurzoru gutxiago okupatzen dutela. Gainera, garapen berriaren zati bat partzialki urbanizatutako lurzoru dagoenez, ondorioztatzen du ez dela areagotuko gaur egun onetsitako antolamenduak ekarriko lukeen inpaktua.
- *San Gregorio herrigunearen mendebaldea.* Ingurumen analisiak ez du detektatzen inpaktu larririk, baina 1etik 3ra bitarteko aukerek sorrarazten duten lurzoruaren artifizializazioa nabarmentzen da, maila desberdinetan eragiten badute ere.
- *Aia herrigunea.* Ingurumen analisiak bateragarritzat jotzen ditu inpaktu guztiak, nahiz eta 2. aukerak izango lukeen inpaktu txikiena, hiri lurzoruaren azalera gaur egun dagoenera mugatzeagatik.

1.3 Lurzoru urbanizaezinaren antolamendurako eta ingurumen azterketarako aukerak.

Lurzoru urbanizaezina antolatzeko proposamenari dagokionez, aurrerapenak kategoria eta baldintzatzaile gainjarri hauek definitzen ditu:

- **Antolamendu kategoriak.** Hauek bereiziko dira: *babes berezia, balio estrategiko altua, trantsizioko landa paisaia, basoa, eta ibai ibilguak eta ibaiertzak babestea.* Ingurumen hobekuntza, landare inbaditzaileek eta/edo lur irristatzeek eragindako eremuak barne, eta, azkenik, *sistema orokorrak.* Lurzoru urbanizaezinaren egungo egoera kontuan hartuta ezarri dira kategoria bakoitzaren mugak.
- **Baldintzatzaile gainjarriak:** *uholdeek eragindako eremuak, akuiferoei eragiteko arriskua duten eremuak, luiziak izateko arriskua duten eremuak, sute arrisku handia edo oso handia duten eremuak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, eremu akustikoak, Aralar eta Oria Garaiko babes bereziko eremuak, intereseko basoak, interes komunitarioko habitatak, ibai korridoreak, fauna babesteko eremuak, interes publikoko mendiak, interes geologikoko*

eremuak, interes hidrogeologikoko eremuak, plan hidrologikoak babestutako eremuak, katalogatutako arro bisualak, kultura ondarea.

Bestalde, Arinberriaga eta Ergoiena auzoen sailkapenari dagokionez, zenbait aukera proposatzen dira:

- **Arinberriaga auzoa.** Gaur egungo arau subsidiarioetan, landaguneko lurzoru urbanizaezin gisa dago sailkatuta, eta 9 zuzkidura etxebizitza berri proposatzen dira, 4 eraikinetan banatuta. Proposatutako beste 3 aukeretan, hiri lurzoru izatera igarotzen da, eta 6.000 m² areagotzen du azalera. Sailkapen aldaketa hori egitearen arrazoia da auzo horrek jarraitzen diola Elbarrena eta San Gregorio herriguneeen artean antolatu nahi den gunen nagusiari, eta, gainera, gunen horren iparraldean aurreikusten direla lehen sektorea garatzeko beharrezko azpiegiturak. Era berean, 4 zuzkidura etxebizitzatara soilik mugatzen ditu indarrean dauden arau subsidiarioetan planteatutakoak. Hasierako dokumentu estrategikoak egiten duen ingurumen azterketan, uholde arriskua da hautematen den inpaktu larri bakarra, baina azpimarratzen du, batez ere, auzo horretako aukerek hiri lurzoru gisa sailkatutako lurzoruak okupatutako azalera areagotzea eragingo dutela.
- **Ergoiena auzoa.** Landagune izaten jarraitzen du lau aukeretan. Plan berezi baten bidez garatuko da.

Azkenik, Lizarrusti ingurua *aisialdirako eta ingurumen hedapenerako eremu* izendatzea proposatzen da, eta antolamendu plan berezi baten bidez garatzea. Horren guztiaren helburua da Lizarrusti inguruan gaur egun eta etorkizunean planteatzen diren azpiegitura turistikoak antolatzea, eta, hala, lurraldeari atxikitako eskualde jarduera turistiko bat sustatzea, udalerriaren eredu sozioekonomikoa dibertsifikatzeko. Nolanahi ere, eremu hori Aralarko Parke Naturalaren eremuan dagoenez, proposatzen den edozein jarduerak hari lotutako araudia bete beharko du.

2.- EGINDAKO KONTSULTAK

Ataungo Udalaren eskaera jaso ondoren, Ingurumen Administrazioako Zuzendaritzak 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta 10/2021 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako kontsulten izapidea egin zien eragindako administrazioei eta publiko interesdunari. Fase horretan, erakunde eta instituzio hauei egin zitzaizkien kontsulta:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
- IHOBE.
- Energiaren Euskal Erakundea (EEE).
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Industriaren eta Energia Trantsizioaren Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Ur Partzuergoa.
- Zaldibiako Udala.
- Lazkaoko Udala.
- Idiazabalgo Udala.
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- Goieki.
- Goimen.
- Landarlan Ingurumen Elkartea.
- Eguzki talde ekologista.
- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.
- Haritzalde Naturzaleen Elkartea.
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan talde ekologista.
- Aranzadi Zientzia Elkartea.

Era berean, hasierako dokumentu estrategikoa eskuragarri egon da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Administrazioako Zuzendaritzaren Interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus), herritar guztiek egokitzen jotako ingurumen arloko ekarpenak egin zituzten.

Erantzunak bidaltzeko epea amaitu ondoren, hauek jaso dira:

- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak Ataungo udalerriko babes zibileko arriskuak berri eman du. Eusko Jaurlaritzak onartutako babes zibileko lurralde planetan eta plan berezietan daude jasota arrisku horiek. Hauek dira:
 - *Uholde arriskuak*. Uholde arriskuak ageri dira Agauntza ibaiaren ibilguari lotuta. Elbarrena eta Astigarraga gunetan dago ES017-GIP-13-1 kodea duen Uholde Arrisku Handiko Eremua. Nahitaez bete beharko da Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan eta EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean xedatutakoa, eta saihestu egin beharko da aztergai den eremuko uholde arriskua handitzea eta instalazioak 500 urteko errepikatze denborako uholde arriskuaren kotatik gora kokatzea. Halaber, administrazio hidraulikoaren baimenean ezarritakoa bete beharko da. Bestalde, jakinarazten da eremuan egunean 250 mm eta 300 mm/egun arteko prezipitazio isomaximoak daudela 500 urteko errepikatze denborarako, eta hori kontuan hartuko da drainatze obrak diseinatzeko.
 - *Arrisku sismikoa*. Udalerria V eta VI intentsitateko eremuetan dago, Arrisku Sismikoaren aurreko Larrialdi Planaren arabera, eta, beraz, ez du egin behar larrialdi sismikoko planik. Alabaina, eraikin berrietan kontuan hartu beharko da irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onetsitako eraikuntza sismorresistenteei buruzko araua.
 - *Baso suteen arriskua*. Jakinarazten da ezen, hirigintza plangintzari begira, kontuan hartu beharko direla EAEko Baso suteen arriskuagatik Larrialdietarako Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinetan jasotako baldintzak, baso sute handiko arrisku eremuetako edo hiri eta baso interfazeko eremuetako erabileretarako autobabes plan bat egiteko betebeharrari dagokionez, bai eta kanpatze instalazioei dagokienez ere.

- *Arrisku teknologikoa. Salgai arriskutsuen garraioa.* Salgai arriskutsuak GI-2120 errepidean barrena garraia daitezke bakarrik.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Departamentuak lurzorua okupatzeko aukerak aztertu ditu, bai eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek proposatzen duen lurzoru urbanizaezinak sailkatzeko proposamena ere, udalerriko nekazaritza lurzoruetan duten inpaktua ezartzeko. Azterketa horren ondoren, haxe ondorioztatzen da: alternatiba horietako batzuek, adibidez Astigarraga eremuak, areagotu egiten dutela hiri lurzoruaren azalera. Lurzoruen okupazio hori izango da, hain zuzen ere, aurkeztutako aukerek eragingo duten inpakturik handiena. Hori dela eta, bizitegi garapenak dentsitate handikoak izatea eta dagoeneko urbanizatuta dagoen lurzorua ahalik eta gehien aprobetxatzea gomendatzen da, eta erabilerak nahas daitezen erraztea. Era berean, Ataungo Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorren behin betiko testua idaztean kontuan hartu beharko duen araudiaren zerrenda ematen du.

- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak oso positibotzat jotzen du Aralarko Parke Naturalarekin bat ez datorren lurzoru urbanizaezinerako proposatutako kategorizazioa. Hala ere, hirigintza araudia idazten denean kontuan hartu beharreko zenbait gogoeta egiten ditu. Hala, gogorarazten du kontuan hartu beharko direla Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialaren 10. artikuluan adierazitako loturak; hau da, berariaz jaso beharko direla *balio estrategiko altuko* lurzoru urbanizaezineko eremuei lotutako araudia eta *onura publikoko mendien eta mendi babesleen* izaera arauemailea. Era berean, Lurralde Plan Sektorialeko kapitulu hauetako edukiak hartu beharko dira kontuan: III. kapitulua (*lurzoruaren erabileren eta jardueren definizioa*), VI. kapitulua (*antolamendu kategorietan aplikatu beharreko arauak*) eta VII. kapitulua (*baldintzatzaile gainjarrietan aplikatu beharreko arauak*). Era berean, kontuan hartu beharko dira Lurralde Plan Sektorialaren *Jarraibide Orokorren* II. kapituluko 11., 12. eta 13. artikuluetako edukiak — hurrenez hurren, lurzoru urbanizaezinean nekazaritza eraikuntza berriak eraikitzeiko baldintzak, nekazaritza ustiatzari lotutako etxebizitza isolatua eraikitzeiko baldintzak, eta abeltzaintzako instalazio intentsiboak eraikitzeiko baldintzak arautzen dira artikuluko horietan—.

Nekazaritza lurzoruaren okupazioari dagokionez, Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialaren 10e artikuluan ezarritako *Nekazaritza arloko afektazioaren ebaluazio protokoloa* aplikatu beharko da, kontuan hartuta bai nekazaritza lurren okupazioa, bai plangintzan jasotako proposamenek eragin ditzaketen nekazaritza ustiatzaren gainean sortutako inpaktua. Gomendatzen da ebaluazio horren emaitzak erabiltzea plangintzak garatu beharreko aukerei buruzko erabakiak hartzeko, eta, horretarako, lurzoruen eta nekazaritzako erabileren gaineko eragina minimizatzea eta dagozkion prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurriak zehaztea. Azkenik, gogorarazten da nekazaritza gaietan eskumena duen foru organoaren txostena eduki beharko dela, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera. Azkenik, gomendatzen da esku hartzeko programa jakin batzuk aurreikustea, nekazaritza jarduerak mantentzera eta abandonatutako edo desagertzeko arriskuan dauden lursailak kudeatzera bideratutakoak, bai eta txostenaren 2.3 atalean adierazitako jarraipen sistemak txertatzea ere.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak biodibertsitatean eragina duten jasangarritasun irizpide batzuk zehazten ditu, eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek kontuan hartu beharko ditu horiek. Era berean, ingurumen helburuen adierazle batzuk azaltzen ditu, eta, horietarako, balio hauek kalkulatu beharko lirateke: egungo balioa, ingurumen helburuak betetzeko lortu beharko litzatekeena (arrakasta irizpidea), eta, azkenik, proposatutako plangintza aplikatuz gero hartuko litzatekeen balio zenbatetsia. Logikoa denez, balio zenbatetsiak ez badu betetzen arrakasta irizpidea, plana birformulatu beharko da, edo justifikazio espezifiko bat aurkeztu. Bestalde, hiri ereduari eta

lurzoruaren okupazioari dagokienez, Zuzendaritza honek azaldu ditu zer irizpide hartu behar diren kontuan udalerriko natura ondarearen balioetan izan dezaketen eraginagatik arreta berezia jarri beharreko garapen eremuetan. Hauexek dira:

- ✓ *Elbarrena, Astigarraga eta Arrondo.* Hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarrietako batzuk Aralarko Parke Naturalean daude. Gainera, proposamen batzuek intereseko habitatei eragiten diete: Astigarraga eta Elbarrena herriguneen artean proposatzen den kirol zelaiak 6510 habitatari, eta Astigarragako bizitegi garapenak, berriz, 6510 habitatari eta pagadi azidofilo bati. Kontuan izan behar da habitat horiek funtsezko elementuak direla Aralarko Kontserbazio Bereziko Eremuan, eta, beraz, ingurumen azterketa estrategikoak ebaluazio egokia egin beharko du Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek eremu babestu horren balioetan duen inpaktuari buruz. Era berean, jakinarazi da une honetan izapidetzen ari dela Aralarko Naturagune Babestuaren Baliabide Naturalak Antolatzeke Plan berria, eta, beraz, plan hori izapidetzen doan heinean, Ataungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek plan horren zehaztapenetara egokitu beharko duela.
- ✓ *Arinberriaga:* hiru aukeretan proposatzen diren bizitegi garapenek eta jarduera ekonomikoen garapenek 6510 habitatari eragiten diote. Horretaz gainera, Agauntza ibaiaren ertzean daude, eta, ibaiartzeko baso txiki bat izateaz gain (91E0 lehentasunezko habitata), bisoiaren eta muturluze piriniotarraren interes bereziko eremuen parte da. Ondorioz, eremu horren antolamenduak espazio libreetara bideratu beharko du ibaiertza, eta ibaiartzeko landaredia berreskuratzeko lanak egin beharko ditu.
- ✓ *San Gregorio herrigunearen mendebaldea.* Lauzti errekaen errepidearen hasierako 2. eta 3. aukeretan jasotako bizitegi garapenaren proposamenak gaztainondo baso bat eta ibaiartzeko baso bat ukitzen ditu. Gainera, garapen horrek muturluze piriniotarrantzat interes berezia duen eremu bati eragingo dio, eta, beraz, eragin aipagarriak izan ditzake; hala, zuinketa egitea komeniko litzateke, eta, proposamenari eutsiz gero, ingurumen azterketa estrategikoak justifikatu egin beharko luke haren beharra.

Bestalde, lurzoru urbanizaezinen antolamendu proposamenari dagokionez, neurri batean egokitzen jotzen badu ere, irizten zaio ezen, babes bereziko kategoriarako LAGetan ezarritako irizpidea aplikatuta, ez direla bertan sartzen kategorizazio hori merezi duten eremu guztiak, eta, beraz, beste zuinketa bat egin beharko dela babes hori merezi duten elementuei dagokienez.

Azkenik, gomendatzen du garapen berrien proposamenek izan behar dituztela, aldi berean, jarduketak paisaian integratzeko neurriak, eta lehentasuna ematen zaio espezie autonomoak erabiltzeari.

- Uraren Euskal Agentziak (URA) jakinarazten du Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari helarazi zaiola kontsulta, mugapeko kudeaketaren batasunaren eta uniformetasunaren printzipioari jarraikiz, informatzea egoki iritziz gero.

Irismen dokumentu hau egin ondoren erantzunen bat jasotzen bada, ahalik eta lasterren bidaliko zaio Ataungo Udalari, kontuan har dezan Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta ingurumen azterketa estrategikoa egiterakoan.

3.- INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK, JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK ETA ARAU ITURRIAK

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek, udalerraren lurraldearen antolamendu integralerako oinarritzko tresna den aldetik, aukera eman beharko du, batetik, hirigintza eta azpiegitura

jarduketan ondoriozko ingurumen inpaktu negatiboak ahalik eta gehien murrizteko, eta, bestetik, udalerraren ingurumen kalitatea hobetzen laguntzeko. Horretarako, egokiro txertatu beharko ditu ingurumen alderdiok.

A. Hiri Antolamenduko Plan Orokorren ingurumen helburu estrategikoek jasangarritasun irizpide hauetan oinarrituta egon behar dute gutxienez:

- Ingurumen kalteen prebentzioa lehenestea, zuzentzearen eta konpentsatzearen aurretik, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren formulazioan ingurumen alderdiak behar bezala kontuan hartuta, eta, horretaz gainera, ingurumena hobetzeko proiektuak eta jarduerak proposatzea eta bertan sartzea.
- Saihetsezin gisa ebaluatu ondoren, benetan gertatzen diren kapital naturalaren galerak konpentsatzea. Hala, alderdi hauek zehaztu behar dira plangintza tresnetan:
 - Konpentsatzeko modua, kontuan hartuta, batetik, berreskuratzea komeni den eremu degradatuetan oinarritutako lehentasunak eta, bestetik, zehaztutako edo zehaztu beharreko tokiko korridore ekologikoen sarea.
 - Konpentsazio jarduketak hartuko dituzten lursailak lortzeko, beharrezkoa da sailkatutako lurzoruari lotuta geratzea —esate baterako, atxikitako sistema orokor baten bidez edo zuzkidura publikoak lortzeko jarduketa baten bidez—.
 - Sektore berriaren urbanizazio gastu gisa sartuko da konpentsazio neurrien kostua, eta neurri horiek eraikitze lizentziak eman aurretik egon beharko dute egikarituta.
- Habitaten garapena eta berroneratzea bultzatzea, klima aldaketaren erresilientzia hobetzeko, eta, bide horretan, hiri eremuetan karbono hustubide gisa duten gaitasuna handitzea eta klima aldaketen aurrean landaguneen eta hiri inguruen erresilientzia hobetzea.
- Jasangarritasun energetikoaren ondoriozko baldintzak txertatzea lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan. Ildo horretan, hirigintza plangintzak energia autohornidura bultzatuko du. Hala, lehentasuna emango dio energia iturri berriztagarrietatik lortzeko soluzioak ezartzeari, eta sistema zentralizatuak garatuko ditu energia hiriko bero sareen bidez sortzeko eta banatzeko. Era berean, lehendik dauden eraikin eta espazio urbanizatuen efizientzia energetikoa hobetzea bultzatuko du, eta irizpide bioklimatikoak erabiliko ditu etorkizuneko eraikin eta espazio publikoak planifikatzeko, proiektatzeko eta gauzatzeko. Orobat, kontsumoa minimizatuko duten sistema pasibo eta aktiboak erabiliko ditu.
- Lurzoruen erabilerak esleitzerakoan, kontuan hartzea baliabide naturalen eta nekazaritzako baliabideen kalitatea eta kalteberatasuna, eta aintzat hartzea, orobat, ingurumen kalitatea, klima aldaketa eta aurreikusitako erabilerei dagokien eremuek duten harrera gaitasuna.
- Lurzoruen artifizializazioa eta hazkunde demografikoa banantzea. Sailkatutako lurzoruen okupazioa agortzea lurzoru berriak sartu aurretik, eta behar bezala justifikatzea lurzoru urbanizagarri berrien sailkapena, haien nahikotasunean eta egokitasunean oinarrituta; era berean, zorrotz dimentsionatzea benetako beharrak asetzeko behar den lurzoru. Lurzoruak desklasifikatzea eta lurzoru urbanizaezin izatera bueltatzea, baldin eta lurzoru horien hirigintza garapena ez bada bidezkoa, indarrean dauden baldintza sozioekonomikoak eta jasangarritasun irizpideak kontuan hartuta.
- Hiri garapen eta azpiegitura posibleak aurkitzea eta horiek antolatzea, alderdi hauek bermatzeko:

- Baliabide natural baliotsuen gaineko inpaktua minimizatzea (landaredi autoktonoa, egoera naturaleko ibilguak, balio agrologiko handiko lurzoruak...).
 - Arrisku naturalen prebentzioa (uholde arriskua, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak...):
 - Garapen horien zerbitzu egokia bermatuko duten ur hornidura eta saneamendu sareak eskura ipintzea.
 - Energia efizientzia pasiboko baldintza egokiak.
- Dentsitate ertain-altuko eta erabilera nahasketa eta konplexutasun oneko hiri eremu trinko eta askotarikoak lehenestea, eta, ildo horretan, dentsitate txikiko eta oso baxuko bizitegi eta industria garapen berriak eta etxebizitza isolatu edo atxikien tipologia saihestea; izan ere, eredu horiek hiri eredu sakabanatu eta barreiatua eragiten dute, eta lurzoru, energia eta material kontsumo handia behar izaten dute.
 - Hutsik dauden etxebizitzak okupazioa eta eraikitako ondarearen birgaitze lanak sustatzea, eta, horrenbestez, eraikin berriak saihestea.
 - Lehendik dauden hiri ehunen optimizazio funtzionala eta birmoldaketa sustatzea, eta horiek birgaitzea, berregituratzea edo berritzea, bai eta espazio marjinalak berreskuratzea ere, lurzorua eta baliabideak optimizatzeko estrategia gisa.
 - Hiri segregazioa eta sakabanatzea saihestea, erabilera edo jarduera desberdinen integrazioa eta kohesio espazial egokia mantendu ahal izateko, eta, hari esker, mugikortasuna murrizteko.
 - Mugikortasun arrazionalagoa eta jasangarriagoa sustatzea, guztia ere banaketa modala oinezkoetara, bizikletara eta garraio kolektibora bideratzeko eta erregai alternatiboak erabiltzen dituzten garraiobideak sustatzeko.
 - Biodibertsitateko elementu bereziei (landaredi autoktonoa, espezie mehatxatuen habitatak, eta abar) ez eragitea, eta natura ondarearen egoera orokorra eta ingurumen zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna mantentzea edo hobetzea.
 - Lurzoru urbanizaezinaren antolamendu egokia ezartzea landa ingurunea zaintzeko, eta, horretarako, oreka egokia bilatzea garapen ekonomikoaren, ekosisteman duen eginkizunaren (lehengaien hornidura, ingurunearen kontserbazioa) eta ingurumen eta paisaia kalitatearen baldintza proposen artean.
 - Naturaguneen eta elementu naturalen kalitatea eta funtzio aniztasuna kontserbatzea eta berroneratzea, udalerriko azpiegitura berdearen plangintza eta kudeaketa egokiaren bidez, balio ekologiko handiko eremuen arteko konektibitatea sustatzeko, klima aldaketaren inpaktuak murrizteko eta natura ondarearen egoera globala eta zerbitzu ekosistemikoak emateko gaitasuna hobetzeko.
 - Paisaia faktorea txertatzea plangintzan, eta, hala, paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolamendua sustatzea, Paisaiaren Europako Hitzarmenak ezartzen duen bezala.
 - Inpaktu negatiboa murriztea baliabideen (ura, energia eta materialak), hondakinen eta kutsatzaileen balantzean, bai eraikuntzak eragindakoak oro har (eraikinak, egiturak, urbanizazioa), bai haien funtzionamenduak eragindakoak, eta zikloak ixtera bideratzea.
 - Ur baliabideak eta ingurunea —lurpeko edo gainazaleko ur kontinentalak— babestea, zaintzea eta lehengoratztea, eta, hala, Uren Esparru Zuzentarauaren helburuak lortzen saiatzea. Ildo horretan, errespetatzekoak izango dira uren arloko araudiak ezarritako atzerapenak eta zortasunak, eta egungo eta etorkizuneko isurketen tratamendu egokia bermatuko da.

B. Bestalde, Ataungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiterakoan, arau eta dokumentu hauetan jasotako jasangarritasun irizpideak eta printzipioak hartuko dira kontuan:

- Nazio Batuen 2030 Agenda.
- Europar Batasunaren ingurumenaren arloko VIII. Ekintza Programa Orokorra (2030era artekoa).
- Europako Itun Berdea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Ingurumen Esparru Programa.
- Euskadiko lurzorua babesteko 2030 Estrategia.
- Euskadiko Baso Plangintza (1994-2030).
- 2030erako Euskadiko Biodibertsitate Estrategia.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitate Estrategia.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2050erako Klima Aldaketaren Estrategia.
- Euskadiko Ekonomia Zirkularreko Estrategia 2030.
- Bultzatu 2050 Hiri Agenda.
- Gipuzkoako Energia Jasangarritasunaren 2050erako Estrategia.
- Euskadiko 2030erako Energia Estrategia.
- 2050erako Klima Aldaketaren aurkako Gipuzkoako Estrategia.
- Lurzuaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu batekina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. eta 20. artikulua.
- Lurzuari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 3. artikulua.
- Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen 2. artikulua.
- Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 2. artikulua eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 3. artikulua.
- Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 3. artikulua.
- Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 4. artikulua.
- Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 6. artikulua.
- Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 1. eta 2. artikulua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 5. eta 6. artikulua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 2. artikulua.
- Azpiegitura Berdearen eta Konektibitate eta Berroneratze Ekologikoaren Estrategia Nazionaleko 2.3.8. apartatua.

C. Azkenik, hauek dira irismen dokumentu hau egiteko eta Ataungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiteko aintzat hartu behar diren ingurumen arau nagusiak:

Europako araudia

- Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturala eta basa fauna eta flora babesteari buruzkoa.
- 2000/60/EE Zuzentaraua, ur-politikaren esparruan Erkidegoko esparrua ezartzen duena.
- 2002/49/EE Zuzentaraua, zaratari buruzkoa.

Estatukoa

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa.
- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena.
- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzkoa.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, mendiei buruzkoa.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta soinu-igorpenei dagokienez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 35/2023 Errege Dekretua, Kantauriko Mugape Hidrografikoaren 2022-2027 aldirako Plan Hidrologikoa onesten duena.
- 197/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatian uholde arriskua kudeatzeko planaren berrikuspena eta eguneratzea onesten dituen.
- 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.
- 16/1985 Legea, ekainaren 25ekoa, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegokoa

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduen Gidalerroak.
- 534/2009 Dekretua, irailaren 29koa, Beasain-Zumarragako (Goierri) Eginkizun Arloko Lurraldearen Zatiko Plana behin betiko onesten duena.
- 177/2014 Dekretua, irailaren 16koa, zeinak behin betiko onartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.

- 415/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeke Lurralde Plan Sektoriala (Kantauri isurialdea) behin betiko onesten duena, eta haren ondorengo aldaketa (449/2013 Dekretua).
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
- 4/2015 Legea, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta hura garatzeko dekretua.
- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, eta ondorengo aldaketak.
- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.
- 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzekoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa.
- 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.
- 7/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Landa Garapenari buruzkoa.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun energetikoari buruzkoa.
- 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzkoa.
- 169/1994 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralar aldea parke naturaltzat jotzen duena
- 168/1994 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onesten duena. Geroago, uztailaren 13ko 146/2004 Dekretuak aldatu zuen, eta, apirilaren 26ko 168/1994 Dekretuaren bidez, parke natural izendatu zen.
- 84/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Aralar Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena (ES2120011).
- 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituena.
- 215/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio neurriak onartzen dituena.

Gipuzkoa

- 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako Mendiei buruzkoa.
- 2/2013 Foru Araua, ekainaren 10ekoa, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onesten duena.

- 2004ko maiatzaren 12ko foru aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan muturluze piriniarra eta bisoi europarra kudeatzeko planak onesten dituztenak.

4.- INGURUMEN EBALUAZIOAREN XEDE DEN EREMU GEOGRAFIKOA. ATAUNGO UDAL MUGARTEKO BALIABIDEAK ETA EREMU GARRANTZITSUAK.

Ebaluatuko den eremu geografikoak nahikoa izan beharko du planean aurreikusitako jarduketek eragindako afektazio guztiak kontuan hartzeko. Hirigintza jarduerak ez ezik, barnean hartuko ditu arau zehaztapenen ingurumen ondorioak ere. Oro har, Ataungo udal mugartea hartuko du, nahiz eta zenbait alderdik eska dezaketen udalerria gainditzen duen lurralde baten gaineko inpaktuak aztertzea —esate baterako, paisaiaren gaineko afektazioa aztertzerakoan—.

Ingurumen ebaluazioa xehetasun handiagoz egingo da antolamendu aukerek eragin handiko jarduketak aurreikusten dituzten eremuetan, hala nola hirigintza garapenak planteatzen diren eremuetan.

Ingurumen Administrazio Zuzendaritza honetan dagoen informazio bibliografikoa eta kartografikoa kontsultatu ondoren, eta beste administrazio batzuetatik jasotako erantzunak aintzakotzat hartuta, ingurumen interes berezia duten baliabide eta gune hauek identifikatu dira Ataun udalerrian:

- A. **Zuhaitz masa autoktonoak eta Batasunaren intereseko habitatak.** Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, baso autoktonoek osatzen dute udalerriko egungo landarediaren % 51,64, eta horietatik pagadiak dute azalerarik handiena; ondoren, hariztiak, artadiak eta ibaiertzeko basoak. Bigarren landaredi mota ugariena baso landaketak dira, lurraldearen % 29,69 hartzen baitute, eta, jarraian, belardiak eta larreak (% 12,49). Batasunaren intereseko habitatei dagokionez, udalerriaren % 46,31 osatzen dute, eta ugariak 9120 dira (Pagadi azidofilo atlantiarak, *Ilex* espezieko oihanpea eta batzuetan *Taxus* espeziekoa dutenak), % 26,75ekin; ondoren 6510 (Altitude baxuko sega belardi elkorak), % 8,63ekin, eta, azkenik, 9340 (*Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* basoak), % 5,14ekin. Gainerakoek oso azalera bazterrekoak dituzte (% 1 edo gutxiago). Besteak beste, hauek dira: 91E0 lehentasunezko habitatak (*Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* baso alubialak), % 0,64ekin; 9180 (mendi-hegaletako basoak, luiziak edo osinak *Tilio-Acerion* espeziearekin), % 0,46ekin; 6210 (larre lehor erdinaturalak eta sastrakadiak kareharrizko substratuen gainean), % 0,22ekin; eta 6230 (Formazio berlartsuak *Nardus* espeziearekin, mendialdeetan), % 1,61ekin.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko lurzoru urbanizaezinaren antolamendu proposamenari dagokionez, ezin izan da aurkitu "Ingurumen hobekuntza" kategoria erantsitako planoetan, aurrerapenaren dokumentazioaren arabera bereizi nahi den moduan. Era berean, *Babes berezia* kategoriari dagokionez, ez litzateke mugatu behar Aralar parkearen eraginpeko eremuetan sartzera, baizik eta kontuan hartu beharko lirateke beste elementu interesgarri batzuk ere, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek kategoria horri buruz ezartzen dituzten jarraibideetan jasota bezala eta Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak kontsultei erantzutean nabarmentzen duenari jarraikiz. Gainera, elementu interesgarri horietako askoren kasuan, aurrerapen dokumentuan babestea proposatzen da baldintzatzaile gainjarrien bidez. Hori horrela, *Babes berezia* kategoriaren birformulazioarekin batera, gainjarritako baldintzatzaile baten bidez babestea beharrezkoa den ere aztertu beharko da, uste baita horrekin ez dela laguntzen haien kontserbazioa indartzen, eta zaildu egin baitezake eremu jakin batean kontuan hartu beharreko erabilera jarraibideak aztertzea.

Bestalde, ahal den neurrian, intereseko landaredia babesteko kontserbazio aktiborako neurriak hornitzen saiatu beharko da, hala nola titulartasun pribatuko balio ekologiko handiko basoak

udalaren lurzoru ondarean sartzea edo lurraldea zaintzeko akordioak ezartzea, haien kontserbazioa eta masa helduagoetarantz eboluzionatzea bermatzeko.

Nolanahi ere, azkenean egingo den lurzorua okupatzeko aukera hautatzean, lehentasuna emango zaio intereseko landaredi autoktonoaren gaineko inpaktua minimizatzeari. Era berean, azkenean lurzoru urbanizagarrietan eta are hiri lurzoruetan ager daitezkeen zuhaitz masen kasuan, prebentzio eta zuzenketa neurri egokiak ezarri beharko lirateke, hala nola horiek garapen eremuetako espazio libreetan sartzea, behar besteko erretiratze distantziak zehaztea eta ibai lotura ekologikoa lehengoratzeko estrategiak definitzea. Neurri horien barruan, besteak beste, Agauntza ibaiertzeko landaredia babestea eta lehengoratzeko sartuko lirateke.

B. Naturagune babestuak. Ataun udalerrian, naturagune babestu hauek bereiz daitezke:

- **Aralar Parke Naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremua.** Aralar parke naturalak hartzen du Ataungo azaleraren % 76, eta, beraz, erabat baldintzatzen du udalerriaren antolamendua. Figura horren ondorioz, gaur egun araudi hau aplikatu behar da: batetik, 169/1994 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralar alde parke naturalizat jotzen duena, eta, bestetik, 168/1994 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onesten duena, zeina uztailaren 13ko 146/2004 Dekretuak aldatu baitzuen ondoren. Gainera, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egitean, Ataungo Udalak kontuan izan beharko du ezen, Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2024ko urtarrilaren 31ko Ebazpenaren bidez, abiarazi dela Baliabide Naturalak Antolatzeko Plan berri bat egiteko prozedura. Beraz, Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko zehaztapenak egokitu egin beharko ditu Baliabide Naturalak Antolatzeko Plan berri horren edukira, hura izapidetzen joan ahala.

Bestalde, 84/2016 Dekretuak Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu zuen Aralar (ES2120011). Hauek dira eremu horretako funtsezko elementuak: basoak (pagadiak, artadiak, harizti azidofiloak eta mesotrofoak, haltzadi kantauriarra) eta hari lotutako espezieak (bisoi europarra, muturluze piriniotarra eta ibai karramarroa), larreak eta belar formazioak, bai eta hari lotutako flora, flora eta fauna harkaiztarren komunitateak eta kiroptero espezie batzuk ere.

Halaber, espazio hori bilduta dago Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen *Interes Naturalistikoko Guneen zerrenda irekian*. Gainera, interes bereziko eremua ez ezik Batasunaren intereseko espezie nekrofagoak elikatzeko babes eremua ere bada, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko Plan Bateratuan. Horretaz gainera, hegazti fauna babesteko area bat da, goi tentsioko aireko linea elektrikoetan talka egitetik eta elektrokuziotik babesteko. Azkenik, interes bereziko eremu txiki bat du elur-lursaguarentzat.

Aurrerapenean aurkeztutako proposamenei dagokienez, gehienak, Ajarresta area izan ezik, Kontserbazio Bereziko Eremuko babes eremu periferikoaren barruan daude, eta horietako batzuk, gainera, Aralarko Parke Naturalaren eta/edo KBEaren barruan —hala nola Elbarrena herrigunearen ekialdea eta Astigarragako eta Aiako herriguneak—, nahiz eta zona horien antolamendua Udalaren HAPOaren mende egon —*landazabala eta/edo herrigunea eta azpiegiturak*—.

Astigarragaren kasuan, bizitegi garapen berriek Batasunaren intereseko 6510 habitatari eragingo diote, baita harizti azidofilo bati ere. Kontuan izan behar da larreak (besteak beste, 6510) eta baso naturalak edo erdinaturalak (baso azidofiloa) funtsezko elementutzat jotzen direla Aralarko Kontserbazio Bereziko Eremuan. Hori dela eta, ingurumen azterketa estrategikoak aurkeztutako ebaluazioa baino zehatzagoa egin beharko du, gune honetan planteatutako bizitegi garapenak funtsezko elementu horietan izango duen inpaktuari buruzko aurrerapenarekin.

- **Oria Garaiko Kontserbazio Bereziko Eremua.** 215/2012 Dekretuak Atlantikoko eskualde biogeografikoko hamalau ibai eta estuario izendatu zituen Kontserbazio Bereziko Eremu gisa,

eta horien artean zegoen Oria Garaia (ES2120005). Dekretu horretaz gainera, kontuan hartu behar da martxoaren 17ko 34/2015 Dekretua, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako eta hegaztien babes bereziko eremuetarako arau orokorrak onesten dituen Hauek dira kontserbazio bereziko eremu horren elementuak: ibai korridore ekologiko gisa duen balioa, 91E0 Batasuneko lehentasunezko habitat naturala izatea, bisoi europarraren presentzia, ibaietako hegazti faunaren presentzia (martin arrantzalea eta ur zozoa), eta, azkenik, loinarena eta, oro har, komunitate iktikoarena. Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak baldintzatzaile espezifiko bat ezartzen du KBE hori babesteko. Bestalde, eremu babestu horren mugaketa bat dator AIU 2 Ajarresta areako jardura ekonomikoen proposamenarekin. Hori dela eta, 1. eta 3. aukeretan planteatzen den bezala ez garatzea eta, orobat, 2. aukeran ekipamendurako planteatutako antolamendua gehiago zehaztu ezean eta KBEaren funtsezko elementuetan izango duen inpaktuaren ebaluazio xehatua egin ezean, mesedegarriagoa izango litzateke eremu babestu hori kontserbatzeko. Elbarrena herriguneari dagokionez, KBE horren ertzean dago gune gehiena, AIU 13 izan ezik. Hasierako dokumentu estrategikoan esaten den bezala, gune hori osorik hiri lurzoru finkatuz osatuta badago ere, garapen aukeretako baten aldeko hautua egiten denean, ingurumen azterketa estrategikoak aurkeztutakoaren ebaluazio zehatzagoa egin beharko du, gune horretan planteatutako bizitegi garapenek KBE honetako funtsezko elementuetan izango duten inpaktuari buruzko aurrerapenarekin, eta horiek babesteko beharrezko neurri babesleak eta zuzentzaileak hartu beharko ditu.

C. Fauna. Ugaztunei dagokionez, interes bereziko eremuak daude bisoi europarrarentzat eta muturluze pirinotarrarentzat, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bion kudeaketa planak onesten dituzten 2004ko maiatzaren 12ko foru aginduen bidez babestuta. Bisoi europarraren kasuan, haren kudeaketa planak interes bereziko eremutzat hartzen ditu Agauntza ibaia (jaiotzen denetik Lazkaoko herriguneari sartzen den arte) eta Amundarain ibaia (jaiotzen denetik Urtsuerrekarekin bat egiten duen arte); muturluze pirinotarraren kasuan, berriz, interes bereziko eremu horiek Amundarain ibaiaren tarte bera eta Agauntza ibaiaren ur guztiak dira, Aralar errekararekin bat egiten duen tokiaren gainetik.

Bestalde, ipar-mendebaldean interes bereziko eremu bat dago ferra saguzar handiarentzat.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak proposatzen du aipatutako faunarentzako interes bereziko eremu horiek babestea, bai atal honetan, bai Aralarko parke naturalerako denean, *Fauna babesteko eremuak* baldintzatzaile gainjarriaren bidez. Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren izapidetze prozesuan zehar, zehatzago definitu beharko da baldintzatzaile horri aplikatu nahi zaion erabilera murrizketa, haren eraginpeko espezieen babesa eta kontserbazioa ziurtatzeko. Erabilera murrizketa horri dagokionez, kontuan hartuko dira bisoi europarra eta muturluze pirinotarra kudeatzeko planetan ezarritako jarraibideak eta murrizketak, eta aintzat hartuko dira, orobat, goi tentsioko aireko linea elektrikoetan hegazti fauna talken eta elektrokuzioen aurka babesteko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan jasotakoak.

Bestalde, Oria Garaiko KBetik kanpo proposatutako jarduketa batzuk bisoi europarraren eta muturluze pirinotarraren interes bereziko eremuetan garatzen dira, hala nola Lauzti errekararen inguruko bizitegi garapenetan, San Gregorio hiriguneari mendebaldean. Garapen horiek inpaktu garrantzitsuak izan ditzaketela uste da, eta badirela, beraz, horiek kokatzeko eremu egokiagoak; horrenbestez, horiek gauzatzeko beharra birplanteatu beharko litzateke. Proposamenari eutsiz gero, ingurumen azterketa estrategikoak argudiatu beharko luke beharrezkoak ote diren eta zenbateraino egokitzen diren, inguruko natura intereseko elementuak babesteko. Nolanahi ere, kontuan izan behar da, espezie horiek kudeatzeko planak onesten dituzten foru aginduetan ezarritakoaren arabera, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuaren nahitaezko txostena eduki behar duela interes bereziko eremuetan espezie horiek berreskuratzean eragin nabarmena —zuzena edo zeharkakoa— duen edozein plan edo proiektuk.

- D. **Azpiegitura berdea.** Oria Garaiko KBEari buruzko atalean azaldu den bezala, kontserbatu beharreko funtsezko elementuetako bat ibai korridore ekologiko gisa duen funtzioa da. Era berean, EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen barruan, lotura interes bereziko ibai tartetzat ere hartzen da.

Bestalde, Aralarko Parke Naturalaren barruan ez dagoen udal lurraldea hartzen duen indargetze eremu bat ere bereizten da EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen barruan.

Aurrerapenari dagokionez, lurzoru urbanizaezinaren antolamendu proposamenaren barruan, azpiegitura berdearena da baldintzatzaile gainjarrien barruko ataletako bat, eta bost baldintzatzaile gainjarri biltzen ditu. Baldintzatzaile horietako bakoitzaren barruan erabilera jarraibideak zehaztu beharko dira, konektagarritasun ekologikoa ziurtatzeko. Era berean, baldintzatzaile horiek ukituko dituzten eremuak definitzeko, EAEko Korridore Ekologikoen Sarean ezarritakoaz gainera, kontuan hartzekoa litzateke Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak egindako azpiegitura berdearen proposamena ere.

- E. **Geologia interesguneak.** Geologia Interesguneen Inbentarioaren barruan, Ataungo domoa nabarmentzen da.
- F. **Onura publikoko mendiak.** Ataun udalerriak 1.756,50 ha ditu Onura Publikoko Menditan. Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak *Onura Publikoko Mendiak* baldintzatzaile gainjarriaren bidez babesten ditu, Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialaren araudiaren 10. artikuluan ezartzen den bezala. Hiri Antolamenduko Plan Orokorren izapidetze prozesuan zehar, zehatzago definitu beharko da baldintzatzaile horri aplikatu nahi zaion erabilera murrizketa. Nolanahi ere, kontuan hartuko da Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialeko V. kapituluaren horretarako ezartzen den erregulazioa.
- G. **Nekazaritzako eta abeltzaintzako lurrak.** Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialaren sailkapenaren arabera, Ataungo udalerrian Aralarko Parke Naturaletik kanpo dauden lurzoru urbanizaezin gehienak *Basoak* kategoriaren barruan daude, % 16,04, alegia. Hurrengo kategoria *Trantsizioko Landa Paisaia* da, % 5,59rekin. Balio estrategiko handiko lurzoruei dagokionez, horien ehunekoa oso txikia da (% 0,64), hau da, 37,21 ha guztira, eta Agauntza ibaiaren eta haren Lauzti ibaiadarraren ertzetan daude. Azkenik, *Basoa eta baso barbana* eta *Mendiko larreak* kategorietan daude landa lurren % 0,68 eta % 0,04.

Nekazaritza erabilerarako potentzialtasun handia duten lurzoruak babestearen garrantzia kontuan hartuta, eta Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektoriala betez, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak berariaz jaso beharko ditu, lurzoru urbanizaezin kategorizazioan, plan honetan definitutako balio estrategiko handiko eremuei lotutako mugaketa eta araudia.

Era berean, lurzoru urbanizaezinen kategoria bakoitzean sartu beharreko erabilera araubidea bat etorriko da Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorial horretan ezarritakoarekin.

Bestalde, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra izapidetzeko prozesuan zehar (bertan zehaztuko dira aukeratzen diren hiri garapeneko aukerak), Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialaren 10.e artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, beharrezkoa izango da nekazaritzaren sektorean izango duen eragina ebaluatzea, eta, horretarako, kontuan hartu beharko dira bai nekazaritzako lurzoruen okupazioa, bai Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak jasotako proposamenek eragin ditzaketen nekazaritzako ustategien gaineko inpaktua. Hala, oinarri gisa hartu beharko da Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialean ezarrita dagoena —*Planak aplikatzeak eta obrak eta jarduerak egiteak nekazaritzan duen eraginaren ebaluazioa*, zeina ingurumen azterketa estrategikoaren barruan egin ahal izango baita—. Ebaluazio horretan oinarrituta, dagozkion neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileak zehaztuko dira, kasuak hala eskatzen badu.

Azkenik, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Legearen 16. artikulua adierazten duen bezala, kontuan hartu behar da beharrezkoa izango dela nekazaritza gaietan eskumena duen

foru organoak txostena egitea balio agrologiko handiko lurzoruetan Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikusitako edozein proiektu edo jarduera administratibok behin betiko onetsi aurretik.

- H. **Paisaiaren kalitatea.** Sei arro bisual daude katalogatuta: Agauntza, Agauntza garaia, Aitzarte, Aia, Asensieta eta Urrustiarren. Guztiak, Aitzarte izan ezik, paisaia balio handikoak edo oso handikoak dira. Aurrerapen dokumentuan, *katalogatutako arro bisualak* izeneko baldintzatzaile gainjarria bideratzen da, nahiz eta lurzoru urbanizaezineko gainerako antolamendu elementuetan bezala, ez diren zehazten aplikatu nahi diren erabilera gidalerroak. Baldintzatzaile hori antolatzeke oinarritzko irizpidetzat hartu beharko litzateke plangintzaren eskaletan paisaiaren kalitatea mantentzea eta hobetzea, hasi antolamendu estrukturaletik eta HAPOaren bidez egindako erabileren esleipenetik, harik eta garapen plangintzan eta urbanizazio proiektuetan urbanizazio baldintzak ezartzeraino. Era berean, eta eskala txikiagoan, iradokitzen da Hiri Antolamenduko Plan Orokorren hirigintza fitxetan ezarritako garapen eremuetan ezartzen diren hirigintza jarduerak paisaia integratzeaz azterlan bat izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusten den bezala.

- I. **Kultura ondarea.** Hiri Antolamenduko Plan Orokorren idazketaren ondorengo faseetan, aurrerapenean jasotako ondare arkeologiko eta arkitektonikoaren katalogoa lantzen jarraituko da, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak eta GFAko Kultura Zuzendaritzak udalak egindako kontsultei erantzuteko bidalitako esku hartzeko irizpideak eta aginduak kontuan hartuta. Planoekin batera, elementu bakoitzaren banakako fitxak aurkeztuko dira. Fitxa horietan, elementuaren kokapena, deskribapen orokorra, ondare intereseko balioak, argazkiak, babes araubidea eta kontserbazio egoera bilduko dira.

Bestalde, ingurumen azterketa estrategikoak sakondu egin beharko du ondarean izango duen inpaktuaren azterketan, eragin negatiborik ez izatea ziurtatzeko. Ildo horretan, eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 50. artikulua betez, beste balizko inpaktu batzuen artean, antolamendu aukeretan proposatzen diren eraikin berriek babestutako kultura ondasunetan sor dezaketen kutsadura bisuala aztertuko da, eta dagozkion prebentzio eta zuzenketa neurriak hartuko dira, hala nola proposatutako antolamenduaren zuinketa.

- J. **Jabari publiko hidraulikoa eta haren babes eremuak.** Ataungo sare hidrografikoa Oriako unitate hidrologikoaren parte da (Agauntza eta Zaldibia azpiarra). Agauntza ibaiak hegoaldetik iparraldera zeharkatzen du udalerria, eta erreka askoren urak jasotzen ditu. Ataun udalerrian, lurrazaleko uren egoera kontrolatzeko bi estazio daude: Ataun (OAG 196 kodea) Lazkaoko mugan, eta Aloska (OAG 110) San Gregorio eta Ergoiena herriguneen artean. Jarraipen sarearen 2023ko txostenean, onak dira Agauntza I eta II ur masen 2019-2023 aldiko egoera ekologikoa, kimikoa eta globala.

Aurrerapenean proposatutako antolamendu aukerak, Aiako herrigunea izan ezik, Agauntza ibaiaren ertzetatik igarotzen dira, eta, beraz, zehatz-mehatz aztertu beharko dira ibilguaren eta ibaiaren ertzaren gaineko inpaktuak, azkenean egingo diren garapenak zehaztean. Orobat, kontuan hartu beharko da ur masa horrek espezie babestuentzat duen garrantzia —hala nola bisoi europarrarentzat eta muturluze pirinotarrarentzat—. Halaber, trazaduraren zati bat Oria Garaiko KBEan sartzen da, eta intereseko elementu horietarako txostenaren atal honetako beste azpipuntu batzuetan zehaztu dira jarraibideak.

Nolanahi ere, jabari publiko hidraulikoa babesteari dagokionez, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, zortasun eremua oinezkoentzako pasabide publikorako eta zaintza zerbitzuak garatzeko gorde behar da, eta ez da inolako jarduerarik egin behar —eremuak ixtea barne—, nola eta ez den komenigarria edo beharrezkoa jabari publiko hidraulikoa erabiltzeko. Jabari publiko hidraulikoari eragiten dioten garapen sektoreen hirigintza fitxetan, EAEko ibaien eta erreken ertzei buruzko LAPari jarraikiz errespetatu beharreko tarteari zehaztu beharko dira, eta, ahal den neurrian, ibaiartzeko zerrenda lehengoratzeko proposamenak txertatuko dira. Gainera, berariaz jasoko da ibilguak eta jabari

publiko hidraulikoa zaintzeko eremuan egingo den edozein jarduketak administrazioaren alde aurreko baimena edo erantzukizunpeko adierazpena beharko dituela arroko erakundearen aurrean (Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa), zeina Uraren Euskal Agentzian izapidetuko baita.

K. Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko eremu babestuak.

- *Ur hornidurarako ur bilketa eremuak.* Geoeuskadiren arabera, babestutako eremuen erregistroaren barruan hiri hornidurako 13 ur bilgune daude: Aiztondo Aldea, Astigarrako, Liztarre, Agostuzarreta, Albizta, Asinaltza, Remedios, Soroitxar, Inbiko, Aiaturrieta, Iñusti, Intxusti eta Otsinberde iturburuak. Guztiek 50 eta 2.000 biztanle arteko tarteei ematen diete zerbitzu. Bestalde, aurrerapenaren dokumentazio kartografikoa aztertuta, badirudi Ataun udalerrian aurreko hartuneetako bat bakarrik babesten dela, *Hiri hornidurako hartuneen babes eremuak* izeneko baldintzatzaile gainjarri baten bidez. Badirudi baldintzatzaile horren ardatza ez dela ur hargunea bera bakarrik, baizik eta babes eremu bat ere hartzen duela, nahiz eta alderdi hori ez den argitzen aurrerapenaren dokumentazio idatzian. Kontuan hartu behar da, Plan Hidrologikoaren 16. artikulua aplikatuz, hargune bakoitza babesteko eremu bat ezarri behar dela, isurialdeko arroaren gainean 100 m-ko erradioko arku batez mugatuta 50 eta 2.000 biztanle arteko biztanleentzat, eta 500 m-koa 15.000 biztanletik gorakoentzat.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra izapidetzean, aurreko baldintzatzaileak ukituko dituen harguneen behin betiko zerrenda ezarri beharko da, Geoeuskadin sartutako zerrenda eta 2022-2027 Plan Hidrologikoaren IV. eranskina (Eremu Babestuen Erregistroa) kontuan hartuta. Era berean, horri lotutako erabileren araubidea zehaztu beharko da, eta horren helburua izango da bilketaren kantitateari eta kalitateari eustea eta babesteko eremua ezartzea.

- *Habitata edo espezieak babesteko izendatutako eremuak, kontuan izanik uraren egoera mantentzea edo hobetzea faktore garrantzitsua dela haiek babesteko (Aralarko KBEa eta Oria Garaiko KBEa).* Plan Hidrologikoaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, eremu babestu horien barruan kokatutako emakidak eta baimenak izapidetzean, ez bada egin behar ingurumen inpaktuaren ebaluazioa, eremu babestuaren organo kudeatzaileari eskatu beharko zaio erabakia hartzeko leku horretan izan dezakeen inpaktuari buruz eta eskatutako jardueraren ondorioen ebaluazio egokia egiteko beharrari buruz.
 - *Ingurumen intereseko tarteak.* Agauntza ibaiaren eta Amundarain ibaiaren zati bat hartzen du. Plan Hidrologikoaren 16. artikulua ezartzen duenez, tarte horietan beharrezko kontrol eta jarraipen neurriak hartuko dira ibai ibilguetako eta horietara konektatutako lurpeko sistemetako uren kalitate naturalari eusteko. Oro har, saihestekoak izango dira ibilguaren berezko fauna eta flora naturalak aldatzeko esku hartzeak.
 - *Arriskuan dauden espezieen interes bereziko eremua (bisoi europarra eta muturluze piriniotarra).* Faunari eskainitako azpiatalean aipatu bezala, espezie horien Gipuzkoako kudeaketa planaren eraginpean dauden Agauntza eta Amundarian ibai zatiak sartzen dira.
 - *Beste naturagune babestu batzuk.* Aralarko Parke Naturala.
 - *Urari lotutako kultura ondarea.* Ondare arkeologikoaren barruan, ustezko zona arkeologikoak daude: Lauztiko teileria eta Elezaldiko errota, eta kultura ondarean, berriz, Errota eta Errotatxo. Eremu horiek babesteko, txosten honen Kultura Ondarea izeneko azpiatalean ezarritakoa hartuko da kontuan, eta aintzat hartuko dira, orobat, eremu horretan eskumena duten erakundeek zehaztu ditzaketen alderdiak ere.
- L. **Arriskuak.** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31.1 b) artikuluekin bat etorritik, ingurumen azterketa estrategikoari udalerriko arrisku naturalen mapa gehituko zaio. Era

berean, ingurumen azterketa estrategikoak neurri zuzentzaileak ezarriko ditu dauden arriskuak gutxitzeko edo saihesteko, eta proposatutako plangintzak kontuan hartu beharko ditu ingurumen arrisku horiek, ondoren erabilerak eta jarduerak arautzeko.

Ataun udalerriko arrisku garrantzitsuenei dagokienez, hauek aipa daitezke:

- **Uholde arriskua:** Uholde Arriskua Kudeatzeko 2022-2027 aldirako Planak Uholde Arrisku Handiko Eremuaren barruan sartzen du Agauntza ibaiaren eta haren inguruaren ibilgua, AIU 2 Ajarrestatik Astigarraga herriguneraino gutxi gorabehera, ES017-GIP-13-1 Agauntza kodifikazioarekin.

Aurrerapenean, baldintzatzaile gainjarri bat ezartzen da, 10, 100 eta 500 urterako uholde arriskua izenekoa. Haren araudia Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan eta EAEko Kantauri Isurialdeko Ibai eta Erreken Ertzetako Lurralde Plan Sektorialean ezarritakoa izango da.

Bestalde, Lehentasunezko Fluxu Eremuak AIU 2 Ajarrestaren eta San Gregorio gunearen artean dauden eremuei eragiten die. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra izapidetzeko prozesuan eta uholde arriskuari dagokionez garapen berrietarako dauden aukerak aztertzean, kontuan hartu beharko dira Kantauriko Plan Hidrologikoaren 42. eta 43. artikuluetan lurzoru urbanizaturako eta landa lurzorurako lehentasunezko fluxu eremuan ezartzen diren erabileren mugak.

Lehentasunezko Fluxu Eremutik kanpo urez bete daitezkeen eremuetan kokaturiko garapen proposamen berriei dagokienez, Kantauriko Plan Hidrologikoaren 45. artikuluan ezarritako gidalerroak hartu beharko dira kontuan.

Laburbilduz, uholde arriskua kontuan hartu beharko da Hiri Antolamenduko Plan Orokorra azkenean izapide prozesuan hartuko duen garapen alternatibaren arabera, eta saihestu egin beharko da udalerrian gaur egun dagoena areagotzea. Garapen berriek nahitaez bete beharko dituzte Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren Araudiko (2022-2027) 37. artikulutik 45. artikulura bitartean uholde arriskuari buruz ezartzen diren erabilera mugak, bai eta administrazio hidraulikoaren nahitaezko baimena lortzeko ezartzen diren jarraibideak ere. Halaber, betetzekoak izango dira, ibilguak zaintzeko eremutik kanpo dauden garapen eremuen kasuan, lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan eskumena duten administrazioek ematen dituztenak, araudi horretako 37.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Azkenik, garapen eremuetan uholde arriskuak eragindako kalte guztiak berariaz agertu beharko dira hirigintza fitxako baldintzatzaile gainjarri sektorialen atalean, jarduketa garatzeko baldintza orokor gisa.

- **Baso suteen arriskua.** Ataun udalerrian baso sutea izateko arriskua txikia da nagusiki, nahiz eta badauden arrisku handiko eta oso handiko eremu txikiak ere. Ondorioz, kontuan hartu beharko dira, hirigintza plangintzari begira, EAEko Baso suteen arriskuagatiko Larrialdietarako Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinetan jasotako baldintzak, baso sute handiko arrisku eremuetako edo hiri eta baso interfazeko eremuetako erabileretarako autobabes plan bat egiteko betebeharrari dagokionez, bai eta kanpatze instalazioei dagokienez ere, hurrenez hurren. Aurrerapenean, arrisku horri lotutako baldintzatzaile gainjarri bat sartu da: *Baso suteen arrisku handia edo oso handia*.
- **Arrisku teknologikoa. Salgai arriskutsuen garraioa.** Udalerrian salgai arriskutsuak ibiltzeko erabiltzen den bidea GI-2120 errepidea da, eta oso arrisku txikia dauka kartografiatuta.

M. **Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak.** Geoeuskadiren arabera, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioak kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak dituzten 14 industria lurzati biltzen ditu Ataunen.

Aurrerapenean, baldintzatzaile gainjarri hau definitu da: *Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak*. Lurzati horietan, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015

Legearen arabera, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituen lurzoruaren erabilera aldatuz gero, lurzoruaren kalitatea adierazi beharko da.

Era berean, baldintzatzaile horrek eragindako hirigintza eremu bakoitzaren hirigintza fitxetan sartu beharko dira kutsatuta egon daitezkeen lurzoru horien existentzia eta horrek dakartzan legezko betebeharrak.

- N. Klima aldaketa.** Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak klima aldaketaren aurka borrokatzeko irizpideak hartu beharko ditu bere gain, bai emisioak arintzeari dagokionez —energiaren efizientzia, berriztagarriak sustatzea, mugikortasun motorizatuaren beharrak murriztea eta abar—, bai haren ondorioetara egokitzeari dagokionez. Bi alderdi horien irizpideak zehazteari dagokionez, Klima Aldaketak Gipuzkoako Hirigintza Plangintzan dituen ondorioak balioesteko eta integratzeko tresnaren (*Klima Aldaketa Plangintzan Txertatzeko Tresna - Ingurumena - Gipuzkoako Foru Aldundia*) dokumentazioan ezarritakoak hartu ahal izango dira kontuan, hain zuzen ere, egokientzat jotzen direnak, tresnak berak horretarako ahalbidetzen dituen Hiri Antolamenduko Plan Orokorren antolamendu proposamenak aztertu ondoren. Oro har, eta egokitzeko premiei dagokienez, IHOBERen *EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa* azterlanean, hauek nabarmentzen dira arrisku klimatiko nagusi gisa Ataunen: batetik, bero boladek giza osasunean eragindakoa; bigarrenik, ibai uholdeek hiri ingurunean izaniko inpaktuak; eta, azkenik, lehorte handieneko aldiek eragindakoa jarduera ekonomikoetan (nekazaritza eta abeltzaintza).

5.- LURZORU URBANIZAEZINAREN ANTOLAMENDUAN KONTUAN HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra izapidetzean azkenean garatuko den lurzoru urbanizaezinaren antolamenduak natura eta nekazaritza baliabideen erabilera jasangarria bermatu beharko du, eta babes egokia eman beharko die haren osagai baliotsuenei eta/edo hauskorrenei. Antolamendu hori egiteko, beharrezkoa da udalerriko lurzoru urbanizaezinaren multzorako erabilerak eta jarduerak arautzea, eta, horretarako, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan eta Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean definitutako antolamendu kategoriak esleitu behar dira. Era berean, kontuan hartuko dira Aralar Parke Naturaleko eta KBEko gune babestuetarako ezarritako zehaztapenak, bai eta Oria Garaiko KBEa ere, berariazko araudian.

Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioa eremu bakoitzaren ezaugarrietan, harrera gaitasunean, kalteberatasunean eta bertan dauden baliabide naturalen balioan oinarrituta egingo da. Antolamendu horretan, txosten honen aurreko 4. apartatuan aipatutako alderdiak eta Zuzendaritza honek egindako kontsulta izapidetan erakundeek emandako erantzunen edukia hartu beharko dira kontuan.

Gainera, aurrerapenari gehitu zaion baldintzatzaile gainjarriaren proposamen zabala berrikusiko da, eta egiaztatuko da, 4. atalean azaldu den bezala, horietako batzuen kasuan ez ote dagoen bikoiztasunik lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioaren bidez ematen den babesarekin. Hala bada, ezabatu egin beharko lirateke, eremu jakin batean kontuan hartu beharreko erabilera gidalerroak errazago aztertzeke.

Era berean, uste da lurzoru urbanizaezinean jarduera eta instalazio onargarriak kokatzeko eta garatzeko baldintzak finkatu beharko direla, dela Hiri Antolamenduko Plan Orokorren araugintzaren barruan, dela horri buruzko ordenantza arautzaile espezifikoak eginda eta onetsita. Esate baterako, Udalak ezarritako *Energia berriztagarrien hedapena sustatzea* helburua betetzeko, energia berriztagarriak ekoizteko eta energia elektrikoa biltegiratzeko instalazioak ezartzeko eremu egokiak mugatu beharko lirateke, eta zehaztu beharko litzateke, orobat, erabilera horiek lurzoru kategoria desberdinetan ezartzeko araubidea ere —hala, lehendik dauden eraikinetan edota, bestela, lurzoruaren ezartzen lagunduko da—. Hori guztia, azkenik, lurzoru urbanizaezinean garatzen diren beste erabilerekin modu bateragarrian egin beharko da.

Era berean, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek arautuko ditu, besteak beste, hondakin uren bilketa eta tratamendu egokia, obra eta espazio degradatuen paisaia lehengoratzeko, pistak irekitzeko, egiturak paisaian txertatzeko, heskaien kontserbazioa edo landagunea eta natura eremua ingurumenaren aldetik hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren beste alderdi batzuk.

6.- HIRI LURZORUAREN ETA LURZORU URBANIZAGARRIAREN MUGAKETAN ETA ANTOLAMENDUAN KONTUAN HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK.

Txosten honen 3. apartatuan aipatutako helburuekin eta irizpideekin bat etorritik, hiri eremuen antolamenduan eta, kasuak hala eskatzen duenean, sektore urbanizagarri berrien mugaketan eta antolamenduan, gomendio hauek hartuko dira kontuan:

- A. Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasotako hirigintza jarduerak gauzatzeko, proportzionaltasun irizpideak bete beharko dira, eta beharrezkoa izango da, orobat, bizitegi erabileretarako eta jarduera ekonomikoetarako unean-unean benetan dauden beharretara egokitzea, lurzoruaren gehiegizko kontsumoa eta bigarren mailako etxebizitzaren sustapena saihesteko.
- B. Garapen berrien jasangarritasuna bermatuko da, hirigintza araudiaren bidez edo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen hirigintza fitxen antolamendu xehatuan honako helburu hauek dituzten irizpideak eta baldintzak sartuz:
 - Eraikinak saneamendu sistema publikoetan sartzera behartzea, tratamendurako banakako soluzioak eta jabari publiko hidraulikora isurtzeko puntu gehiago saihestuz, Plan Hidrologikoaren Araudiaren 52.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - Zoladuraren eta okupazio iragazgaitzaren zenbatekoa behar-beharrezkoa den azaleretara bakarrik mugatzea, eta drainatze jasangarriko hiri sistemak sartzeko, lehendik dagoen egoerari dagokion balioarekiko jariatze uraren balizko gehikuntza konpentsatu daitekeela edo oso txikia dela bermatzeko, bai eta sortutako jariatze uren tratamendua aurreikusten dela ziurtatzeko ere. Ildo horretan, Plan Hidrologikoaren Araudiaren 48.1 artikuluan adierazitakoaren arabera, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen araudi orokorrak urbanizazio proiektuek urbanizatu beharreko lurzoruko espazio libreen akabera iragazkorren ehunekoak zehazteko beharra jaso beharko du —gutxienez % 20 espaloietan eta % 35 plazetan eta hiri berdeguneetan—.
 - Herriguneak eta eremu urbanizagarriak arrisku naturalen eraginpean ez egotea, Ataun udalerriaren kasuan, uholde arriskuekin lotutakoak kontuan hartuta.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuak betetzea.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritako helburuak, irizpideak eta zehaztapenak betetzea. Hala, energia instalazio berriztagarrien eta beste erabilera batzuen arteko bateragarritasuna bultzatuko da —hala nola lurrazaleko aparkalekua—, aprobetxamendu berriztagarriko instalazioak ezartzea erraztuko da sorkuntza banatuari lotutako lurzoruan, eta beroa aprobetxatzeko sare kolektiboak sartzeko ahalbidetuko da geotermia edo biomasa instalazioen bidez, dela garapen berriko eremuetan, dela hiri eraberritze eta berronerritze eremuetan. Era berean, lege horren 7.5 artikulua betez, erabilera publikoko ibilgailu elektrikoak kargatzeko estazioak aurreikusiko dira hiri inguruneetan, baita bizikleten erabilera eta aparkalekua errazteko espazioak ere.
 - Eraikin eta azpiegitura berriak bisualki eta estetikoki integratzea, Ataungo udal mugartearen paisaia kalitatea zaintzeko eta kultura ondareari ez eragiteko.

- C. Area eta sektore bakoitzeko hirigintza arau partikularrek zerrenda bat jasoko dute, antolamendu xehatua eta urbanizazio proiektuetan nahitaez onartu beharko diren ingurumen baldintzatzaileekin. Horien artean, hirigintza egikaritzean aplikatu beharreko neurri babesleak eta zuzentzaileak sartuko dira, bai eta, kasuaren arabera, urbanizazio gastu gisa hartu beharreko konpentsazio neurriak ere.

7.- INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA

Ataungo Udalak egin behar duen ingurumen azterketa estrategikoa Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren parte izango da, eta han identifikatu, deskribatu eta ebaluatuko dira plana aplikatzeak ingurumenean izan ditzakeen eragin nabarmenak eta teknikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren arrazoizko aukerak, guztia ere plana aplikatzeak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko edo ahalik eta gehien murrizteko, eta, ildo horretan, ingurumenean eta jasangarritasunean ekintza positiboak planteatzeko.

Ingurumen azterketa estrategikoak, gutxienez, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako edukia izango du, bai eta planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinak ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenetarako ezartzen duen edukia ere.

Eranskin horietan definitutako atalak garatzean, txosten honetan adierazi diren alderdiak landu beharko dira, bai eta administrazioek, erakundeek eta alegazioetan interesa duen jendeak arazotsutzat hartu dituzten ingurumen gaiak eta ondoren aipatzen direnak ere:

7.1 Planaren edukiaren eta helburu nagusien laburpena, eta beste plan eta programa batzuekin duen lotura.

Ingurumen azterketa estrategikoak Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren edukiaren laburpen bat aurkeztu behar du (edo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrera jo); bertan, aurrekariak, helburuak, jarduerak eta aurreikusitako zehaztapenak deskribatuko dira, aintzat hartutako gainerako aukerekin batera. Era berean, deskribatuko da planean mugatutako eremuen plangintza xehatua egiteko aurreikusten diren jardueren eta garapen tresnen denbora plangintza ere.

Bestalde, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak hirigintza antolamenduko beste tresna batzuekin eta harekin lotura izan dezaketen lurralde eta sektore planekin dituen harremanak aztertu beharko dira. Gutxienez, alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Beasain-Zumarragako (Goierri) Area Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala.
- Aralarko Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak eta Aralar eta Oria Garaiko KBEak izendatzeko dekretuak.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko ibaiertzak eta errekaertzak antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (Kantauri isurialdea) eta haren 1. aldaketa.
- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren 2022-2027 aldirako Plan Hidrologikoa.
- 197/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatian uholde arriskua kudeatzeko planaren berrikuspena eta eguneratzea onesten dituenak.

- Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Ingurumen Esparru Programa.
- Gipuzkoako Energia Jasangarritasunaren 2050erako Estrategia eta Euskadiko 2030erako Estrategia Energetikoa.
- Klima aldaketaren aurka borrokatzeko Gipuzkoako eta Euskadiko estrategiak.

Koherentzia zehaztu beharko da: batetik, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren helburu eta jardueren eta, bestetik, eremuan eragina duten plan eta programen helburu eta zehaztapenen artean. Helburua izango da helburu komunak lor daitezen sustatzea eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren jarduketa aukerak ebaluatzea, baldin eta gainjartzeak, gatazkak edo bateraezintasunak gerta badaitezke beste programetako helburu eta jardun ildoekin. Era berean, eragin eremuari aplikatu dakizkiokeen gainerako planekin izan daitezkeen albo ondorio metagarriak eta sinergikoak identifikatuko dira. Horrela identifikatutako ondorioak, kasuaren arabera, planaren inpaktuak identifikatzeko eta baloratzeko atalean ebaluatuko dira.

7.2 Nazioarteko, Europar Batasuneko, estatuko, autonomia erkidegoko, lurralde historikoko eta tokiko esparruetan ingurumena babesteko finkatutako helburuak, bai eta plana egiteko kontuan hartu den moduari buruzko justifikazioa ere.

Ingurumen ebaluazio estrategikoak azaldu beharko du nola txertatu diren udal antolamenduan irismen dokumentu honen 3. apartatuan adierazitako ingurumena babesteko eta jasangarritasunerako irizpideak —edo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra formulatzeko garaian ezarritako beste batzuk—, eta, ahal denean, ezarritako edo proposatutako adierazleak eta mugak erabiliko ditu.

7.3 Ataun udalerriaren ingurumen ezaugarriak eta bilakaera, klima aldaketa kontuan hartuta.

Aurkeztutako hasierako dokumentu estrategikoan azaldutako informaziotik abiatuta eta irismen dokumentu honen 4. apartatuan jasotako jarraibideak kontuan hartuta, ingurumen azterketa estrategikoak Ataun udalerriaren ingurumen ezaugarrien deskribapena jaso beharko du, eta, horrekin batera, egungo egoeraren diagnostiko osoa egin beharko du. Horretarako, beharrezko azterketa espezifikoak egingo dira, eta adieraziko da zer informazio eta bibliografia iturri kontsultatu diren, zer landa lan gauzatu den eta zer metodologia baliatu diren.

Diagnostikoan, natura, nekazaritza, ondare eta paisaia baliabideen egoera deskribatuko da, baita hiriguneen eta landaguneen ingurumen kalitatea ere. Era berean, bereziki babestu edo zaindu beharreko elementuak eta/edo baliabideak identifikatuko dira.

Atal horretan, gainera, udalerriak jasaten dituen ingurumen presio eta arazo nagusiak aztertuko dira, arazo horiek Hiri Antolamenduko Plan Orokorri nola eragingo dioten edo plan orokor horrek arazook larriagotuko ote dituen balioesteko.

Deskribapena ez da mugatuko ingurune fisikoaren ezaugarrietara, baizik eta planean ezarritako antolamenduaren ondorioz nabarmen alda daitezkeen hiri metabolismoaren alderdi edo aldagaiei buruzko informazioa eman beharko du, hala nola ur hornidurako eta saneamenduko sistemak, mugikortasun sistema (garraio publikoa/pribatua,

motorizatua/motorizatu gabea), zarata mailak, energia kontsumoa eta abar. Zehazki, eta indarrean dagoen legedia betez, azterlan hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- **Ur baliabideen eskaria.** Uraren Legearen testu bateginaren 25.4 artikuluan aipatzen den Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko txostena egin ahal izateko, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren zehaztapenak dakarten ur baliabideen eskariari buruzko azterlan bat erantsiko da, eta, kasuak hala eskatzen badu, baliabide horiek babesten dituzten administrazio emakidak edo ur eskubideak adieraziko dira. Baliabide hidrikoen premien zenbatespena egiteko, kontuan hartu beharko da Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko *Plan Hidrologikoaren Berrikuspenari buruzko Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren arau xedapenen* I. eranskineko 14. eta 15. artikuluetan eta 6. gehigarrian ezarritakoa (35/2023 Errege Dekretuaren bidez onartu zen berrikuspen hori).
- **Saneamendu eta arazketa eskaria.** Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 245. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzak betetzen laguntzeko, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek zehaztapenok azaleratutako saneamendu eta arazketa beharren azterketa bat jaso beharko du.
- **Zarata.** EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren eremuaren zonakatze akustikoa egingo da —horretarako, kontuan hartuko dira dekretu horren 20. artikuluan eta III. eranskinean definitutako eremu akustikoak—, eta zonakatze hori erakusten duen plano bat erantsiko zaio hirigintza dokumentazioari. Edonola ere, etorkizuneko hirigintza garapenak aurreikusten diren eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek zehatz-mehatz antolatzen dituen sektoreek edo eremuek inpaktu akustikoari buruzko azterlan bat izan beharko dute (urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikuluan jasotakoarekin bat). Azkenik, kontuan hartu behar da Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 50. artikuluan ezarritakoa; horren ondorioz, babestutako kultura ondasunei eragin diezaiekeen kutsadura akustikorik ba ote den aztertuko da, eta beharrezko neurri zuzentzaileak eta babesleak hartuko dira.
- **Jasangarritasun energetikoa.** Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek jasangarritasun energetikoari buruzko azterketa bat jaso beharko du, lege horren 7.3 artikuluan ezarritako alderdiekin.

Udalerriaren gaur egungo ingurumen egoera diagnostikatu ondoren, haren bilakaeraren aurreikuspen bat egin beharko da, ingurumenean eragina izan dezaketen joera sozioekonomikoak eta espero den klima aldaketa kontuan hartuta. Azken alderdi horri dagokionez, komeni da klima aldaketarekin lotutako inpaktu probableenak identifikatzea udalerrian, bai eta lehentasunezko jardun eremuak identifikatzea ere, aldaketa horretara egokitzeari dagokionez.

Ataungo ingurumen ezaugarri orokorrak deskribatu ondoren, xehetasun handiagoz aztertuko da Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek zer zonatan edo tokitan aurreikusten dituen jarduketa handienak edo inpaktu handikoenak, hala nola hiri garapenak egikaritzea aurreikusita dagoen eremuen gainekoak.

Azkenik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31.1 artikuluan auzi horri buruz zehaztutakoa betez, lurzoruek lege horretan jasotako aurreikuspenetarako duten harrera ahalmenaren azterketa bat aurkeztu behar da, zeinak alderdi hauek hartuko baititu kontuan, besteak beste: administrazio hidrauliko eskudunak jabari publiko hidraulikoa babesteari buruz prestatzen duen informazioa; Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornidura eta

saneamendu sareari buruz ematen duen informazioa, planteatutako garapen berriei zerbitzua emateko dauden azpiegiturak nahikoak direla bermatzen duena; eta errepideen eta lehendik dauden beste azpiegitura batzuen arloan eskumena duten administrazioen txostena, planean jasotako aurreikuspenek izan dezaketen inpaktuari buruzkoa.

Atal horrek kartografia tematiko egokia izan beharko du oinarri, azkenean barnean hartzen dituen alderdi guztien inguruan.

7.4 Aukerak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Hartutako soluzioaren justifikazioa.

Ingurumen azterketa estrategikoak Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko helburuei erantzuteko teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren hainbat hautabideren ingurumen azterketa jaso behar du. Aintzat hartutako aukera bakoitzaren ingurumen inpaktua ebaluatuko da, eta planaren helburuei —eta, bereziki, ingurumen helburuei— zenbateraino erantzuten dieten zehaztuko da.

Horretarako, azterketaren eremuko ingurumen elementu eta arazo garrantzitsuak eta ingurumena babesteko helburuak identifikatu ondotik, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra garatzeko eta haren helburuak betetzeko zenbait aukera proposatu beharko dira, bideragarriak direnak teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenari dagokionez. Horien artean, nahitaez sartu beharko da esku hartzerik aurreikusten ez duen aukera bat —edo 0 aukera—; hau da, udalerriaren antolamendu estrukturala ez aldatzea.

Nolanahi ere, aukeren analisiak lehentasunezkoztat jo beharko du dagoeneko urbanizatuta dauden eremuak finkatzea eta berritzea, antzemandako premiak betetzeko, eta ez gaur egun lurzoru urbanizaezinean edo urbanizatu gabea sartuta dauden eremuak garatzea. Ahal denean, gainera, hirigintza jarduerak delineatzeko edo diseinatzeko aukerak alderatuko dira, bai eta horiek gauzatzeko kokaleku posibleak ere.

Proposatutako hirigintza eremuen barruko erabileren banaketari dagokionez, aukeren azterketak alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan:

- Ingurumen arriskuak, hala nola uholde arriskuak edo kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen presentzia.
- Ahalik eta gutxien eragitea eremu babestuei eta espezie babestuentzako intereseko eremuei, balio agrologiko handiko lurzoruei edo nekazaritza ustiatuei, Batasunaren intereseko landarediari eta habitatei, eta jabari publiko hidraulikoa eta haren babes eremuak berreskura daitezen sustatzea.

Egindako aukeren azterketak azaldu beharko du zer metodologia erabili den eta zer neurritan hartu diren kontuan ingurumen faktoreak, faktore tekniko funtzionalak eta ekonomikoak, garatu beharreko irizpide anitzeko azterketa horretan. Balioetsitako alderdi bakoitzean azkenean eginiko aukera ez badator bat ingurumen baloraziorik onenarekin, hautaketa egiteko erabilitako arrazoiak azaldu beharko dira. Horretaz gainera, dokumentazio kartografikoa erantsiko da, proposatutako aukeren kokapenarekin eta ezaugarriekin.

Aurrerapen dokumentuan jasotako planteamenduak kontuan hartuta, aukeren analisiak azterketa xehatu hauek jaso behar ditu:

- **Bizitegi garapen berrietarako kokaleku aukerak.** Lehenik eta behin, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren indarraldirako udalerrian zenbat etxebizitza behar diren zehaztu behar da, eta egindako zenbatespena parametro sozial, demografiko eta ingurumenekoetan oinarrituta justifikatu behar da, betiere betiere Lurralde Antolamendurako Gidalerroek

kuantifikazio horri buruz ezartzen dituzten mugen barruan. Bizitegi ahalmena zehaztu ondoren, azkenean sakonago aztertzea erabaki diren kokapen aukerak eta bizitegi banaketa aztertuko dira. Azterketa horretan kontuan izan beharko da aintzat hartutako etxebizitzaren tipologia eta kokapen aukeren ingurumen inpaktua, ingurumen elementu baliotsuetan eragin nabarmenak eragiten dituztenak baztertzeko: gunee babestuak (Aralar eta Oria Garaiko Parke Naturala eta KBEak), interes bereziko eremuak espezie babestuentzat (hala nola bisoi europarrarentzat eta muturluze piriniotarrarentzat), balio agrologiko handiko lurzoruak eta/edo martxan dauden nekazaritza ustategiei lotutakoak eta abar. Era berean, baztertu egingo dira urpean geratzeko arriskua dela-eta pertsonen edo ondasunen kalte egiteko arriskua areagotzen dutenak.

- **Jarduera ekonomikoetarako, espazio libreetarako eta ekipamenduetarako lurzoru aukerak.** Azterketa horretan, udalerrian jarduera ekonomikoetarako, espazio libreetarako eta ekipamenduetarako dauden benetako lurzoru beharrak zehaztu behar dira. Behar horiek ezarri ondoren, jarduera ekonomikoetarako, azkenean sakonago aztertzea erabakitako espazio libreetarako eta ekipamenduetarako kokapen eta banaketa aukerak aztertuko dira. Azterketa hori jasangarritasun irizpideen arabera egingo da beti, eta baztertu egingo dira, bizitegi garapen berrietarako bezala, ingurumen elementu baliotsuetan inpaktu nabarmenak eragiten dituztenak: gunee babestuak (Aralar eta Oria Garaiko Parke Naturala eta KBEak), interes bereziko eremuak espezie babestuentzat (hala nola bisoi europarrarentzat eta muturluze piriniotarrarentzat), balio agrologiko handiko lurzoruak eta/edo martxan dauden nekazaritza ustategiei lotutakoak eta abar. Era berean, baztertu egingo dira urpean geratzeko arriskua dela-eta pertsonen edo ondasunen kalte egiteko arriskua areagotzen dutenak.

7.5 Hiri Antolamenduko Plan Orokorren zehaztapenak eta jarduketek ingurumenean dituzten ondorio adierazgarriak identifikatzea eta balioestea.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aurreikusitako jarduketek ingurunean elementuetan izango duten inpaktua identifikatuko eta balioetsiko da, eta, besteak beste, elementu hauek:

- Oria Garaiko eta Aralarreko KBEak: Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46. artikulua betez, gunee horietan dituzten ondorioen ebaluazio egokia egingo da.
- Aralarreko Parke Naturala.
- Batasunaren intereseko habitatak.
- Espezie babestuentzako interes bereziko eremuak (bisoi europarra eta muturluze piriniotarra).
- Balio estrategiko handiko nekazaritza lurrak eta martxan dauden nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak.
- Jabari publiko hidraulikoa eta haren babes eremuak, bai eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko eremu babestuak ere.
- Paisaia.
- Hiri ingurunearen kalitatea, zaratari, zirkulazioari eta halako alderdiei dagokienez.
- Giza osasuna.
- Ondare monumentala eta arkeologikoa.

Era berean, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean planteatutakoak zer neurritan eragingo duen kalkulatu beharko da.

- Mugikortasun eskaria.
- Ura, energia eta beste zenbait baliabideren kontsumoa.
- Hondakin urak isurtzea eta hondakinak sortzea.
- Uholde arriskua.
- Klima aldaketa arintzea eta hartara egokitzea.

Aztertutako inpaktuek barnean hartu behar dituzte albo ondorioak, metatze ondorioak, sinergia ondorioak, iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak, bai eta epe labur, ertain eta luzekoak ere.

Identifikazioa eta balorazioa ez dira mugatuko antolatutako eremuaren eraldaketa fisikoak eragindako zuzeneko inpaktuetara; aitzitik, kontuan hartu beharko dira proposatutako antolamenduak edo erabileren eta jardueren erregulazioak eragindako zeharkako ingurumen-inpaktuak ere.

Hautemandako inpaktuen garrantzia zehazteko, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen III. eranskinean eta planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren III. eranskinean ezarritakoa betetzen saiatu beharko da.

Identifikatutako inpaktu bakoitza magnitudearen eta intentsitatearen arabera karakterizatu eta baloratu beharko da, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinaren 8. apartatuan adierazitako terminologiaren arabera. Horretarako, aldeztu aurretik definitutako inpaktu adierazleak (adierazgarriak, garrantzitsuak, baztertzailak, zenbatesgarriak eta erraz identifikatzeko modukoak), afekzioa behar bezala deskribatutako dutenak, bai eta ingurumen kalitatearen helburuak ere, inpaktuari dagokionez onargarriak diren gutxienez mugak finkatzeko, eta erreferentzia gisa hartuko dira kasu bakoitzean indarrean den legeria eta organo eskudunen jarraibideak.

Era berean, balioespen horrek ezarriko ditu, kasuak hala eskatzen duenean, indarrean dagoen lurralde, hirigintza eta ingurumen plangintzarekin bateragarriak ez diren Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen jarduketak edo ingurumen inpaktu kritikoak edo onartezinak eragiten dituztenak. Bi kasuetan, horrek jarduketa horiek aldatzea edo ezabatzea eragingo du.

Azkenik, inpaktuen ebaluazioa prozesuaren ondorengo faseetara atzeratzeko alderdiak arrazoituko dira, egokiagozat jotzen baita.

7.6 Ingurumen integrazioko neurriak

Ingurumen txosten estrategikoak zenbait neurri zehaztuko ditu, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aurreikusitako jarduketengatik ingurumenean garrantzitsutzat jo diren inpaktu guztiak prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian, indargabetzeko.

Era berean, ingurumen alderdiok Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean sartzeari dagokionez, ez litzateke mugatu behar balizko inpaktu bati erantzuteko neurriak ezartzera; izan ere, komenigarria da neurri horiek ingurumen arazoak zuzentzen eta udalerrian ingurumen kalitate handiagoa lortzen lagunduko duten beste batzuekin osatzea.

Hartara, tankera honetako neurrien bidez egin behar da Ataungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren ingurumen integrazioa:

- Lurralde plangintzan eta hiri diseinuan ingurumen alderdiak kontuan hartzea eta txertatzea, lehendik dauden arazoak edo inpaktuak prebenitzeko edo zuzentzeko. Oro har, ez da behar izaten aurrekontu espezifikorik. Besteak beste, hauek jar daitezke adibidetzat: lurzoru urbanizaezinaren antolamendu bat definitzea, natura balioen babes egokia bermatuko duena; eragina izan dezaketen jarduerak arautzeko ordenantzak onestea; garapen berrien kokapena hautatzea oso sentikorak ez diren eremuetan; eraikinak egokiro orientatzea, haien energia portaera hobetzeko eta eguzki argia hobeto aprobetxatzeko, eta abar.
- Hiri Antolamenduko Plan Orokorren zehaztapenak garatzen dituzten plan eta proiektuen ingurumen inpaktu negatiboak prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak, klima aldaketan duten eragina arintzeko eta horretara egokitzea ahalbidetzeko neurriak barne. Neurri horiek egikaritze proiektuen osagaitzat hartu beharko dira, eta, hala diren heinean, haien aurrekontuetan jaso beharko dira. Horietako asko garapen planarekin edo proiektuarekin batera zehaztu beharko dira, baina, kasu guztietan ere, Hiri Antolamenduko Plan Orokorak identifikatu egin beharko ditu eta gutxieneko karakterizazio bat egin beharko du; era berean, zehaztu beharko du nahitaezkoa ote den garapen plan eta proiektuetan horiek zehaztea.
- Kapital naturalaren galerak konpentsatzeko neurriak, baldin eta galerak saihestezin gisa ebaluatu badira. Planteamendu tresnan, eskakizun hauek zehaztu behar dira:
 - Berreskuratu beharreko eremu degradatuetan, tokiko korridoreen sarean eta balizko aukeretan oinarrituta lehentasunak zehazten dituen azterketa batetik abiatuta konpentsatzen da.
 - Konpentsazio jarduketak hartuko dituzten lursailak lortzeko, beharrezkoa da sailkatutako lurzoruari lotuta geratzea —esate baterako, atxikitako sistema orokor baten bidez edo zuzkidura publikoak lortzeko jarduketa baten bidez—.
 - Konpentsazio neurrien kostuak sektore berriaren urbanizazio gastua izan behar du.
 - Konpentsazio neurriak eraikitze lizentziak eman aurretik bete beharko dira.
- Udalerriko ingurumena hobetzeko jarduketak, guneko eremu jakin batzuetako ekologia eta/edo paisaia lehengoratzeko edo ingurumen kalitatea hobetzea helburu dutenak. Ondorio horietarako, komeni da Hiri Antolamenduko Plan Orokorak leheneratu beharreko kokalekuen edo garatu beharreko ingurumen hobekuntzako jarduketan lehentasun ordena identifikatzea eta zehaztea, bai eta horiek gauzatzeko programa bat ezartzea ere.

Ingurumena integratzeko neurriek Hiri Antolamenduko Plan Orokorren hirigintza dokumentazioan jasota egon beharko dute, eta haien kostu ekonomikoa eta finantzatzeko moduak kalkulatu beharko dira —udal aurrekontuen kargura, dirulaguntzen bidez, beste erakunde batzuen hitzarmenen bidez, urbanizazio gastuen kontura, eta abar—. Era berean, beharrezkoa izango da horiek gauzatzeko denbora plangintza bat ezartzea ere. Azkenik, garapen plan eta proiektuetan kontuan hartu beharreko neurriak zehaztuko dira.

7.7 Planaren ondorioak zaintzeko programa.

Ingurumen azterketa estrategikoak Hiri Antolamenduko Plan Orokorak ingurumenean dituen ondorioak zaintzeko programa bat jaso behar du, identifikatutako inpaktu esanguratsu

bakoitzaren jarraipena egin ahal izateko, neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak bete ahal izateko eta, oro har, neurri horiek eraginkorrak izan daitezen, bai eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean zehaztutako ingurumen helburuak lortu ahal izateko ere.

Horretarako, programak hauei buruzko informazioa jaso behar du aldian-aldean:

- Zenbateraino bete diren proposatutako ingurumen helburuak.
- Abian jartzearen ondoriozko ingurumen ondorio negatiboen garrantzia.
- Neurri prebentibo, zuzentzaile eta, kasuak hala eskatzen badu, konpentsatzaileen aplikazioa eta eraginkortasuna, barnean harturik neurri horiek plana garatzeko ondoz ondoko dokumentuetan eta gauzatze proiektuetan sartzeko aukera.
- Agertu diren inguruneke elementuetan aurreikusi ez diren ingurumen ondorio kaltegarriak identifikatzea.
- Sektorean eskumena duten erakundeek edo administrazioek (urak, hondakinak, zarata, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruek, errepideak, jarduera sailkatuak eta bestelakoak zuzentzen dituzten erakundeek) eta udal baimenetan ezarritako ingurumen baldintzak betetzea.

Horretarako, gainbegiratze programak alderdi hauek jaso beharko ditu:

- Jarraipena egin behar zaion ingurumen sistemak, alderdiak edo aldagaiak identifikatzea.
- Egin beharreko jarraipen eta kontrol jarduerak, metodologiarekin (datuak hartzeko estrategiak, aldizkakotasuna, eta abar) eta dagokion kronogramarekin.
- Erabili beharreko jarraipen adierazleak, dagozkien unitate eta muga eta/edo erreferentzia mailekin. Adierazle gisa, dokumentu honetako 8. apartatuan iradokitakoak edo egokitzen jotzen diren beste batzuk erabili ahal izango dira.
- Ingurumen jarraipenaz arduratzen diren pertsonak eta/edo erakundeak.
- Egin beharreko txostenen edukia eta aldizkakotasuna.
- Aurreikusitako aurrekontua.

7.8 Laburpen ez-teknikoa

Ingurumen azterketa estrategikoan emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat idatzi beharko da, informazio zehatzarekin eta jende guztia erantzutatzeko eskuragarri.

Laburpen horretan, gutxienez, alderdi hauek jasoko dira: Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen bidez lortu nahi diren helburu orokorrak eta ingurumen helburuak, kontuan hartutako aukerak, horietako bakoitzak ingurumenean dituen ondorioen laburpena, eta azkenean aukeratutako soluzioaren alde egin izanaren arrazoiak.

Laburpena osatzeko, diseinatutako neurri zuzentzaileak eta parte hartze publiko eta administratiboko prozesuaren ondorioak deskribatuko dira.

Era berean, alderdi aipagarrien dokumentazio grafikoa erantsiko da.

7.9 Aukeren eta neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileen bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.

Aukeren azterketari gutxi gorabeherako azterketa ekonomiko bat gehituko zaio, kostu-irabazien analisia eta analisi ekonomiko-finantzarioa kontuan hartuta, eta, ahal den neurrian, barnean hartuko du ingurumen eta gizarte alorretako kanpo kostuen azterketa ere.

Atal horretan sartuko da, orobat, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aplikazioak sor ditzakeen ondorio negatiboak prebenitzeko, murrizteko edo arintzeko neurrien kostuaren zenbatespen eta/edo aurrekontu banakatua, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren ondoriozko ingurumen kostuak barneratzen direla bermatzeko. Era berean, neurri horien finantzaketa iturriak ere jasoko dira, zeinak Ataungo udal aurrekontuen kontura hartuko baitira eta, kasuak hala eskatzen duenean, bereizi egingo dira hirigintza proiektuen edo jardueren sustatzaileek beren gain hartu behar dituztenak.

8.- INGURUMEN EBALUAZIORAKO ETA GAINBEGIRATZE PROGRAMARAKO KONTUAN HARTU BEHARREKO ADIERAZLE KUANTITATIBOEN ETA/EDO KUALITATIBOEN PROPOSAMENA

Aukeren ingurumen ebaluaziorako eta gainbegiratze programarako hautatutako adierazleak aldagaien konbinazio bat izango dira, alde batetik, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren finkatzen dituen ingurumen helburuak betetzen direla egiaztatzeko, eta, bestetik, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren garatu bitartean izango dituen ingurumen inpaktuen aurreikuspenak betetzen direla egiaztatzeko; hori horrela, neurri zuzentzaile gehigarriak sartu ahal izango dira, ingurumen helburuekin alderatuta ez-betetzeak edo aldaketak gertatzen badira.

Ingurumen adierazleak:

- Ezarritako ingurumen helburu eta irizpideekin lotuta egon behar dute, benetan kudeaketa tresna gisa funtziona dezaten, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren formulazioan eta aplikazioan esku hartzen duten eragileei erantzukizunak finkatzeko.
- Denbora serieetan neurtzeko eta aztertzeko modukoak izan behar dute. Denboran aldakortasuna islatu behar dute, joera negatiboak prebenitzeko edo zuzentzeko aukera emango duten moduan.
- Gutxi izan behar dira, inplikaturako eragile guztiek erraz ulertzeko modukoak. Horretarako, samurrak eta interpretatzen errazak izan behar dute.
- Eskuragarri egon behar dute, eta ez dute informazio iturri askoren beharrik izan behar horiek lortzeko.

Ataun udalerriaren ezaugarriak eta aurrerapenean eta hasierako dokumentu estrategikoan jasotako planteamenduak kontuan hartuta, hauek izan daitezke adierazle erabilgarri batzuk: lurzoruen kontsumoa balioestera bideratutakoak (azalera artifizializatuaren ehunekoa azalera osoaren gainean), udal mugartean balio estrategiko handia duten lurzoruen ehunekoa, interes komunitarioko habitatek okupatutako azaleraren ehunekoa eta intereseko landaredia... Era berean, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketako Zuzendaritzak proposatutako *ingurumen helburuen eta jasangarritasun printzipioen adierazleak* sartzea baloratuko da, Zuzendaritza honek egindako kontsulta izapideari erantzunez.

9.- INFORMAZIO ETA KONTSULTA MODALITATEAK

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. eta 22. artikuluetan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan informazio eta kontsulta modalitateei buruz ezarritakoa betez,

Ataungo Udalak, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren prozedura substantiboan aurreikusitako izapideen barruan, jarduketa hauek egingo ditu:

- a) Ukituriko administrazio publikoei eta herritar interesdunei kontsulta egitea, plan edo programaren eta ingurumen azterketa estrategikoaren aurretiazko bertsioari buruz.
- b) Plan edo programaren eta ingurumen azterketa estrategikoaren aurretiazko bertsioa jendaurrean jartzea, iragarkia aldizkari ofizialean argitaratzearen bidez. Gutxienez 45 egun izango dira aztertze eta oharrak egiteko.

Aurrekoaren ondorioetarako, ukituriko administrazio publikotzat eta publiko interesduntzat hartuko dira Ingurumen Administrazio Zuzendaritzak irismen dokumentu hau idazteko kontsultatu dituen administrazio, erakunde eta pertsonak —dokumentu honen 2. apartatua—, bai eta Ataungo Udalak plana izapidetzeko prozesuan identifika ditzakeen erakunde eta interesdun gehigarriak ere (ukituriko lurren jabeak, auzo elkarteak, eta abar).

10.- INGURUMEN ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN ETA JENDAUERREKO INFORMAZIO ALDIAREN ONDOREN PLANEAN EGIN DAITEZKEEN ALDAKETEN ESKAERA

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24. eta 25. artikuluetan eta planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, Ataungo Udalak ingurumen adierazpen estrategikoa egiteko eskatuko dio Ingurumen Administrazio Zuzendaritza honi, plana edo programa behin betiko onetsi aurretik. Eskabide horrekin batera, ingurumen ebaluazio estrategikoaren espediente osoa aurkeztu beharko da, agiri hauek barne:

- Hiri Antolamenduko Plan Orokorren hirigintza dokumentuak.
- Ingurumen azterketa estrategikoa.
- Dagokion araudi sektorialaren arabera nahitaezkoak diren txostenen kopia, eta kontsulten eta informazio publikoaren izapideetan egindako alegazioak.
- Laburpen dokumentu batean, Ataungo Udalak deskribatuko du nola txertatu diren Hiri Antolamenduko Plan Orokorren azken proposamenen ingurumen alderdiak, bai eta ingurumen azterketa estrategikoarenak ere; era berean, jasoko du zer-nola egokitzen diren irismen dokumentura, zein diren egindako kontsulten emaitzak, eta kontsulta horiek nola hartu diren kontuan.

Plana izapidetzen den bitartean eta kontsulten eta jendaurreko informazioaren izapidearen ondoren, kontuan hartu beharko da ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen eta ebaluatu ez diren aldagetak egitea erabakitzen bada, eta, kasu guztietan ere, 211/2012 Dekretuaren 4. artikuluko kasuren batean badaude, Ataungo Udalak jakinaren gainean ipini beharko duela zuzendaritza hau, eta behar den dokumentazioa bidali beharko du, aldatutako planaren edo programaren alderdiak ebaluatzeko.



Donostia, 2024ko azaroak 11.

Ingurumen Administraziooko zuzendari nagusia

Sin.: Miriam Oca Pascual

5. PLAN OROKORRAREN BEHIN BETIKO HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK

Ondoren zerrendatzen diren helburu eta irizpide orokorrak jendaurrean jarritako Aurrerapen agirian dute oinarri eta herritarren partaidetza prozesuan jasotako ekarpenak eta iradokizunak aintzat hartu ondoren Ataungo Hiria Antolatzeke Plan Orokorraren gidalerro nagusia osatzen dute, Irismen agiriak ezarritako ingurumen helburu estrategikoekin batera.

**Aurrerakin agiriarekiko txertatu diren aldaketak nabarmenduko dira, baita eztabaida prozesu nagusien laburpena ere, behin betiko aukeratutako soluzioak justifikatzen dituztenak.*

A4.0 ALDERDI OROKORRAK

2023. urtean burutu den diagnosian nabarmen geratu den bezala, **Ataunek berebiziko erronka demografiakoari egin beharko dio aurre** hurrengo hamarkadetan. Egungo joera betikotuz gero, hau da, hazkunde begetatiboa zein migrazio saldoa emaitza negatiboetan egonkortuz gero, **Ataunek %4,5 inguruko biztanleria gal dezake** hurrengo 15 urteetan. Eta egoerak ez du hobetzeko zantzurik ageri gaurtik hasita neurriak hartzen ez badira.

Gure iritziz, biziberritze demografikoa **biztanleria gaztearen errotzetik** eta udalerriak batik bat BOL (Beasain-Ordizia-Lazkao) eremuarekiko duen **migrazio saldoa iraultzetik** etorriko da. Eta horretarako beharrezkoa da, batetik, **udalerrian bere bizi-proiektua garatu** nahi duen ataundar ororentzat baldintzak sortzea, bizitegi, lan edo gizarte arrazoiengatik alde egin behar izanik gabe, eta bestetik, inguruko udalerriek eskaini ezin dituzten **bizimodu “alternatiboak”** antolatzea.

Ataungo ehun produktiboak potentzialtasun mugatua du eta ez du, epe motz-ertainean behintzat, eskualdeko ekonomia egiturak udalerrian sortzen duen ongizatea ordezkatzeko. Baina, **iraunkortasun paradigma oinarri hartuta**, tokiko nekazaritza-abeltzaintza eta ingurumen- zein kultura-ondarea ustiatuko dituen eredu ekonomikoa **herri-nortasun berritu baten ardatza** izan daiteke. Bide batez, Goierriko dinamismo ekonomiko handiko eremuarekiko duen **mendekotasuna baliatu** beharko luke Ataunek, tokiko beharrak ahaztu gabe, eskualdearen eskakizunetara egokitutako **funtzio eta zerbitzu osagarriak** garatuz.

Bistakoa da helburu hauek hirigintza plangintzaren eskumenetatik ihes egiten duten ekimen eta erabakien beharra dutela, eta batez ere, ezinbestekoa da Ataundarren bultzada. Hala ere, ezin uka daiteke etorkizuneko Plan Orokorrak baduela aurrean saihestu ezinezko erronka: udalerria jarduteko hirigintza-esparru batez hornitzea non **administrazioaren eta herritarren jarduna eta ekintzailatza bateratuak** bultzatu eta erraztuko diren. Edo, behintzat, ez dadila oztopo izan bere helburuak lortzeko.

Ilido beretik, aurrerago aurkeztuko diren izaera orokor edota sektorialeko irizpideez gain, berebiziko garrantzia du gure ustez Ataunen egun indarrean den lurralde- edo **hiri-eredua berrikustea**, udalerriaren eremu hiritarra begiratzeko, aztertzeke eta proiektatzeko **paradigma aldaketa**. Hau da, indarreko plangintzak auzuneak modu isolatuan antolatzeke duen joera gainditu eta Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea **modu bateratuan garatu beharreko hiri-gune gisa** ulertzea beharrezkoa da.

Azkenik, indarreko Arau Subsidiarioen berrikuspena baliatu behar da udalerriko plangintza orokorra **udalaz gaindiko lege, araudi edota plangintza tresna ugarietara egokitzeke**, 2005. urtetik gaurdaino lurralde plangintzaren eta hirigintzaren lege-esparrua goitik behera aldatu baita.

Beraz, testuinguru honetan landua, eta EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen II. Kapituluko hirigintza-oinarri orokorren garapen modura, Ataungo etorkizuneko plangintza orokorrak jarraitu beharreko irizpide nagusiak honakoak dira:

1. Garapen jasangarria. “Oraingo belaunaldien beharrak etorkizuneko belaunaldiek euren beharrei erantzuna emateko aukerak arriskuan jarri gabe asetzea” esan nahi baita. Garapen jasangarria, bere hiru alderdietan banatua, ekologikoa, ekonomikoa eta soziala, hirigintza plangintzaren jarduketa esparruan honako zehaztapenetara hedatzen da:

- a) [jasangarritasun ekologikoa: *Irismen agiriko ingurumen helburu estrategikoen laburpena.](#)
- Ingurumen kalteen prebentzioa lehenetsi, zuzentzearen eta konpentsatzearen aurretik. Saihestezinak gertatzen diren kapital naturalaren galerak konpentsatu.
 - Lurzoruaren balio natural eta agrologikoa babestu eta berreskuratu.
 - Habitaten garapena eta berroneratzea bultzatu, klima aldaketaren erresilientzia hobetzeko. Ingurumena hobetzeko proiektuak eta jarduerak proposatu eta jaso.
 - Gainazaleko ibai sarea eta lurrazpiko urak babestu, zaindu eta lehengoratu, Uren Esparru Zuzentzailearen helburuak lortzen saiatu.
 - Natura-guneen eta elementu naturalen kalitatea eta funtzio aniztasuna kontserbatu eta berroneratu, udalerriko azpiegitura berdearen plangintza eta kudeaketa egokiaren bidez, balio ekologiko handiko eremuen arteko konektibitatea sustatuz.
 - Paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolamendua sustatu eta plangintzan txertatu, Paisaiaren Europako Hitzarmenak ezartzen duen bezala, alderdi kulturala barne hartuz eta euskararen gaineko ondorioei arreta berezia jarritz.
 - Ingurumen zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna mantendu eta hobetu.

- Jasangarritasun energetikoaren baldintzak txertatu lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan.
 - Energia auto-hornidura bultzatu.
 - Lehendik dauden eraikin eta espazio urbanizatuen efizientzia energetikoa hobetu.
 - Baliabide naturalen ustiapen eraginkorra sustatu, ekonomia zirkularra (gutxitu-berrerabili-birziklatu) bultzatuz eta hondakinen ekoizpena murriztuz.
 - Lurzoruaren erabilerak arautzerakoan, kontuan hartu baliabide naturalen eta nekazaritzako baliabideen kalitatea eta kalteberatasuna.
 - Lurzoru urbanizaezinaren antolamendu egokia ezarri, landa ingurunea zaintzeko.
 - Sailkatutako lurzoruen okupazioa agortu lurzoru berriak okupatu aurretik.
 - Hiri garapenak eta azpiegiturak kokatzeko alderdi hauek bermatu:
 - Baliabide natural baliotsuen gaineko inpaktua minimizatu.
 - Arrisku naturalak aurreikusi eta saihestu.
 - Ur hornidura eta saneamendu sareak egokitu eta eskura ipini.
 - Energia efizientzia pasiboko baldintza egokiak bermatu.
 - Hiri eremu trinko eta askotarikoa lehenetsi, erabilera nahasiko eta konplexutasun onekoa, dentsitate txikiko eta oso baxuko bizitegien tipologiai saihestuz.
 - Lehendik dauden hiri ehunak birgaitu, berregituratu eta berritu.
 - Mugikortasun jasangarria eta aktiboa sustatu, garraio publiko, oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna lehenetsiz, motordun ibilgailu pribatuen erabilera mugatuz.
- b) jasangarritasun ekonomikoa:
- komunitatearen ekonomia-ongizatea eta -garapena sustatzea, produkzio erabilerara bideratutako lurzoruaren nahikotasuna eta egokitzapena bermatuz;
 - hirigintza plangintzak administrazio publikoengan eragiten duen inpaktua neurtzea, tokikoetan bereziki, beharrezkoak diren azpiegituren ezartze eta mantentzeengatik edo ondoriozko zerbitzuen prestazio eta abiarazteagatik;
 - plangintzak proposatutako jarduketan bideragarritasun ekonomikoa bermatzea.
- c) jasangarritasun soziala:
- herritar guztien berdintasun eta kohesio soziala sustatzea, Ataungo emakumeen egoera sozio-ekonomikoari arreta berezia emanez;
 - helburu orokorren jazarpenean herritarren inplikazioa sustatzea, herritarren partaidetza eta demokrazia zuzenaren bidez.

2. Interes publikoa. Errotik baztertu behar dugu “ez dago interes orokor eta partikularren artean benetako desberdintasunik, interes orokorra interes partikularren batuketa edo multzoa den neurrian” aldarrikatzen duen ideia.

Aitzitik, gure iritziz, interes orokorra ezin da interes partikularretatik sortu, horiek edo horien batuketa gainditzeko dituen heinean. Ikuspegi honen baitan, interes orokorra “borondate orokorraren” adierazpen bat da, edo guztien interesaz besterik arduratzen ez dena.

Nolanahi ere, arlo horretan demokratikoki hautatutako eta eskumena duten botere publikoei dagokie interes publikoaren definizio zehatza, hirigintza-plangintzak lurzoruaren erabilera antolatzea legitimatzen duena. Hala ere, botere publiko horiek Ataungo herritar guztien esku utz dezakete “borondate orokorra” osatzea, herritarren partaidetzarako eta zuzeneko demokraziarako tresnen bitartez.

Tresna hauetako batzuk burutu dira jada edo Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren (HAPO) diagnosi fasearen aurretik onartutako herritarren parte-hartze programan jasoak daude; gainera, plangintzaren lanketa eta izapidetze prozesuan zehar tresna berriak ere onartu daitezke, hala erabakiko balitz.

3. Hitzarmena. Indarreko Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) ezarritako ingurune fisikoaren eta lurralde ereduaren esparruan “lurraldera sartzeko gunea” bezala izendatzen da Ataungo udalerria, Aralar Parke Naturala dela eta. Baldintza hau Plan Orokorraren idazketarako hautatutako eredu sozio-ekonomikoaren funtsezko elementuetako bat bilakatzen da, aipatu bezala, **iraunkortasun paradigma oinarri hartuta**, tokiko nekazaritza-abeltzaintza eta ingurumen-zein kultura-ondarea ustatutako dituen eredu ekonomikoa **herri-nortasun berri baten ardatza** baita.

Nahiz eta Aralar ondare naturalaren kudeaketa bateratuak hainbat mendeko historia izan, enkoadraketa funtzional egokia lortu asmoz gomendagarria litzateke mugakide diren udalekin komunikazio arin eta jarraitua mantentzea, ereduak lurralde eta sektore plangintzaren babesa izan dezakeela alde batera utzita.

4. Herritarren partaidetza. Arestian azaldu den moduan, jasangarritasun sozialaren oinarritzko atala osatzen du, herritarrak helburu komunen jazarpenean inplikatzeko forma gisa. Ez dago errepikatu beharrik garatuko den HAPOk hautatutako lurralde ereduarekiko Ataungo herritarren identifikazioak duen garrantzia, horrela soilik bihurtuko baita etorkizuneko erronkei aurre egiteko baliabide eta tresna egokia.

A4.1 INGURUMEN ETA INGURUNE FISIKOAREN ALDERDIAK

Ereduaren jasangarritasun orokorraren baitan, atal honen helburu espezifikoak hurrengoak dira:

- 1) Biodibertsitatearen eta espazio naturalen babesa eta zaintza.
 - Lurralde antolamendu sektorialek babestutako espazio naturalen araudi eta mugapena jaso, Aralar Parke Naturalari dagokionez bereziki.
 - Ingurune fisikoaren konektagarritasun eta jarraitasuna bermatu, hiri espazio libreak barne, isolatze kasuak eta beronen zatiketa saihestuz.
- 2) Ibai-sarearen babesa eta berreskuratzea.
 - Agauntza ibaiaren ibilgua eta ibaiertzeko landaredi naturala babestu eta berreskuratzea, ertzen birsorkuntza sustatuz.
 - Azaleko drainatze sarea babestu eta mugatu, ubide nagusiak, bere ibaiadar eta goi-ibarreko errekek barne hartuz.
 - Gaur egungo baliabide hidrológicoak eta akuiferoen kargatze ziklo naturalak babestu, arro hartzaileen landare-estalkia eta lurzoruak zainduz.
- 3) Ingurumen arriskuen prebentzioa.
 - Uraldi, zarata eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen araudia aplikatu eta hauen berreskuratzea sustatu.
 - Lurzoruaren malda, litologia eta geruzen antolamendua balioztatu, baita honen higakortasuna eta akuiferoen ahultasuna ere.
- 4) Nekazaritza eta baso lurzoruen babes eta birsorkuntza.
 - Baso autoktono eta nekazaritza lurzoruak babestu eta indartu.
 - [Kudeaketa jasangarri bidez ustiapen intentsiborako egokiak diren udal-jabetzako baso-lurzoruak mugatu eta arautu, haien inbentarioa eginez eta kudeaketa plana garatuz.](#)
**5.2 iradokizuna aintzat hartuz.*
 - Nekazal eta baso-lurzoruaren ziklo naturalen ingurumen kalitatea zaindu, baita bere inguru ekologikoena ere.
- 5) Paisaiaren berreskuratze eta babesa.
 - Bat ez datozen elementuen zaharberritze eta paisaia-integrazio jarduketak sustatu.
- 6) Herritarren sentsibilizazioa eta ingurunearen ustiapen arduratsua sustatu.
 - Bide, bidezidor eta dibulgaziorako, balioa azpimarratu eta udal mailan babesteko interes naturalistiko berezia duten guneen katalogo bat egin.

A4.2 NUKLEO LANDATARRAK

Ataungo udalerrriak “barreiatutako” eremu zabala du, hein handi batean tipologia tradizionaleko baserriez eta azken urteetan eraikitako bizitegi eraikin isolatu batzuez osatua, azken hauek zorionez erreferentziazko beste eremu batzuetan baino gutxiago ugaritu direlarik.

Bere aldetik, indarreko plangintza orokorrak “landa-gune” izendatzen ditu Arinberriaga eta Ergoiena auzuneak, 2/2006 Legearen 29. artikuluko zehaztapenen arabera. Plangintzak hautatu helburu eta irizpide orokorren esparruan aztertu beharko du izendapen hauen egokitasuna, baita izendapena jasotzeko baldintzak betetzen dituzten beste auzuneen kasuan ere.

Edonola, atal honen helburu espezifikoak honakoak dira:

7) Baserriaren tipologia tradizionalaren berreskuratze eta babesa.

- Lurzoru ez urbanizagarrian etxebizitza erabilera soil izango duten eraikin berrien eraikuntza saihestu, gai honetan indarrean dagoen legediaren babespean, 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, nagusiki.
- Gaur egun hondatuta dauden eta/edo erabiltzen ez diren baserriak birgaitzea eta berrerabiltzea sustatzea, horien banaketa horizontala barne. Horrek ez du esan nahi, inola ere, nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak bertan behera utzi behar direnik eta bizitegi erabilera soilera bideratu behar direnik.

**Herritarren partaidetza prozesuan zehar jaso dira lurzoru urbanizaezinean kokatutako baserriak banantzeko baldintzak malgutzaren aldeko iritziak baina, gure iritziz, Aurrerapen agiriak jasotako helburu orokorrak modu egokian laburbiltzen ditu alor honetan babestu beharreko alderdi zein ikuspuntu ezberdinak. Izan ere, aipatu helburuari eraikitako ondarea babestea, birgaitzea eta erabileran jartzea, eta baserriak lurraldean historikoki izan duen funtzio egituratzailea bermatzea ere erantsi behar baitzaizkio, halaber, lehen mailako helburu bateragarri gisa eta bakar bat ere baztertu gabe.*

- Baserriaren egungo ekoizpen moldeetara egokitutako eraikuntza osagarriak antolatu eta arautu, txabolak besteak beste, nekazaritza eta abeltzaintzari sostengua eta ingurune fisikoaren ingurumen eta paisaiaren ezinbesteko zaintza bateragarri eginez eta, beti ere, udalerriaz gaindiko arautegiak ezartzen dituen baldintza zein mugen barnean.

**Aldaketa hau partaidetza prozesuan zehar herritarrek azaldutako kezkari erantzutera dator, ahaztu gabe EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPS edota Aralarko Parke Naturalaren Baliabideak Antolatzeko Plana delakoek, besteren artean, eskumen esparru mugatua uzten diotela Plan Orokorraren lurzoru urbanizaezineko ordenantzari.*

Gainera, helburu hau bateragarri egin behar da aurreko atalean aipatu dugun baserriak banantzeko edo zatikatzeko baldintzen malgutzarekin, baserriak historikoki izan duen funtzio anitza eta lurralde-egituratzailea gal ez dezan.

- Egun indarrean dagoen “gutxieneko lurzatia” (20.000 m²) aztertu, lur-banaketak egiteari dagokionez, eta baserriaren nekazal-abeltzain jardueraren oraingo eta etorkizuneko mantentze eta berreskuratzearen gainean izan ditzakeen ondorioak balioztatu.

8) Azpiegitura eta zerbitzu egokien zuzkidurak.

- Tokiko bide sarea finkatu herrigunea eta inguruko barreiatuen arteko komunikazioa hobetzeko xedeaz.
- Urkillagako gaina eta Aiako errepidea (GI-3151), Lauzti erreka (GI-3152), Aitzartekoa (GI-4151), eta Motasoroko errepidea (GI-4153) zaindu, hornitu eta sustatu, erakargarritasun natural handiko inguruneari sarbide gisa eta eremu landatarra artikulatzen duten oinarritzko azpiegitura gisa.
- Udalerriko bizitegi eremu guztietan argiteria, gasa eta edateko uraren hornikuntza sareak osatu eta hobetu.
- *Aia auzoan ur zikinen saneamendu sarea egokitzea, eskumendun erakundearekin aukera ezberdinak aztertuz.*

**Aiako auzotarrek partaidetza prozesuan egindako ekarpenari erantzunez.*

A4.3 EREMU HIRITARRA

Eremu hiritarra udalerriko asentamendu sistema nagusi gisa ulertzen dugu, aranaren hondoan eta Agaunta ibaiaren ibilgua jarraituz kokatzen dena, eta Elbarrena, Astigarraga, Arrondo, Arinberriaga eta San Gregorio auzuneek osatua. Ergoene eta Aia auzuneak aldiz eremu hiritarraren mugapenetik kanpo kokatzen ditugu, bakoitzaren berezko ezaugarriek tokian tokiko erantzuna eskatzen baitute.

Beraz, atal honen helburu zehatzak hurrengoak dira:

9) Hierarkizatutako eta gune-anitzeko kokaleku sistemaren finkatzea.

- Biztanleria errotzeko eta erakartzeko gaitasuna izango duen nukleo nagusi baten garapena, Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea modu bateratuan antolatuz hiri-zein landa-erabileren mosaiko gisa.
- Elbarrena eta San Gregorio auzuneak eremu hiritarra mugatu eta asentamendu sistema errematatzen duten buru edo polo gisa garatzea, bi poloen arteko konektibitatea oinezko, bizikleta eta garraio jasangarri zein publiko bidez bermatuz.

- Elbarrenako herrigunearen hierarkia eta erreferentzialtasuna indartzea, ekipamenduen zuzkidura eta espazio publikoen hiri-kalitatea hobetuz eta merkataritza eta ostalaritza jarduerak sustatuz.
 - Udalerrri mailako ekipamendu nagusien egungo kokapena baliatuz, Astigarraga auzunea eskualde mailako ekipamenduen kokagune gisa garatzeko aukera aztertzea.
**Herritarren partaidetza prozesuan zehar jasotako ekarpen zein iradokizunen ondorioz, helburu zehatz honetan bizitegi-programari egiten zitzaion aipamena ezabatu da, agiri honetan behin baino gehiagotan azaldutako argudioak tarteko.*
 - Gaur egungo asentamenduen izaera “periurbanoa” finkatzea, elkarren arteko jarraitutasunak ekidinez, formalki besterik ez bada ere.
 - Agrologiako balio altua duten lurzorua eremu hiritarraren egiturazko elementu gisa antolatzea eta erreka-ertzen kolmatazioa saihestea.
- 10) Asentamendu sistemaren artikulazioa.
- Elbarrena eta San Gregorio auzuneen arteko oinezkoentzako, txirrindularientzako eta gainontzeko mugikortasun-bitarteko jasangarrientzako hiri-izaerako bidea antolatzea, GI-2120 errepideari eta Agauntza ibaiari paralelo.
- 11) Hiri-paisaiaren ezaugarrien babesa.
- Hiri-agertokia espazio publikoaren arabera antolatu, espazio libre desberdinen jarraitasuna eta konektagarritasuna bermatuz.
 - Proposatutako dentsitate eta tipologia lurraldearen ahalmenaren eta udalerriaren izaeraren arabera egokitzea.

A4.4 BIZITEGI LURZORUA

Udalerriaren egungo egoeraren diagnosiak ikusarazi du gainbehera demografikoa ez dela bizitegi eskaintza eskasaren ondorio, Ataunek egun 237 etxebizitza huts baititu eta indarreko plangintzan aurreikusitako etxebizitzaren %30 besterik ez baita gauzatu. Are gehiago, azken 14 urteetan 2 etxebizitza berri gauzatu dira soilik. Beraz, biziberritze demografikoan lagundu nahi badu, plangintza berriko bizitegi programak eskaera handituko duen eskaintza erakargarria proposatu behar du, ingurumen- zein kultur-ondarearen eta ekipamenduen laguntzaz, inguruko udalerriek eskaini ezin dituzten bizimodu “alternatiboak” antolatuz.

Horren harira, egokia litzateke herritarren egungo etxebizitza kultura birdefinitzea, alokairua bizitzeko modu bezala sustatuz, aldi baterako edo behin betirako. Eta zeregin horretan erantzukizun handia du administrazio publikoak.

Dena den, etxebizitza politikek eskaintzan ere eragina izan beharko lukete, eta egun hutsik dauden etxebizitzaren zati bat alokairu gisa merkaturatzen lagundu, edonola, plan orokorraren eskumenetatik kanpo geratzen diren ekimenak adostuz.

Nolanahi ere, atal honen helburu zehatzak hurrengoak dira:

12) Udalerriaren bizitegi ahalmenaren berrikustea.

- Bizitegi ahalmena indarreko Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) ezarritakoaren arabera kuantifikatu, egindako diagnostik eratorritako aldagai eta osagarri sozio-demografikoak aplikatuz.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak Plan Orokorraren haserako formulazioaren harira helarazi duen txostenak (3HI-016/24-N35) “udal hiri-plangintzan aurreikusi beharko den ahalmen maximoa” **178 etxebizitzakoa dela adierazten du.*

Berriki argitaratu den BEASAIN-ZUMARRAGAKO EREME FUNTZIONALEKOLURRALDE PLAN PARTZIALA BERRIKUSTERAREN DOKUMENTUA (GOIERRI). AURERRAPENA 2024 agirian Ataungo udalerriarentzat proposatzen den bizitegi-ahalmena **173 etxebizitzakoa da 2031 urtera arte, eta **200 etxebizitzakoa** 2050 urtera arte.*

- Indarreko antolamenduan betegabeko ahalmena berrikusi jasangarritasun eta zilegitasun irizpideen baitan.
- Udalerriko bizitegi ahalmena birbanatu eta antolatu azkenean hautatuko den lurralde-eredu zein kokaleku edo asentamendu sistemaren arabera.

13) Etxebizitza duin baterako eskubidea.

- Bere eskumenen barruan, hutsik dauden etxebizitzak alokairu-merkatuan jartzeko neurriak proposatzea, ahal den neurrian, lizentzien onarpena konpromezu zehatzak hartzera baldintzatuz.
- Arauzko estandarrak alde batera utzi eta, ahal den neurrian, babes ofizialeko etxebizitza alokairu sozialera bideratu, bereziki sustapen publikoa izango duten garapenetan.
- Biztanleriaren zahartzeak dakartzan arazoei aurrea hartu, landa-eremuan batik bat, non biztanleria eremu hiritarrera mugituko dela aurreikusi daitekeen.

14) Etxebizitza parkearen jasangarritasuna.

- Zaharkituak, degradatuak edo irisgarritasun arazoak dituzten guneen birsorkuntza ahalbidetuko duten jarduketak sustatu.
- Bizitegi-garapena pixkanaka eta zerbitzuen eta ekipamenduen hornidurarekin orekan programatzea.

- Bizigune eremu berrien etxebizitza tipologia eta dentsitateak kokapen, topografia eta hiri-ingurunearen ezaugarrien arabera egokitu, guztiaren gainetik balio natural eta paisajistikoak gordez.
- Gaur egungo eta etorkizuneko etxebizitza eraikinen eraginkortasun energetikoa eta ekoizpen endogenoko energia berriztagarrietan oinarritutako instalakuntza kolektiboen proiektuak sustatu.

A4.5 JARDUERA EKONOMIKOAK

Ataungo ehun produktiboak potentzialtasun mugatua du baina tokiko nekazaritza-abeltzaintza edota basogintza ustiapenak, eta ingurumen- zein kultura-ondarean oinarritutako turismo jarduerak herri-nortasun berritu baten ardatza izan daitezke, beti ere, iraunkortasun paradigma oinarri hartuta. Honen harira, azpimarratu beharra dago turismoa ez dela jarduera ekonomiko isolatutzat hartu behar, udalerriko zerbitzu sareko zati banaezin bezala baizik, eta halakotzat, Ataungo herritarren zerbitzura egon behar du. Inguruko ezaugarriak kontuan hartzen dituen sektore turistiko bat sarea osatzen duten beste zerbitzuekin sinergiak sortzeko gai da, horrela lurralderako eredu ekonomiko berri bat sortuz, eta sektoreari arrunki lotzen zaizkion hainbat arazo ekidinez.

Gainera, tokiko beharrak ahaztu gabe, eskualdearen eskakizunetara egokitutako funtzio eta zerbitzu osagarriak garatu beharko lituzke Ataunek, izan ere, jarduera ekonomikoak antolatzeke LPSak eta Goierriko LZPak “garapen txikiko udalerri” gisa kategorizatzen baitute, eta ondorioz, hirigintza plangintzak kalifikatuko duen lurzorua “hiri-izaerako jardueretarako” mugatzea proposatzen baitute.

Beraz, atal honetako helburu zehatzak hurrengoak dira:

15) Basogintza eta landa-abeltzaintzaren babesa eta sustapena.

- Baserriaren egungo zein etorkizuneko nekazal-abeltzaintza ekoizpen ahalmena mantendu, landa eremua higiezinaren presiotik babestuz.
- Landa eremuko biztanleriaren belaunaldi erreleboa sustatu, baserriaren jarduera eta bizitegi-ekoizkor funtzio mistoa zaintzeko xedearekin.
- Nekazal- eta abeltzaintza-produktuen lehen eraldatze jarduerak eta horiek udalerrian bertan merkaturatzea sustatu, landa ingurunean eta eremu hiritarrean beharrezko azpiegiturak aurreikusiz.
- Basogintza jarduera eta lehen eraldatzea sustatu, bai zerrategiei bai udalerriko ahalmen handiko energia berriztagarriei (biomasa, ura..) lotutako jarduera berriei dagokionean.

16) Industria jarduera finkatzea.

- Zubikoetako industria lurzorua finkatzea, eta Ajarrestan aurreikusitako garapena (AIU2) berraztertzea.
- Udalerrriak dauzkan baliabide hidrologiko edo eoliko anitzen ustiapenerako azpiegitura berrien balizko sorkuntza aztertu.

17) Zerbitzu sektorearen garapena.

- Komertzioa eta ostalaritza Elbarrenako eta San Gregorioko herriguneen elementu bereizgarri bezala kontsolidatu.
- Lurraldearen ezaugarriekin koherentea den sektore turistiko bat sustatu, azpiegituren (hotelak, aterpeak, kanpalekuak, ekipamenduak...) aurreikuspena eta erlazionatutako zerbitzuen bitartez, bai herrigunean baita landa eremuan ere.
- Hirugarren adinekoentzat bizitegi, asistentzia eta aisialdirako zuzkidurak sustatu, tokiko zein eskualdeko biztanleriaren zahartzeari erantzun diezaiokeen sektore ekonomiko eta laboral moduan.

A4.6 EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO PUBLIKOAK

18) Ekipamendu zuzkidura finkatzea eta garatzea.

- Udalerriko ekipamenduak plangintza orokorrak azkenenean onartutako lurralde ereduaren arabera antolatzea, egungo biztanleria errotzeko eta berria erakartzeko gaitasuna izango duen nukleo nagusiaren elementu egituratzaile eta bereizgarri gisa.
- Ekipamenduen zuzkidura, tokiko beharren arabera ez ezik, eskualdeko eskakizunen arabera garatzea eta antolatzea, J.M. Barandiaran Euskal Parke Mitologikoari eta Interpretazio Zentroari aisia- edota kirol-ekipamendu publikoen zuzkidura batuz, lurralde plangintzak ezarritakoaren babesean.
- Elbarrenan udalerrri mailako kultur eta administrazio ekipamenduen zuzkidura finkatzea eta garatzea, herrigunearen hierarkia eta erreferentzialtasuna sendotzeko.
- Astigarragan egungo ekipamendu orokorrak finkatzea eta eskualde mailako ekipamendu berriak antolatzea, lurralde ereduaren oinarritzko elementu gisa.
- San Gregorion tokiko ekipamenduak finkatzea eta garatzea, eremu hiritarreko asentamendu sistema errematatzen duen poloa sendotuz.
- Etxebizitza sozialak eta zuzkidura-bizitokiak barne-hartzeko udal ondarearen erabilera aztertu, gazteriaren emantzipazio beharra eta tokiko biztanleriaren zahartzeari dagozkion beharrak modu bateratuan ebazteko asmoz.

19) Espazio publikoen hiri-kalitatearen hobetzea.

- Espazio publiko adierazgarri edo esanguratsuak Elbarrenako herrigunearen elementu bereizgarri gisa finkatzea eta garatzea.
- Eremu hiritarreko eta landa-guneetako tokiko espazio publikoak finkatzea eta garatzea, herritarren gizarte kohesioa sustatu eta asentamendu sistema finkatu asmoz.
- Espazio publikoan ibilgailu pribatuen trafikoa murriztea eta, ahal den neurrian, GI-2120 errepidearen eragina saihestea.
- Indarreko plangintzak izendatzen dituen espazio libreen sistema orokorrak (Astigarraga eta Iturritza) berrantolatzea eta, hala badagokio, birkokatzea, hiri-bilbean txertatuak egon daitezen eta lurralde-ereduan zuzeneko funtzioa bete dezaten.
- Espazio publikoak bertako landarediaren eta animalien aniztasuna barne hartzen dituen eta hiri ingurunea lurralde eremu naturalarekin lotzen duen azpiegitura ekologikotzat hartzea eta proiektatzea.
- Espazio publikoen eta gune berdeen arteko bereizketa baztertzea eta espazio publikoetan gune hiritartuak eta naturalak uztartzea, klima-aldaketak hiri-guneetan sortutako erronka berriei aurre egiteko.
- Ahal den neurrian, Agauntza ibaia eremu publikoan txertatzea, bere hiri-kalitatearen ingurumen eta paisaia elementu bereizgarri moduan.
- Espazio publiko osoaren irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzea.

A4.7 GARRAIOAK ETA MUGIKORTASUNA

Udalerriko asentamendu sistema GI-2120 errepidearen bitartez artikulatzen da, eta hartan oinarritzen da udalerriko landa eremua eta barreiatu zabala lotzen dituen izaera lokaleko bide sarea ere. Aldiz, plangintza berriaren egiturazko elementu gisa proposatzen da Elbarrenatik San Gregoriora asentamendu sistema osoa lotuko lukeen oinezko eta bizikletentzako ardatz berria.

Beraz, atal honen helburu zehatzak hurrengoak dira:

20) Mugikortasun jasangarriaren sustapena.

- GI-2120 errepideari eta Agauntza ibaiari paralelo, Elbarrena eta San Gregorio auzuneen artean hiri-izaerako ibilbide jasangarri berria antolatzea eta sustatzea, udalerriaren garapen integralaren eta lurralde eredu berrikusiaren funtsezko elementu gisa.

[Herritarren partaidetza prozesuan jasotako ekarpen eta iradokizunen harira, azpiegitura berriari irizpide xehatuagoak ezartzea erabaki da; beraz:](#)

- Elbarrenatik Arrondora doan atala egungo baliabideetan oinarrituko da eta haietan esku hartuz burutuko da. Atal honetan guztian bide berria GI-2120 errepideari atxikia eramatea proposatzen da, egungo espaloiak zabalduz ahal denean, eta errepidean esku hartuz beharrezkoa denean. Horrela, Elbarrena eta Arrondo auzoetako gunek hiritartuenak gurutzatzeko, GI-2120 errepidea egokitzea proposatzen da, ibilgailuen zein oinezkoen eta bizikleten erabilera har dezan, bide batez, GFaren lankidetzaz errepideak hirigune horietan eragiten dituen kalteak murriztuz.
 - Egun errepide soila duen atala, Arrondotik San Gregoriora doana alegia, oinezkoen eta bizikleten erabilera mistoa izango duen bideaz hornitzeak lehentasun osoa izango du, eta atal honen garapenean ere bi fase aurreikusten dira. Lehen fasean Arrondo eta Arinberriaga auzuneak lotuko dira. Bide berriaren atal hau GI-2120 errepidearen ertzean burutuko da eta eremu horretan aurreikusten diren garapen zein erabilerei atxikia burutuko da. Bigarren fase batean burutuko da Arrondotik San Gregoriora doan atala eta bide berria GI-2120 errepidearen ertzean burutzea hobesten da, baina ezin da baztertu atal honek erreka bestalde doan Kaxio bidearekin bat egin behar izatea.
- *Kaxio* bidea deritzon eta landa-izaera duen oinezkoen ibilbidearen proiektua berrestea, arestian aipatu hiri-izaerako ibilbidearekiko guztiz bateragarria baita.
 - Ekipamendu eta espazio publikoen irisgarritasuna bermatu, eta oinezko-ibilbideen sare lokala mantendu eta osatu.
 - Eskualdeko garraiobide publikoen azpiegiturak eta ibilbideak berrantolatu, haren segurtasuna eta eremu *periurbanoen* komunikazioa bermatzeko.
- 21) Ibilgailu pribatuaren integrazio eraginkorra.
- Eremu hiritarrean zein landa ingurunean ibilgailu pribatuaren erabilera murriztu eta berrantolatu, oinezkoen, txirrindulariei eta mugikortasun jasangarriari lehentasuna eman.
 - GI-2120 errepidearen eskualde arteko komunikabide funtzioa berraztertzea eta bere ezaugarriak “leuntzea”, Ataungo eremu hiritarrean eragiten dituen erasanak ekidin edota murriztu asmoz.
 - GI-2120 errepidea Elbarrena eta San Gregorio auzuneen artean proposatzen den hiri-izaerako ibilbide jasangarri berriarekin bateragarri egiteko neurriak aztertzea.
 - Tokiko aparkamendu eskakizunak berrantolatu eta udalerriaz gaindiko ekipamenduek sortutakoa aurreikusi, disuasio-aparkalekuen sorkuntza barne.

- Gaur egungo zein proiektatutako garraio azpiegiturek biztanlerian eragiten dituzten erasanak aztertzea: kutsadura, zarata, hesi efektua, etab.
- 22) Landa eremuko bide sarearen mantenu eta garapena.
- Tokiko bide sarea osatzen duten Urkillagako gaina eta Aiako errepidea (GI-3151), Lauzti erreka (GI-3152), Aitzartekoa (GI-4151), eta Motasoroko errepidea (GI-4153) finkatzea eta hornitzea, landa-eremuaren garapenaren funtsezko elementu eta lurralderako sarbide gisa.

A4.8 AZPIEGITURAK ETA ZERBITZU SAREAK

- 23) Ur edangarriaren horniketa sarearen hobekuntza.
- Edateko uraren kalitatea bermatzera bideratutako eskuhartzeak sustatzea, arazketa sistema egokia ezarriz eta sarea osatzen duen fibrozementuzko hoditeria ordezkatzuz.
 - Hartune puntu eta arroetako ur kalitatearen zaintza, lurzoru ez urbanizagarriko ordenazio kategorien eta baldintzatzaile gainjarrien erabileren arauketaren bidez.
- 24) Saneamendu sarearen hobekuntza.
- Ur zikinen bilketa sarea osatzea, egungo kolektorea luzatuz edota bestelako sistemak (hondakin uren araztegia) ezarriz.
 - Hiri eta etxeko sareen bikoizketa bultzatu eta sustatu, bai gaur egun daudenak bai berriak, unitarioetatik banatzaileetara.
 - Aia auzoko ur zikinen saneamendu sarea egokitzea eta, ahal bada, hodi-biltzaile nagusiarekin lotzea, eskumendun erakundearekin aukera ezberdinak aztertuz.
**Auzotarrek egindako eskaera aintzat hartuz.*
- 25) Argiteria publikoari jasagarritasun irizpideen aplikatu.
- Sare berriak etekin energetikoen irizpideekin diseinatu.
- 26) Telekomunikazio-zerbitzuen sarbidea bermatu.
- Telekomunikazio-zerbitzuen sarbidea puntako estandarretan bermatzea, proposatzen den garapen ereduaren funtsezko elementu gisa.
- 27) Energia berriztagarrien hedapena sustatu.
- Gas hornikuntzaren sarea hedatzeari uko egin gabe, energia berriztagarrien (fotovoltaikoa, eolikoa, hidroelektrikoa, biomasa...) instalakuntzek sor ditzaketen eskakizunak aurreikusi, adibidez, auzo berogailu sistema zentralizatuak edo “*district heating*” deritzonak.

A4.9 ONDAREA

28) Ondare arkeologiko eta eraikiaren kontserbazioa eta balioaren nabarmentzea.

- Euskal Herriko kultur ondare katalogoko elementuak, dagokien babes mailarekin, edo udal mailan babesteko proposatutakoak, Plan Orokorrean txertatu.
- Aipatu katalogokoan jasota ez dauden elementu arkeologiko eta eraikiak babesteko proposatu, garrantzi historiko berezia edo herritarren memoria kolektiboan duten oihartzunagatik.
- Udalerriko ondare natural eta immaterialarekin batera, ondare arkeologiko eta eraikiaren balioa nabarmendu, hautatu den lurralde ereduaren eta herri-nortasun berritu baten ezinbesteko elementu gisa.

29) Ondare inmaterialaren kontserbazioa eta zaintza.

- Plangintza orokor berriak Ataunen euskararen erabilerari eragin diezazkioken ondorioak aztertu, hizkuntzaren kontserbazio gune edo "harnasgune" izaera bermatu asmoz.
- Bizi eredu eta bizibide tradizionalak zaindu, hirigune zein ingurune periurbano nahiz landa inguruneko bere habitat naturalak mantenduz.

6. ANTOLAKETA EREMUENTZAT HOBETSITAKO HAUTABIDEAK

Atal honetan Aurrerapen agirian jasotako antolaketa eremu bakoitzarentzat hobesten diren hautabideak azaltzen dira, baita herritarren partaidetza prozesuan jasotako ekarpenen eta iradokizunen ondorioz aintzat hartutako proposamen berriak ere.

6.1 ZUBIKOETA

Aurrerakin agiriko hautabide guztiek H.J.E.1 ZUBIKOETA eremuaren finkatzea aurreikusten dute.

6.2 AJARRESTA

1. eta 3. Hautabideak hobesten dira, hau da, indarreko plangintzan aurreikusitako lurzoru urbanizagarria (AIU2) bertan behera uzten da eta lurzoru urbanizaezin bezala sailkatzen da.

6.3 ELBARRENA EKIALDEA

H.J.E.2 ELBARRENA EKIALDEA eremuan, oro har, Aurrerakin agiriko 3. Hautabideko proposamenak hobesten dira. Antolamenduaren ildo nagusiak ondorengoak dira:

- Eremuak San Martin auzoko herrigunearen zatirik handiena barne hartzen du, *Agauntza* ibaitik ekialdera kokatzen dena hain zuzen, eta indarreko AIU3, AIU4, AIU6, AIU7, AIU8, AIU9, AIU11, AIU12 eta AIU13 biltzen ditu.
- Eremuko ekipamenduak eta espazio libreak finkatzen dira eta plazako sistema orokorraren azalera handitzen da.
- Plazako AIU8 unitatean aurreikusitako bizitegi-garapena finkatzen da eta plangintza orokorrak 50-60 etxebizitza inguruko programa antolatuko du.
- Indarreko plangintzak bizitegirako aurreikusitako zuzkidura-jarduketa gehienak finkatzen dira, AIU11 unitatea barne, eta egungo eraikuntzen ordezkapenerako irizpideak ezarriko dira.
- AIU13 unitatean aurreikusitako bizitegi-garapena murrizten da eta *Aitzarte* errekaaren iparraldean adineko pertsonen zaintza integralerako ekipamendu publikoa aurreikusten da, esan bezala, adinekoen zuzendutako zuzkidurak (eguneko zentroa, adinekoen zentroa, tutoretzapeko etxebizitzak,...) gazteentzako zuzkidura bizitokiekin osatuz, adinekoen txertatzea eta belaunaldien arteko harremana sustatu asmoz.
- *Bittor* jatetxearen atzealdean “aire libreko topagune bat” sortzeko eta “etxebizitza erabilera izango duen eraikin berri bat” eraikitzeko proposamena txertatzen da, beti ere, iradokizunaren balorazioan azaldutako ingurumen baldintzatzaileen menpe eta alboko Espazio Libreen Sistema Orokorra Elbarrenako hirigunearekin lotzeko proposatu den oinezkoen ardatzari bide emanez.

6.4 ELBARRENA MENDEBALDEA

H.J.E.3 ELBARRENA MENDEBALDEA eremuak San Martin auzoko herrigunearen gainontzeko zatia barne hartzen du, *Agauntza* ibaitik mendebaldera kokatzen dena, eta indarreko AIU5 eta AIU10 biltzen ditu. Eremu hau guztiz finkatutzat jotzen da, bertan kokatzen diren ekipamenduen eta espazio libreen sistema orokorrak barne, eta ez da inolako esku-hartze berezirik proposatzen.

6.5 ASTIGARRAGA

Herritarren partaidetza prozesuan jasotako ekarpenen eta iradokizunen ondorioz, H.J.E.4 ASTIGARRAGA eremuaren plangintzak Aurrerapen agiriko 0. Hautabidea izango du oinarri, hau da, funtsean indarreko plangintza finkatzea proposatzen da, zenbait aldaketa badituen arren; ondorengoak dira:

- Eremuak AIU14, AIU15 eta AIU16 unitateak biltzen ditu eta bizitegi-erabilera duen lurzorua muga apur bat zabaltzen da hego-ekialdetik.

- Eremuko hezkuntza eta kirol ekipamenduak finkatzen dira eta azalera apur bat handitzen da ipar-ekialdetik, egungo kiroldegiaaren instalakuntzak egokitu ahal izateko, partaidetza prozesuan jasotako ekarpenen harira.
- Gainera, indarreko plangintzak *Agauntza* ibaiaren beste ertzean izendatzen duen espazio libreen sistema orokorra (2.695 m^2) ere finkatzen da eta eremuari lotzen zaio, orotara 49.960 m^2 inguruko azalera batzeraino.
- Bizitegi-erabilera duen lurzoruan 18 etxebizitzako programa aurreikusten da (indarreko 20en ordezt) eta antolamendua zertxobait aldatzen da, garapenaren kudeaketa errazteko bizitegi-lurzorua 2 unitate ezberdinetan banatu asmoz.
- “Bidegorria” egokitzeko irizpideak berrikusi dira eta Astigarraga auzoko gunehiritartua gurutzatzeko egungo mendebaldeko espaloia zabaltzea eta GI-2120 errepidea egokitzea hobesten da.

6.6 ARRONDO

H.J.E.5 ARRONDO eremuko plangintzak Aurrerapen agiriko 1., 2. eta 3. Hautabideak izango dituen oinarri baina, uholde-arriskuko eremuaren arautegia jarraituz, *Auzmendienea* etxea finkatzea eta hura ordezkatzeko aurreikusten zen bizitegi-garapena bertan behera uztea proposatzen da.

Aldiz, *Zapatarizar* eta *Errekondo* etxeak ordezkatzeko irizpideak ezarriko dira, zuzkidura-jarduketa baten bidez lursailen eraikigarritasuna handitu, auzoan gunehiritartu publiko bat antolatu eta errepidearen ertzean espaloia egokitu asmoz. Bide batez, indarreko plangintzak eremuan aurreikusitako zenbait jarduketa isolatu finkatzen dira, arestian aipatu irizpideek auzoarentzat helburu gisa ezarritako “harrotzea” bermatzen baitute, gure iritziz.

Azkenik, jendaurreko epean jasotako iradokizunari erantzunez, aipatu da jada lehen sektorearen garapenak behar dituen azpiegitura publikoak *Baztarrika* baserriaren inguruan txertatzeko eta iradokitako proiektu pribatuarekin bateragarri egiteko asmoa.

Bada, aipatu helburua H.J.E.5 ARRONDO eremuko hiri-lurzorua hegoalderantz zabalduz eta jarduera ekonomikorako lursaila izendatuz erdietsi nahi da. Ondorioz, eremuak 31.548 m^2 inguruko azalera hartuko du orotara.

6.7 ARINBERRIAGA

Astigarraga auzoko plangintzaren irizpide eta helburuetan proposatutako aldaketaren ondorioz eta *Baztarrika* baserriaren eremuan iradokitako proiektuari esker, H.J.E.6 ARINBERRIAGA eremuak lurralde-ereduan aurreikusia zuen funtzioa errotik aldatu da.

Izan ere, 1., 2. eta 3. hautabideetan proposatutako mugaketa eta sailkapena ontzat ematen da, baina haietan jarduera ekonomikoetara bideratzen zen eremua bizitegi-erabilerak hartzeko hautatzen baita orain, indarreko plangintzan (0. Hautabidea) aurreikusitako bizitegi-garapenaren intentsitatea handituz gainera.

Horrela, eremuan 16 etxebizitza inguruko garapena antolatuko du plangintzak eta, bide batez, auzoko gizarte-ekintza ez zaurgarriak hartuko lituzkeen ekipamendu publikoa ere aurreikusten da, uholde-arriskuak erasandako bizitegien ordeztuz.

Modu batera zein bestera, eremuaren garapena GI-2120 errepidearen ertzeko “bidegorria” egokitzeko baliatu behar da ezinbestean.

6.8 SAN GREGORIO EKIALDEA

H.J.E.7 SAN GREGORIO EKIALDEA eremuan Aurrerapeneko 1., 2. eta 3. hautabideetan jasotako antolamendua hobesten da, *Artilazpikoa* etxea ordezkatzeko proposatzen den balizko zuzkidura-jarduketa izan ezik.

6.9 SAN GREGORIO MENDEBALDEA

H.J.E.8 SAN GREGORIO MENDEBALDEA eremuko plangintzak Aurrerapen agiriko 2. Hautabidean jasotako antolamendua izango du oinarri, hau da, *J.M. Barandiaran* interpretazio zentroaren eta *Olearratibelerdikoa* baserriaren alboan bizitegi-erabilera hobesten duena. Hala ere, eremuaren eta hiri-lurzorua mugaketa aipatu eraikuntzak hartzeraino zabaltzea baztertzen da azkenik.

Gainera, 2. Hautabideak proposatu bezala, eremua mendebaldeantzat zabaltzeko asmoz *Larrañe* etxearen eta *Armuña* baserriaren arteko muinoa zein *Lauzti* errearen ertza eremuan txertatzea ontzat ematen da.

Nolanahi ere, Irismen Agirian jasotako oharpena (*gaztainondo basoa eta intereseko fauna*) aintzat hartuz, aurreikusitako Gune Libreen Sistema Orokorra *Lauzti* errearen ertza ekartzea hobetsi da, eta 10 etxebizitza inguruko bizitegi-garapena muinora eramatea.

6.10 AIA AUZOA

H.J.E.9 AIA AUZOA eremuan Aurrerapen agiriko 1. Hautabidea hobetsiko da, auzotarrek hala eskatuta.

7. HOBETSITAKO ANTOLAKETA HAUTABIDEAK LURZORU URBANIZAEZINEAN

7.0 ALDERDI OROKORRAK

Ataungo lurzoru urbanizaezinaren antolamendua guztiz baldintzatua dago udalerriaz gaindiko araudi zein plangintza tresna ugarien xedapenetara, are gehiago, udal barrutiaren hiru laurden baino gehiago Aralarko Parke Naturalaren barnean daudenean.

Zentzu horretan, Plan Orokorrak bere egin beharko ditu Irismen Agiriak lurzoru urbanizaezinaren antolamendurako ezarritako irizpideak zein kontuan hartu beharreko ingurumen alderdiak eta, horretarako, *Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan* (LAG) eta *Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala* (LPS) delakoan definitutako antolamendu kategoriak esleituko ditu. Bide batez, kontuan hartuko dira Aralar Parke Naturaleko eta Kontserbazio Bereziko Eremuko (KBE) gunee babestuetarako ezarritako zehaztapenak, bai eta Oria Garaiko Kontserbazio Bereziko Eremua ere.

Gainera, Aurrerapen agiriko baldintzatzaile gainjarriaren proposamena berrikusiko da eta horietako batzuen kasuan lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioaren bidez ematen den babesarekin egon daitezkeen bikoiztasunak ekidingo dira.

Era berean, lurzoru urbanizaezinean jarduera eta instalazio onargarriak kokatzeko eta garatzeko baldintzak finkatuko dira, zenbait kasutan ordenantza arautzaile espezifikoa egin eta onartu beharko diren arren. Esate baterako, energia berriztagarriak ekoizteko eta energia elektrikoa biltegitratzeko instalazioak ezartzeko eremu egokiak mugatuko dira eta zehaztuko da, orobat, erabilera horiek lurzoru kategoria ezberdinetan ezartzeko araubidea ere, lurzoru urbanizaezinean garatzen diren beste erabilerekin modu bateragarrian.

Plan Orokorrak arautuko ditu, besteak beste, hondakin uren bilketa eta tratamendu egokia, obra eta espazio degradatuen paisaia lehengoratzeko, pistak irekitzeko, egiturak paisaian txertatzeko, heskaien kontserbazioa edo landa gunea eta natura eremua ingurumenaren aldetik hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren beste alderdi batzuk.

Azkenik, herritarren partaidetza prozesuan jasotako ekarpen eta iradokizunen harira, Plan Orokorrak egun lurzoru urbanizaezinean dauden baserriak banantzeko baldintzak arautuko ditu, baita egungo ekoizpen moldeetara egokitutako eraikuntza osagarrien baldintzak ere, udalerriaz gaindiko arautegiak ezartzen dituen mugen barnean eta baserriak lurraldean historikoki izan duen funtzio egituratzailea bermatuz.

Nolanahi ere, badira lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan arreta berezia eskatzen duten eremu eta proiektuak:

7.1 LANDA-GUNEA LURZORU URBANIZAEZINEAN: ERGOIENA

Herritarren partaidetza prozesuan zehar ez da Ergoiena auzoaren inguruko ekarpen edota iradokizunik jaso, Aurrerapen agirian Elbarrenatik San Gregorioraino proposatzen den “bidegorria” bertaraino luzatzeko eskaeraz haratago.

Ondorioz, hautabide guztietan jasotzen den bezala, Ergoiena auzoa landa-gune gisa finkatzea proposatzen da eta haren garapena Antolamenduko Plan Bereziaren bidez antolatzea, bere eskumenen artean eremuaren hedapena bera eta haren plangintza xehatua izango dituen.

7.2 ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA: ASTIGARRAGA

Elbarrenako eta Astigarragako lur hiritartuen artean kokatzen den eremuan (*Bitorrene* ondoko zelaian alegia) egun *Lurzoru Urbanizaezin* gisa duen sailkapena finkatzea eta *Espazio Libreen Sistema Orokorra* izendatzea proposatzen da, Udalak hura eskuratzeko eta erabilera publikoa bermatzeko hautatzen duen prozedura edozein dela ere.

11.000 m² inguruko azalera du eremuak eta, *Lauzti* errekaen ertzeko 4.350 m² inguruko azalerarekin batera, indarreko plangintzak *Iturritza* gisa izendatutako Sistema Orokorra ordezkatzera dator.

7.3 INTERES OROKORREKO NEKAZARITZA AZPIEGITURA: BAZTARRIKA

Aurrerapen agiriaren jendaurreko epean jasotako iradokizuna aintzat hartuz, *Baztarrika* baserriaren ingurune osoa, errepidearen bi alboetara kokatzen den 26.627 m² inguruko eremua alegia, *interes orokorreko nekazaritza azpiegitura* izendatzea proposatzen da, egun *Lurzoru Urbanizaezin* gisa duen sailkapena mantenduz.

Nolanahi ere, proiektu pribatua izan arren, Arrondo auzoan proposatu den azpiegitura publikoarekiko koordinazioa eta elkarlana sustatuko dira, eta proiektu osoaren interes publikoa bermatuko duten akordioak eta hitzarmenak landuko dira.

7.4 EKIPAMENDU KOMUNITARIOEN SISTEMA OROKORRA: SARA

Joxe Migel Barandiaranen jaiotetxearen ingurunean indarreko plangintzaren aurreikuspenak finkatzea proposatzen da, mugaketa, sailkapena eta izendapenari dagokionez.

8. HOBETSITAKO ANTOLAKETA HAUTABIDEEN LABURPENA

8.1 HOBETSITAKO ANTOLAKETA HAUTABIDEEN LABURPEN KOADROA

Azkenik aukeratu diren antolaketa hautabideek ondorengo koadroa sorrarazten dute, non modu laburtuan hirigintza erabilera ezberdinetara bideratutako azalerak jasotzen diren, hartuko dituen lurzorua sailkapenaren arabera multzokatuak.

LABURPEN KOADROA										
HJE	AZALERA GUZTIRA	ERABILERA OROKORRAK								
		Bizitegiak		Jarduera ekonomikoak		Zuzkidurak		Espazio libreak + ibai ibilguak		Komunik. sarea
		Azalera	+	Azalera	+	Azalera	+	Azalera	+	Azalera
	m²(l)	m²(l)	Kop. (*)	m²(l)	m²(s)	m²(l)	m²(s)	m²(l)		m²(l)
HIRI-LURZORUKO EREMUAK										
1 Zubikoeta	17.384	0	0 (0)	17.384	0	0	0	0	0	0
2 Elbarrena E	76.975	57.446	69 (53)	1.307	0	5.874	3.200	6.645	3.376	5.703
3 Elbarrena M	24.180	18.043	0 (0)	0	0	682	0	1.302	0	4.153
4 Astigarraga	49.960	27.260	18 (0)	0	0	16.924	500	2.849	0	2.927
5 Arrondo	31.548	25.197	0 (13)	2.020	360	0	0	1.250	885	3.081
7 S.Gregorio E	19.068	10.726	0 (8)	0	0	1.770	0	3.194	1.868	3.378
8 S. Gregorio M	30.530	22.836	30 (5)	0	0	0	0	4.985	4.985	2.709
9 Aia	6.709	3.464	4 (6)	1.343	720	677	0	364	0	861
GUZTIRA	256.354	164.972	121 (85)	22.054	1.080	25.927	3.700	20.589	11.114	22.812
LURZORU URBANIZAGARRIKO EREMUAK										
6 Arinberriaga	21.265	16.584	16 (0)	0	0	1.820	375	0	0	2.861
GUZTIRA	21.265	16.584	16 (0)	0	0	1.820	375	0	0	2.861
HIRI-LURZORUA + URBANIZAGARRIA										
GUZTIRA	277.619	181.556	137 (85)	22.054	1.080	27.747	4.075	20.589	11.114	25.673
Egungoaren %	109,43	107,51	+25 (-6)	58,12	10,23	122,76	230,23	281,73	-	-
LURZORU URBANIZAEZINEKO EREMUAK										
E- Ergoiena	41.938	41.938	0 (7)	0	0	0	0	0	0	0
A- Astigarraga	10.684	0	0	0	0	0	0	10.684	10.684	0
B- Baztarrika	26.627	0	0	26.627	200	0	0	0	0	0
S- Sara	34.783	0	0	0	0	34.783	0	0	0	0
GUZTIRA	114.032	41.938	0 (7)	26.627	200	34.783	0	10.684	10.684	0

(*) Bizitegia-ahalmenaren gehikuntza gisa zenbatzen ez diren etxebizitzak.

Lurzoru urbanizaezinean zedarritutako eremuen erabilerak ezin dira lotu hirigintza-erabilerekin zentzu hertsian, baina plangintza orokorrak hautatu duen lurralde ereduan eta garapenean funtzio erabakigarria betetzen dute, hiritartutako eremuaren ardatz osoan agrologiako balio altua duen lurzoruak betetzen duen bezala.

8.2 HOBETSITAKO ANTOLAKETA HAUTABIDEEN ONDORIO OROKORRAK

Lortutako datuetatik jarraian datozen ondorio orokorrak erartortzen dira:

- (1) Hiri-lurzoruan zein urbanizagarrian antolatutako hirigintza eremuen azalera osoa %10etik behera hazten eta hazkundera ia osotasunean *H.J.E.6 Arinberriaga* eremuari dagokio, lurzoru urbanizaezineko landa-gune izatetik lurzoru urbanizagarri izatera pasatzen delako.
- (2) Hiri-lurzoruaren hazkunde handiena *Zuzkidurak* (+%22,76) eta *Espazio Libreak + Ibai Ibilguak* (+%181,73) kalifikazioa duen azaleran ematen da; aldiz, *Jarduera ekonomikoak* kalifikazioa duen lurzorua ia erdira murrizten da (-%41,88), indarreko plangintzan aurreikusitako *Ajarresta* eremua bertan behera uzten delako.
- (3) *Bizitegiak* kalifikazioa duen lurzorua %7,51 hazten da eta bizitegi-programa osoa, jarduera integratuak zein zuzkidurakoak aintzat hartuz, 222 etxebizitzakoa da (+19); hala ere, bizitegi-ahalmena kontabilizagarria 137 etxebizitzakoa da, indarreko plangintzarena baino 6 etxebizitza handiagoa baina Lurralde Antolaketako Gidalerroek xedatutakoa (173) baino nabarmen txikiagoa.
- (4) Esan bezala, hiri-lurzoruan zein urbanizagarrian *Espazio Libreen Sistema Orokorra* kalifikazioa duen azalera nabarmen handitu bada ere (19.852 m² ibai ibilguak ebatzita), murriztu egin da indarreko plangintzak kalifikatutakoarekin alderatuz gero (-19.204 m²); hala ere, murrizketa *Iturritza* deritzon sistema orokorraren ezabatzeari egotzi behar zaio, lurzoru urbanizaezinean kalifikatutako 35.056 m² inguruko azalera ez baita inoiz gauzatu.
- (5) Lurzoru urbanizaezinean gizarte-erabilera ezberdinetara bideratutako eremuek azalera garrantzitsua hartzen dute (114.032 m²), lurralde eremuan betetzen duten funtzioa bezain beste, zalantzarik gabe.


Oiartzunen, 2025eko martxoan



Eñaut Muñoa Artola
Arkitektoa



Hektor Espin Larreta
Arkitektoa



Aitor Iztueta Garaikoetxea
Aholkulari juridikoa